

PASTORALAREN GÜDÜKA ETA JEIA

Kepa Fdez. de Larrinoa

ESKERTZA

Barandiaran Fundazioak 1995. urtean Joxemiel de Barandiaran etnologia-ikerketarako dirulaguntzaren esker da idazlan hau egina. Bihoazkie Barandiaran Fundazioari eta bekaren epaimahikoei nire eskerrak. Eraberean, Zuberoako lagunei esker-tu nahi nahi dizkiet elkarrekin iraganiko mementuak oro. Eskerrik berezienak Carmen Larrañagarentzat dira, urteotan berak eman baitit lan hau idazteko indarra.

Kepa Fdez. de Larrinoa

PASTORALAREN ANTZEZGRAFIAN HEDATURIKO IRUDI HISTORIKO-KULTURALAK

I. PASTORALAREN ANTZEZGRAFIAZ

Zuberoako Pastoralak norbaiten bizitza kontatzen du. Kontakizuna teatrala da, bertsetez kantatua, eta gorputz-mugimendu bitxiak erabilia antzeztua. Estetika deigarria du Pastoralaren etzenifikazioak. Halaber, Pastoralaren etzenifikazioan kristau-irakatsi moralak zein giro historiko-politiko ezberdinak bategiten dira. Antzezpena eta antzeztokia moralki definituta agertzen dira Pastorallean, zerk eta Jaungoikoaren azken epaiketak taxutzen baitu Pastoralaren espazio etzenografikoa. Eraberean, Kristoren irudi salbatzailea bertan dago. Baita ere, Erdi Aroko kontzepzio politiko-erlijiosoak daude Pastoralaren antzezpenean, bereziki estatu kristauen hedakuntza militarra islamaren aurrean legitimatzen zutenak. Beraz, Pastoralaren antzezgrafian erlijioa eta politika elkartzen dira.

Pastoralak antzeztutako bizitza exenplua edo imitatzeko eredua da. Eta halaxe jakinarazten zaio sarrera eta bukaerako predekuetatik Pastoralaren ikusentzulegoari. Alegia, kutsu pedagogiko handia dario Pastoralari. Berez, Pastoral dotrinala da. Antzezgrafian bitartez dotrina, morala erakutsi nahi da, Pastoralak irakaspena dakar-eta. Antzezgrafian ezezik, heroea hiltzen deneko agerraldian ere nabarmentzen da Pastoralaren ezaugarri pedagogikoa. Heroea hiltzen denean orduantxe agertzen zaigu osoki antzeztuta Jaungoikoaren azken epaiketaren eredua, eta heroea saritua da. Pastoralak heroe baten bizitza kontatzen du. Hala ere, Pastoralaren irudigintzan heriotza bera da bizitza bezain inportante, hots, bizitza ematea. Pastoralaren heroeak Kristoren irudi salbatzailea bete behar du, eta hala saiatzeagatik jasotzen du bere saria: zeruko atea zabalik aurkitzea. Irudigintza eta ideologia kristauak erabilia adierazten zaio ikusentzulegoari heroearen saria zein den, bizitza zuzenki ematearren merezia, xede kolektibo bati eskeinia. Pastoralak, orduan, heroearen bizitza imitatzea eskatzen du, *Kristoren imitazioa* nozio kristauaren oihartzuna bertan delarik. Tomás de Kempis-en *Imitación de Cristo* liburuaren lehenbiziko hitzak hauek dira:

*El que me sigue, no camina en tinieblas: (Juan. VIII, 12). Estas palabras son de Cristo, y en ellas nos amonesta que, si queremos alcanzar la verdadera luz del alma, y librarnos de toda ceguedad de corazón, imitemos su vida y sus costumbres.*¹

1. Fr. Tomás de Kempis, *Imitación de Cristo*. Traducción de Don José de Camino, Casa Editorial de Eusebio López, Tolosa, 1924, 4. edición, 19. orrialdean.



Sabino Arana Pastoralaren errepetizioa Garindaiñe herrian. Antzezleen banaketa antzetzokian; kristauak; elizgizonak eta aingeruak; eta turkoak.

Seguir, imitar. Alegia, 'jarraiki' eta 'eredu hartu' dira gako-eleak Pastoralaren antzezpen erritu-lizatuan. Pastoralaren *azken pheredikian*, heroea hil ondoren, orduan gogorazten zaio ikusentzulegari hildakoaren bizitza eredu-tzat jo behar duela. Esate baterako:

Deçagun oroc imita
arren helena Santa
eta goure azken orenian
othoy balia dakigula.

(*Hélène de Constantinople* Pastoral)²

Hola zen ixtoria
Maitena Basabürüna:
Harek hartü zian senda
izan dadila ziena!

(Maitena Basabürü Pastoral)³

318. Goguan balinbadügü
Herriaren lagüntzia,
Othoi jarraiki dezagün
heben ikhusi bidia.

271. Aranek etzian seküla,
Ixüri nahi odola,
Haren erakuspen hori,
Bethi jarraik dezagüla.

(*Sabino Arana Goiri* Pastoral)

2. *Une Pastorale Basque, Hélène de Constantinople: étude historique et critique*, Albert Léon, Librairie Ancienne Honoré Champion, 1909, 494. orrialdean.

3. Junes Casenave-Haragile, *Editons Euskalzañiñ, Mauleon*, 1982, 31. orrialdean.

Pastoralak egitura errepikakorrak erabiltzen ditu, egituren estetika eta sinbolika erlijiodunak izanik. Mezu moralak zabaltzeko bidea izateaz gain, mezu politikoak ere bideratzeko gai da Pastoralak, Pastoraletan bataillak eta gudak antzetzten baitira, sarri obran zehar agertutakoak, eta antzetzokian bereziki kodifikatutakoak. Izan ere, turken eta kristauen arteko burrukak antzetztea da Pastoralaren antzezgrafiaren ezaugarri funtsezkoetarikoa. Burruka hauek ongiaren eta gaiztoaren arteko lehia sinbolizatzen dute. Frantziako *Mystère*-en edo Espainako *Auto Sacramental*-en antzera, Pastoralak ona eta txarra, zuzena eta okerra, ongia eta gaiztoa elkarrengandik bereizten dituzte. Hala eta guztiz ere, *Mystère* eta *Auto Sacramental* direlakoetatik garbi bereizten da Pastoralak, zeren Pastoralari kutsu epiko-politikoak baitario. Arestiko baieztapenak ez du erran nahi *Mystère* eta *Auto Sacramental*-en errepresentazioetan dimentsio politikorik ez zenik.⁴

Elizaren kontzeptu abstraktuak populu xumeak aisago ikas zitzaizten sortu zen Erdi Aroko antzerki erlijiosoa. Hala izanda ere, Pastoralak epikaren bidea jo du, ongiaren eta gaiztoaren arteko burruka antzetzeko. Eta berorrek sakonki markatu ditu Pastoralaren antzezgrafia, sinbolika eta estetika, zeren eta Pastoralak batu baititu bere egitura eta kode etzenikoan Erdi Aroko estatugintzarekiko gorabeherak. Beraz, Pastoralaren antzezgituran hiru nozio ideologiko biltzen dira: Kristoren irudi salbatailearena; Jaingoikoaren aurrean dukegun azken

4. Ikus Ignacio Arellano, *Historia del teatro español del siglo XVII*, Càtedra, 1995.



Harispe Pastorala Muskildi herrian. Erdiko atea erabiltzen dituzten arizaleak: elizgizonak eta aingeruak.

epaiketarena; eta Erdi Aroko estatu erlijiosoen muga mugikorra. Pastoralaren estetika, orduan, giro politiko-erlijioso nabarmenean datza.

Gainera, Pastoralaren irudigintza, antzezgrafia eta erritueltasuna *Memoriaren Arteari* dagozkio. Alegia, *mnemotecniari*. Fernando R. de La Flor-ek bere *Teatro de la Memoria* liburuan azaldu duenez, *Artis Rhetoricaearen* alorra zen *Ars Memorativa*, beronek bi helburu zituelarik. Bata, Historia Sakratuaren pertsonaiak jakinaraztea. Bestea, saintuak izandako tokiak eta gertaerak populazioaren gogoran finkatzea.⁵ Pastoralaren etzenografia mnemotekniaren barruan kokatzen da, erritualki errepikatzen diren pertsonak, tokiak eta irudiak antzeztzen baititu Pastoralak. Kristauak, turkoak, apezak, aingeruak, satanak, zerua, lurra eta infernua dira Pastoralaren osagileak. Erritual, errepikakor, mnemotekniko eta etzenografikoa den kontakizun moral, pedagogiko eta dotrinal bat osatzen dute osagileok, zeren eta delako kontakizunak garaian garaiko ideia erlijiosoak, politikoak, sozialak eta ekonomikoak espresatzen baititu.

II. PASTORALAREN HEROEAREN BETEBEHARRA ETA GERLA SANTUEN IRUDIGINTZA

Erdi Aroko eredu dotrinal eta epiko bereziak jantzen du oraingo eta iraganeko Pastoralaren an-

tzezgrafia. Neurri handian kruzaden eta Jakobe-bidearen inguruan sorturiko irudigintzari lotua dago eredu hori: errekonkistarenari, hain zuzen ere. Errekonkistan lurraldeak etsaiari irabazleek kendu, eta lurraldeak kristaututakoan, lurralde haien definizio politiko-erlijiosoa aldatzen zen. *Gerla santuak* zuten izena. Batailaren ondorioz, irabazitako lurraldeetatik etsaiak bidali, eta kristau berriak maizter jartzen ziren bertan, edota etsai musulmanek fede kristaua berenganatzen zuten. Halako giroan kruzadek eta Jakobe-bidearen irudigintzak estatu kristauen eraikuntzari sostengu ideologiko-sinbolikoa eman zioten, heroe konkistatzaile, estatu-egile eta fededunaren pasadizoak gorai patuz. Heroeak bazuen bere betebeharra: hedakuntza militar-politikoari legitimazio sinboliko eta ideologikoa ekartzea. Legitimazioaren lengoia epiko-erlijiosoa zen.

Pastoralaren etzenografia estatugintzari begira dago antolatuta. Areago, estatugintza desberdinak biltzen dituela ikusten da. Bestela esanda, Pastoralaren etzenografian egitura bat-bera dago, non jenero epikoa, mimesis nozio estetiko eta azken epaiketaren pasarte biblikoa bateratzen diren. Etzenografia horren inguruan heroe historiko ezberdinen bizitzak gorai patu izan dira: hala nola, santu, profeta, enperadore, gudukari, pertsonaia herrikoi eta populu xumeenak. Heroe on bizitzen kontaeran estatuen eraiketa-prozesuak susmatzen dira. Konkistaren beharra, eta konkista-prozesuan alderdi batek erabilitako indarkeriari daxekeen benedikazioa, funtsezko ezaugarriak dira. Garai historikoa zein den, konkistaren egitura bat-bera horretan oinarrituta, hiru estatu-moeta

5. Ikus Fernando R. de La Flor, *Teatro de la Memoria: siete ensayos sobre mnemotecnia española de los siglos XVII y XVIII*, Junta de Castilla y León, Consejería de Educación y Cultura, 1996.

bereiztu ahal dira: Erdi Aroko estatu erlijioso hedatzaileak; Frantziako Iraultzak sortaraziko estatu nazionala; eta egungo estatu-nazione berrien egitasmoak. Estatuaren sostengu kognitiboa, muga fisikoak eta errepresentazio sinbolikoak aldatu egin dira historian zehar, eta aldaketa horiek Pastoralen azaltzen dira, estatuaren erakuntzaren arabera manipulatzeko baita arestian aipaturiko antzezgitura.

Pastoralaren jenero artistikoa hein handian epiko-politikoa da. Antzezgrafiarekiko irudi historiko-kulturalek eta antzeturiko gaiek hala darakuste. Folk-antzeppen eta irudikapen epikoek eragin handia izan dute Europako estatugintzan. Hala ere, badirudi Pastoralak eragin gutxi izan duela eta duela Pirinioaldeko estatugintzan. Pastoralaren izenarekin ezagutzen dugun folk-antzerkia Zuberoan kokatzen da egun, baina historiari soeginez gero, berehala ikusten dugu Zuberoa laster urrundu zela erresuma kristauek islamekoekin zuten gatazkazko mugatik.⁶

Hala ere, gogora ekarri behar dugu IX, X eta XI mendetan iparraldeko erta-pirinioa espazio politiko iberiarraren zatia zela, partikularzki Biarno eta Bigorre aldea. Pierre Tucoo-Chala historialariak adierazi duenez, Ebro eskualdeari lotua zegoen Biarno garai hartan. Alegia, Aragoiri. Horretan, Zuberoarekin mugakide edo Zuberoatik gertu diren bailerek parte zuzena hartu zuten Aragoiko errekonkistan, hala nola Ossau, Aspe, Olue, Baretous, Hecho, Anso eta Jaka eskualdeek.⁷ Beraz, ipar zein hegoaldeko erta-pirinionetako populazioek bete-betean ihardun zuten musulmanen aurkako guduetan. Eta Pierre Tucoo-Chalaz azaldu duenez, gerla eta bataila haien inguruan sorturiko konkistaduritzan mahometanoek 'etsaia' eta 'gaiztoa' erre-presentatzera jo zuten. Txarraren nozio abstraktua gorpuztu zuten, hots.⁸

Iberia penintsulako gerla santuetan ezezik, Orienteko lurraldeetakoetan ere parte hartu zuten piriniar jendeek. 1095. urtean Urbano II.ak Lehen Kruzadara dietu eta Gaston Biarnoko bizkondea hara joan zen, kruzada-armadara Pirinioetako sol-

daduak eramanez. Gaston Biarnokoaren partaide-tza ez zen edonolako suertatu, zeren eta, Antiokiako burrukan erakutsi zuen afanagatik, heroe gisa itzuli baitzen Orientetik Biarnora. Gastonen jesta modu ezberdinetara igaro zen herri-iruditzara. Batetik, Gastonek berak Jakobe-bideko piligrino-entzako ospitale bat Lescarren zabaldu zuen, Jerusalemeko bidean Jaingoakoak Gastoni emandako laguntza eskertu nahiean.⁹ Bestetik, Pierre Tudebode-ren kronika eta *Chanson d'Antioche* jestakantua ditugu, zeinek goraiatzeko baitzituzten Gastonek eta bere aspear eta ossauar soldaduek kruzadaguduan turken kontra egindakoak.¹⁰

Ikusi dugunez, IX, X, XI, eta XII mendeetan zehar Pirinioetan irudigintza kultural eta ideologiko beregisakoa mamitu zen. Irudigintza horrek mahometanoak zituen erreferente nagusiz. Alde batetik, Orienteko turkoak zeuden, eta bestetik, iberiar penintsulako mairuak. Biarnoko bizkondeen, Pedro I Aragoiko eta Ramiro I Aragoiko erregeen gerlek, gehi Antxo Gartzeiz Handia Nafarroako erregeak bultzaturiko europeizazio-politikak, bai turkoen eta bai mairuen irudiak eta errepresentazioak zabaldu arazi zituzten Pirinioetan barrena, normalean elizarteetan eta herri-kantu zein kontakizunetan guregan heldu direnak.¹¹

Beraz, mairu eta turken inguruan bazen imaginario kultural piriniar sendoa bat X eta XI mendetan, bertako jauntxoek Orienteko kruzadetan eta Iberia penintsulako guduetan parte zuzena hartzean sorturikoa. Imaginario horrek mairu edo turken eta kristauen arteko bataila jai-erritualak ekarri zituen, gerla-muga hegoalderago mugitzen zen bitartean. Erresuma kristauen muga hegoalderantz gero eta gehiago zabalatzeko mairu eta kristauen arteko burrukak jaigiroki erre-presenta zitezten ekarri zuela testigantza dago. Baina, lehenbiziko erresuma piriniar haietan mairu eta kristau guda-bestarik egiten al zen? Beste bi galdera behar dira egin. Lehena: norainoko parte hartzen zuten zuberotarrek imaginario ideologiko-kultural hartan? Eta bigarrena: Pastoralaren 'kristik/türkak' bereizte antzezgrafikoak non du sorrera? Erdi Aroaren hasierako Pirinio mendien historia geopolitikoak finkaturiko imaginarioan? Edo, beranduago, Erdi Aroaren bukaeran Mediterraneo aldean gauzaturiko imaginariotik inportatua heldu da?¹² Edo, ez bata, ez bestea,

6. Ikus, esate baterako, *Atlas de la Reconquista: la frontera peninsular entre los siglos VIII y XV*, Jesús Mestre Campi y Flocel Sabaté, Península, 1998.

7. Pierre Tucoo-Chala, *L'Islam était aux portes des Pyrénées: de Gaston IV le Croisé à la Croisade des Albigeois (XI-XIII siècles)*, Terres et Hommes du Sud Editions, Miarritze, 1994.

8. Pierre Tucoo-Chala, *L'Islam était aux portes des Pyrénées: de Gaston IV le Croisé à la Croisade des Albigeois (XI-XIII siècles)*, Terres et Hommes du Sud Editions, Miarritze, 1994, 52-56. orrialdeetan. Beste alde batetik, María Soledad Carrasco Urgoitik ikasi du mairuez nolako irudia hedatzen den folk-agerpenetan: *El moro retador y el moro amigo (estudio sobre fiestas y comedias de moros y cristianos)*, Universidad de Granada, 1996.

9. Pierre Tucoo-Chala, *Ibidem*: 82. orrialdean.

10. Pierre Tucoo-Chala, *Ibidem*: 68. orrialdean.

11. Ikus *Sancho Garcés III el Mayor, rey de Navarra*, Carmen Orcástegui eta Esteban Sarasa, Mintzoa, Iruñea, 1991.

12. Pastoralaren sorrerari buruzko eztabaidaz laburpena María Arene Garamendi Azkorrek egin du. Ikus *El teatro popular vasco: semiótica de la representación*, Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urkijo, 1991, 37-46. orrialdeetan.



Sabino Arana Pastoralak Garindaiñe herrian.

baizik eta: biek elkarri lotu ote zioten? Alegia, ospakizun-sistema erritualizatu berezi hura zela bide, gertatu ote zen ezen lehenbiziko kristau-erresuma piriniarren ideologia erlijioso-politikoari geroxeagoko –baina antzeko- iruditza mediterranearra erantsi izan zitzaioala?

Gauza zihurra dakigu: egun ezagutzen dugun estetika eta etzenografiari begira, Pastoralari buruzko lehen testigantzak Erdi Aroko bukaeran daude. Baita ere, badakigu Erdi Aroko hasieran bazirela mairu edo turkoen eta kristauen arteko burrukak Pirinioan errepresentatzeko baldintza kultural-ideologiko guztiak. Ez dakigu, ordea, halako besta erritualizaturik egiten ote zen lehenbiziko estatu piriniar haietan.

Eraberean Frantziako naziogintza berrian Pastoralak izan duen eragina eztabaidagarri da. Hasieran debekatuak izan ziren Pastoralak, errepublikak halaxe aginduta, erran nahi baita, errepublika ez zen Pastoralaren egitura sinboliko-pedagogikoaz fido, nazione berriaren errepresentazioa legitimatzeko arazoan. Geroago, XIX mendean zehar eta XX mendean hasieran nagusiki, aurreneko antzeografia erabilia ere Pastoralaren heroea eta beronen betebeharra frantzeztu ziren. Hala ere, ez dirudi zuberotarrak erakaspén berria bereganatu zuenik, zeren estatu berriari bizkar eman ziola bistan baitago. Frantziar nazione berrian soldadua izatea eta nazione berriaren alde odola ematea gogait egin zitzaion zuberotarrari. Imitatu ere, Jean d'Arc-

en eta Napoleon-en bizitzak ez zituzten imitatu zuberotar askok, armadara joateari ezetz esanda, Espainara edo Ameriketara alde egitean. Pastoralak estatu-nazione frantsesaren ideia imajinatu arazi edo erakatsi nahiean, estatuak berak erresistentzia topatu zuen zuberotarrarengan, XIX eta XX mendean hasierara arte bederen.¹³

Errepublikaren ondoko Pastoralak Erdi Aroko antzeografiaren giro epiko-politikoari eutsi zion, Pastoralaren egitura sinbolikoari bestelako estatu-gintzaz mintza araziz. Azpimarratu behar da, ordea, delako giro epiko-politikoaz azalezkoa zela, testu-egileen irakaspén ez baitzen osoki barneratzen. Audientziak ez omen zuen igorritako mezua sinesten. Gauza berdina erran daiteke gaur eguneko Pastoralak. Aditu batzuen eritziz, Pastoralak abertzaletu dira.¹⁴ Alegia, aurreneko egitura sinboliko-pedagogiko berbera erabilia, azken urteotako Pastoralaren erakaspén euskal heroeek aldarrikatzen dute, datorkeen edo bidean den euskal nazione batekiko atxikimenduak antzeztuz. Agerian dago Pastoralak antzezten dituen bizitzak euskaldundu egin direla. Baina, euskaldundu eta abertzaletu aditzak aditz sinonimoak dira? Areago, zer erran nahi du Pastoralak euskalduntzeak?

Gaur eguneko Pastoralak paradoxa izugarria ispilatzen du: antzeztuaren heroea herri euskaldun xumea delarik, neurri handian Pastoralaren aktoreak frantzimentak dira, euskera galdua baitute. Pastoralaren testu idatziari begiratuz gero, egungo

11. Ikus *Sancho Carcés III el Mayor, rey de Navarra*, Carmen Orcástegui eta Esteban Sarasa, Mintzoa, Iruñea, 1991.

12. Pastoralaren sorrerari buruzko eztabaidaz laburpena María Arene Garamendi Azkorak egin du. Ikus *El teatro popular vasco: semiótica de la representación*, Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urkijo, 1991, 37-46. orrialdeetan.

13. Ikus Eukeni Goyhenetxe, *Historia de Iparralde*, Txertoa, 1985, 105.-106. orrialdeetan.

14. Jean Hantschelhar, "Abertzaletasuna oraiko Pastoraletan", *Eskual Antzertia*, Pierre Bidart eta Txomin Peillen (eds.), Publication de l'Université de pau et des Pays de l'Adour, 1987.

Pastoralek lexiko euskaldunari kasu gehiago ematen diote aurrenekoek baino, hitz frantzes, latino eta okzitano ugari biltzen zituztenek. Halaber, heroea euskalduna edota euskalzalea da, Euskal Herria nozioak kutsu politikoa hartu duelarik. Hala izanda ere, egungo Pastoralaren jokalaria frankok ez daki euskeraz. Beraz, gaitz du zer kantatzen duen ulertzea edo istorioaren haria segitzea. Berdin heroea imitatzea eta haren bizitzaren irakaspena barneratzea. Taulagaineke heroea euskalduna da. Bai, egia da errepresentatua gero eta euskaldunagoa dela. Bai eta ere errepresentantzaileak gero eta erdaldunagoak direla. Protagonista euskalduna edo euskalzalea da. Aktoreak euskaldunak ote diren ez dago garbi. Abertzaleak al dira, ordea?

Egungo Pastoralen antolatzaileek Pastoralaren euskaltasuna indartu nahi izan dute, gaiak aldatuz eta estetika berrinterpretatuz. Xede horretan musika-tresnak, melodiak eta koloreen sinbologiak landu berri dituzte. Antezgrafiaren egitura berbera erabilia ere, indartu egin da Pastoralaren egungo estetikari euskal kutsua, iraganeko Pastoralen aldean behinik behin. Ordea, Pastoral baten partaideek Pastoralean giro abertzale zuzena sentitu dutenean, liskarrak sortu dira herri batetan baino gehiagotan, hainbat jendek Pastoralean partaidea izateko erabakia hartzeraino. Zuberoako politikan abertzaletasuna 'deabrua' ren sinonimotzat jotzen dute askok oraintsu arte, eta Pastoralen barne-munduan ere ohartzen da delako parekotasuna. Beraz, Pastoralaren atxakiaz zenbaitek euskal nazioa zuzenean dramatizatu nahi izan dutenean, delako dramatizazioari beste zenbaitek erresistentzia publikoak agertu dizkiote.

Pastoralaren jenero epiko-politikoak gutxi lagundu du estatu politiko eta subiranoak egiten. Pirinioetako estatu kristau txiki hasberrietan eragin zuzenik izan ote zuen ez dago dokumentatuta. Errepublikari frantzesarekiko harremana anbigua da. Euskal estatu independente bat ekartzeko edo sinbolikoki errepresentatzeko ere balio gutxiokoa da. Ondorioa agerian dago, Pastoralak ez du estatuen politika handia sostenganatu. Bai ordea tokian tokiko politika tipia. Tokiko politika garatzeko balio ederrezkoa izan da Pastoralak. Aldiz, politika handian ibiltzeko ahula izan da –eta da– Pastoralak.

Paradoxikoa da Pastoralak. Antezgrafia berezi baten bitartez jende handien bizitzak kontatu, kantatu eta antzezten dira Pastoralaren bitartean. Halako folk-antzerkiek ikaragarri garrantzidun suertatu dira Europako herrigintza politikoan eta Europatik kanpoko iharduera kolonizatzailean.¹⁵ Pirinioetako

Pastoralak folk-antzerki moeta hau oso tokian tokiko izakera mamitzeko adierazpen kulturala izan da, *xüberotarzüna* adierazteko tresna kultural paregabe bilakatu da-eta. Pastoralak ez du balio izan frantzes izakera politiko-kulturala osoki hedatzeko eta barneratzeko. Ezta euskal izakera nazional bat adierazteko ere. Epikaren betebeharrak naziogintza baldin bada, bistan da Pastoralak ez duela betebeharrak hori bete, ez lehen eta ez orain, nahizta egin-kizunean jende franko saiatu.

III. ZUBEROAKO EPIKAREN EZINA

Frantziak eta Espainiak jakin izan dute nola erants Erdi Aroko kantu eta kontakizun epikoak euren historia nazionalari. Euskal Herrian euskerazko jenero epiko landuagorik ez dago, Pastoralak baino. Zuberoako eredu epikoak, horratio, ez du euskal historia nazionala kolektiboki eraikitzeke eta sinestartzeko gaitasunik erakutsi. Areago, Pastoralak zer den ez da ia ezagutzen Zuberoatik kanpo. Euskarazko literaturaren historialariek Pastoralak euskal teatru zaharra dela ezagutarazi arren, Pastoralaz estudio dokumentatu gutxi egin dute. Bestela esanda, Pastoralari buruz komentario-antzeko izkribu asko argitaratu, eta hainbat topiko etengabe errepikatu eta zabaldu dira. Pastoralari buruzko azterketa sistematikoen faltan, ikerketa historikoaren beharra ageri-agerian dago.

Hegoaldean Euskal Filologia deritzan unibertsitate-gradua dago aspalditik irakaskuntza pribatuan zein publikoan. Euskal Ikasketak izenekoa berriki ezarri dute Iparraldean. Adierazgarria da, haatik, Pastoralak sorturiko interes txikia irakasle eta ikasleen artean, Pastoralaren ikerketan testuen biltze eta hauetariko batzuen edizio-lana besterik ez baita esparru unibertsitarioan aurkitzen, salbuespenak salbu. XX mendearan hasieran ikerlari frantsesek Pastoralaz idatzia askosaz emankorragoa da, gaurko euskal idazleek idatzitakoa baino. Izatez, Pastoralari buruzko oraingo idazketa mende-hasierakoaren errepikatzea edo gaurkotzea izaten da. Jarraipenik izan ez duten bi edo idazlan bakanetan ezik, bide berriak jorratzeko xederik ez da ikusten Pastoralaren estudioan gaur egun.¹⁶

Zergatik ez du Pastoralak interesatzen euskal filologian? Euskal unibertsitateetako filologoen hizkuntzalaritzari, lexikoari eta sintaxiari toki gehiago eman diete, analisi literarioari baino. Pastoralak erderakadaz beterik dago, jozkera ez du aberatsa

15. Arturo Warman, *La danza de moros y cristianos*, Secretaría de Educación Pública, México, 1972. Ikus liburu honetako III kapituluak.

16. Bertsolaritza da Euskal Herriko beste folk-jenero garrantzidun bat. Bertsolaritzari buruzko ikerketa eta idazlan akademikoak ikaragarri ugantu dira azkeneko hogeitun urteotan. Pastoralari buruzkoak, ordea, bakan batzuek dira, idazlerik nabarmenduagoak B. Oyarzábal, M-A. Garañendi Azcorra eta M.-H. Etxepokar izan dira.



Sabino Arana Pastoral Garindaiñe herrian, Pierre Aroçe, lehen pheredüküaren emalea.

eta latinismoak ugariak dira. Hizkuntzaren aldetik bederen, Pastoral ez da oso arrakastatsua suertatzen, euskarari buruzko kontuetan ezaugarri bitxi batzu erakusten baditu ere. Pastoral idatzia izan arren, mailegu gutxi eman dio euskera batuari. Fonetika berezia du zubererak, eta mintzale gutxi. Gero eta mintzale gutxiago. Filologia eta euskal ikasketan zuberera bazterreko aztergaia da. Pastoral are bazterragokoa. Euskal antropologian berdin gertatzen da. Alegia, Pastoralaren azterketarik ez da aurkitzen gaurko euskal antropologian. Pastoralaren kode estetikoak eta etorki literarioak arrotzak direla aurreikusten delako? Pastoral *euskal* literatura dela edota *euskal* teatru erritualizatu zahar dela baieztatzean badirudi baieztapen erretorikoen aurrean gaudela.

Zuberoan baizik, zergaitik ez da arrakastatsua Pastoral? Urteen ekinaren ekinez Pastoralak Zuberoan harreman-sare korapilotsua josia du, bertakoek bertako ihardute politiko, egite ekonomiko eta izakera kulturean nola edo hala helmuga bati edo besteri begira erabiltzen dutena. Soziologoen tzako lana da harreman-sareak aztertzea. Zoritxarrez, soziologia erruralak nekazaritzaren ezaugarri

ekonomikoetara jo du, harreman sozialak eta kulturalak laga eginez. Historialariek hartu dute beren gain halako ikerketa, laborarien mundura etorri direnean. Baina, laborari zuberotarren mundura ez dira oraindik azaldu.¹⁷ Etnografoek bitxikerien bilduman ganora gehiago darakuste, egitura sozialen ulerpenean baino. Eta etxeko etnologoek errito fosilizatu gehiegi aurkitzen dituzte folk-ihardueran. Intelektualen esparrura begiak zuzenduz gero, Pastoralari buruzko gogoeta eskasa dela dager.

Iker-arlo eta ikerbide berriak zabaldu behar dira Pastoralaren miaketan. Xede horri atxekitzeko, soziologoak, historialariak, antropologoak eta filologoak elkarlanean jarri behar dira. Ikerlari-batze zabal horren beharrean, hona datorren liburua apala da, argudio bakarra argitu nahi duena: testutik eta testuak kontaturikotik instant batez urrundu behar da Pastoralaren azterlaria, Pastoralgintzan dauden harreman sozial, politiko, ekonomiko eta kulturetan zer gertatzen den begiratzeko. Azterlariak ohartuko du jaiaren nozioarekin topo egiten duela. Ohartu ere, jaigiro horren inguruan tokiko sare soziokultural eta politikoak publikoki agertzen direla ohartuko du.

Antzezgrafia inportantea da Pastoralen, antzezgrafia dela medio Pastoralari estetika berezia erantsi zaio-eta. Baita ere, Pastoralaren antzezgrafia kode sinboliko-kognitibo beregisakoa kutsatu zaio. Pastoralaren estetika epika erlijiosoan oinarritzen da. Partikularzki, errekonkista, kruzada eta Jabobe-bidearen imajinarioek eman dituzten irudi historiko-kultural jakin batzu oso eraginkorrak dira. Halaber, irakaspene edo helburu pedagogikoa darma, heroearen bizitza imitatzekoa baita. Heroearen saria zeruko erreinua da, bukaerako agerraldi batean antzezten dena, noiz eta heroea hiltzera baitator. Oro har, Pastoralaren estetika antzezgrafikoak irudikapen kristauaren hiru ezaugarri batzen ditu. Lehenengoa, musulmanaren aurkako burrukaldi erdiararra da. Bigarrena, azken epaiketaren irudi biblikoa. Eta hirugarrena, Kristoren imitazionea. Estetika antzezgrafiko hirukoitz horren barruan garai historiko ezberdinen heroeak dabilta, ibili ere.

Ez Kristoren bizitza edo heriotzaren antzeppen epikoak, ez eta Kristo ordezkatzaren duten beste heroe sakratu zein profanoen bizitzaren (edo heriotzaren) antzeppen epikoak, ez ziren jatorriz Hego Europak bultzatutako kruzadetan, errekonkistan edo Jaboke-bidean gorpuztu, nahiz eta ordukoxe imajinarioak Pastoralaren estetika tankeratu. Kristoren bizitza eta heriotzaren irudikapen epikoa IX mendeko mundu saxon eta germanoaren poe-

17. Martine Sistiague-k idatzi berru du Iparraldeko nekazal sindikalismoari buruz liburu bat: *E.L.B., Ipar Euskal Herriko Laborarien Oihartzuna*. Gatuzain, Baiona, 1999.

sian ere antzematen da.¹⁸ Hala izanik ere, Pastoral zuberotarraren abiapuntu estetikoak Erdi Aroko estatu erlijiosoetan du sorrera. Alegia, Nafarroako, Gaztelu Herriko eta Aragoiko erreinuen zabalkunde eta frontieragiroyan. Urteak joan ahala, Gaztelu Herriak bereganatu baitzuen islamaren kontrako hedakuntza, agian frontieragiroyko kontakizun, kanta eta antzeppen epikoak gaztelu-herritartuko ziren. Eta geroxeago espainartu.

Errekonkista historikoki zer edo nolakoxea zen zehaztea ez da nire helburua. Honakoa dut helburu: errekonkistaren eta kruzaden inguruan garaturiko irudigintza Zuberoako folk-antzerkiaren antzezgrafian txertatuta daudela azpimarratzea. Bistan da errekonkistaren irudiek Espainagintzan iharduna dutela, zeren eta mariuen eta kristauen arteko burrukek Espainako nortasun politikoak tinko garatzeko balioa izan baitute. Pastoralak heroe baten bizitza eta heriotza antzesten ditu, turken eta kristauen arteko burrukak direla medio. Nola onartu euskalduntzat Pastoralaren eredu, noiz eta antz-antzeko eredu batek Espainaren jaiotze kognitibo-ideologikoa errepresentatzen duenean? Hauxe da Pastolaren ezina, hain zuzen ere. Bastardoa dela kontsideratzen da Pastoral, bai literaturaren arlotik begiratzen zaionean, bai nortasun politikoak sinboliza ditzan eskatzen zaionean. Zuberoaren kanpotik begiratuta, Pastoral deus gutxi da. Bitxia da, marginala eta jenero osatugabea. Zuberoan bertan, ordea, indar handiko gertakizuna da, tokiko nortasun soziokultural sendo baten adierazlea, inguruetak euskaldun eta erdaldunengandik bereizlea. Bertakoei omena eta duintasun-ekarlea.

Saio honetan proposapen garbia dago: ahantz ditzagun Pastoralaren idazlea, beronek hautatutako gaia eta irakats-projektua. Eman diezaiegun protagonismoa, ordea, Pastoralaren aktorei eta antolatzailei. Hala eginez gero, bestelako errealtate soziokulturalekin topatzen gara. Pastoralaren idazleak eta gaiak estatuen eraikuntzaz mintzatzen dira. *Destino-unitateez*, alegia. Erran nahi baita, egitasmu politiko handiez. Antolatzaileek eta jokalariek herribarneko tirabirez eta inguruetak herrien arteko lehiaz dihardute. Jomuga politikoen batasunik ezaz. Egitasmu politiko txikiez, hots.

Bi aldetan daude kokatuta liburu honetako kapituluak. Lehenbizikoan Pastoralaren egitura modu konparatuan ikasten da, dagokion politikotasuna azalduz. Baita ere, folkloreak eta nazionalismoaren arteko harremanak ikertzen dira, Pastoralari

buruz egun finkatu den irudi euskalduna alegiazkoa dela erakutsi nahiean. Bigarrenetan honakoa ezagutarazi gura da: Pastoralaren egintzan bestagiroya funtsezkoa da. Gaur egunean Pastoralaren gainean zabaldu den eritziaren kontra joanez, Pastoralaren bestagiroyean jendeek beren arteko elkartasuna dramatizatu beharrean, elkarren arteko tirabirak dramatizatzen direla argudiatuko da.

I. ALDEA. GÜDÜKA

Historia epikoaz eta heroe historikoaren ideologiaz

Historia epikoaz

Ez ützeko etsaiari
Gure gaizen gozamina,
Bego Uskal-Herriari
Ibañetaren omena

Aripen zinez handia
Naba hartan agitia;
Hoi gabe Uskal-Herria
Bethikoz beitzen galdia.

Bühürtü ezpalitz ordin
Zer itxesa behar gūnin,
Zeren egūnko egūnin
Uskaldunik etzatekin.

Oroek har dezagūla
Egūn zinezko xedia,
Bihotzez algarrekila
Herriaren salbatzailea.

Ibañeta Pastoral, Junes Casenave Harigile,
Jakin, 1978, 211. orrialdean.

I. SANTIAGO GEHIENA

El hecho de que un Santiago el Mayor hubiera predicado en España favorecía la tendencia a la diferenciación cualitativa y suministraba un elemento apropiado para fijar el sentimiento de nacionalidad tan característico del territorio español que, aunque parezca increíble, es el mismo que inspira a los mejores ingenios españoles de nuestro siglo sus preocupaciones singulares acerca del Ser de España.

Juan Larreak

Errekonkistaren irudi kulturalak zirela medio erraztu zen tributik erregetzaren estatu-nortasunerako iraganbidea. Lehenbiziko erregetza piriniarrak egitasmu politiko globalizatzaileak izan ziren, baina

¹⁸ Ikus *Heliland*, Marcial Pons argitaletxea, Madril, 1996. Baita ere, *Anglo-Saxon poetry: essays in appreciation*, Lewis E. Nicholson eta Dolores Warwick Fresé (editoreak), University of Notre Dame Press, Notre Dame, 1975.



Harispe Pastoralak Muskildu herrian. *Türkak*.

planteamendu erlijioso baztertzailak aplikatu zituzten, zeren *gutar* kristaua tinkatu nahi baitzen *zuetar* musulmanaren porrot militarren bila joanda. Errekonkistak emandako irudi historiko-kulturaletan Santiagorena dugu garrantzia handikoa. *Santiago de Compostela, Patrón de España* entseiuari gogorazi digu Juan Larreak Santiago Galizian ez zela sekular izan.¹⁹ Santiago penintsula iberiarren behin ere ez egon arren, Santiagoren irudiaren inguruan Espaina nozio bat eta espainiar izakera politiko bateratzaile bat sortu ziren. Juan Larreak erakusten duenez, San Juan-en *Apocalipsi* liburua-aren interpretapen sakratu eta politikoki interesatu batetan oinarritzen da Jakobe-bidearen erakuntza historikoa.

Santiagoren hilobia Compostelan kokatu izana inpostura da, asmazio kulturala edo historiaren falzifikazioa. Izan ere, Santiago apostulari egokituriko hilobi compostelarrak, berez, Pristiliano apezpiku herexeari zegokion erliki-kultuoarekin zerikusitu estuagoa bazuen. IV mendean Eliza ofizialak Pristiliano herexetat jo, eta burua moztu arazi zion. Hilda gero ere, Pristilianok jarraitzaile izan zuen, Pristilianoren hilobira hurbiltzen zen otoizlerik. Santiago apostuluak Pristilianoren tokia hartze-prozesuan, X eta XI mendeak erabakiorrak oso suertatu ziren. Arrazoia hau da: X eta XI mendeetan batekin baitziren *Apocalipsi*-aren irakurketa literalak, penintsula iberiarri buruz sortaraziko iruditza

biblikoa, eta errekonkistaren imajinario epikoa. Juan Larreak eritzi, halakoxe bateraketak tanke-eratu du izakera politiko espainarra. Larreak ikuspegi honakoa darraio: espreski fabrikatu eta dramatizaturiko irudi bibliko eta epikoetan jartzen ditu burujabetasun espainiarrak bere oinarri historiko-kulturalak.²⁰

Izaera espainiarraren eginkuntzan denboraldi ezberdinak ikusi ditu Juan Larreak. IV mendean inguruan Penintsulan bizi ziren pertsonen artean inferioritate-sentimentu bat zegoela antzeman du Larreak, batez ere penintsularrek Mediterraneo eta Orienteko populazioen bizimoduari begiratzen zenean. Larreak idatzi duenez, espainiar kontzientziari xamurren sufritzen ziren Penintsulako bizitza kolektiboa behe-beheko mailan zegoela ikus-ten.²¹ VI mendean bestelako giroa aurkitu du Larreak penintsulan. Orduan kristautasuna mundu greko-erromarraren paganismoari nagusitu zitzaion eta horren ondorioz lurraldeak sinbolizatzen berriak agertu ziren. Santu eta martiren erliki aurkituak, edota bidai ebangelikoek, lurralde-identifikazio berriak sortu zituzten. Territorioaren eraikuntza eta definitze berri hartan lurraldearen santifikazioa portunatu zen nortasun-ekarle. Modu horretan lurralde kristautzean *Finis Terrae* baten iru-

19. Juan Larrea, *Poesia* aldizkaria, Medusa argitaletxea, 1978, 125-143 orrialdeetan.

20. Istoria biblikoaren, mitopoetikaren, epikaren eta historiaren arteko harrera Santiago irudiaren erakuntza politiko-kulturalen nolakoa izan den berri zehatza Jacques Chocheyras-ek ematen du bere *Ensayo histórico sobre Santiago de Compostela*, Gedisa argitaletxea, 1989.

21. Juan Larrea, *Ibidem*., 125. orrialdean.

dia indartu zen VII mendean. Gainera, *non plus ultra* hartan Santiago Gehien bat ebangelizatzaile ibilia zelako sinesmena zabaldu zen. Batetik, *Finis Terrae*, bestetik, Santiago Gehienaren lan apostolikoa, eta hirugarrenik, penintsula iberiarra, hirurak elkarrekin identifikatuz, lurralde kristauetan zinu kristauak agertzea eginkizun politiko bilakatu zen. Beraz, *Apocalipsi*-aren irudiak erabili izan ziren izakera politiko eta estatal berriak sinbolizatzeko eta legitimatzeko.

Arestian deskribituriko giro kultural, erlijioso eta kosmogoniko hartan osatu zen Jakobe eritzi zitzaion erromes-bidea. Jakobe-bidearen funtzio politikoaz historialari askok egin dute gogoeta, besteak beste José Luis Barreiro Rivas-ek.²² Historialari honen aburuz, 1000. urtean sortu ziren komunikabide ekonomiko, kultural sozial eta politiko handiekin batera aztertu behar da Jakobe-bidea. Barreiro Rivas-en argudioaren arabera, santutegi txiki eta independente askoren elkartzeko handi bat ekarri zuen Jakobe-bideak. Bestela esanda, jadanik zeuden otoiztegi edo bisitagune erlijiosoak saretu zituen erromes penitenteen mugimendu handi hark. Jakobe-bidea Erdi Aroko espazio politikoa berrantolatatzeko eta integrazteko sistema erabakiorra izan zen, ordura arte espazio politiko erdiarora zeharo puxkatuta baitzegoen. Erdi Aroko Europak 1000. urtean ekin zion ekonomia eta izakera erlijioso-kulturalaren eraikuntzari. Xede horretan, barbaroen eredu sozialak, imperioak erromarturiko herriak, eta musulmanen ondare kulturala, ukoezinezko erreferenteak izan ziren. Eraberean, baziren ondokoxe bi erreferenteak: bata, islamari leporatutako etsaiaren nozioa; eta bestea, mugarekiko irudikazio aberatsa, lirikoa zein epikoa.²³

Lau pilgrim-bide handi bereiztu ditu garai hartan José Luis Barreiro Rivas-ek: Erroma, Jerusalem, Santiago eta Mont-Saint Michel-ekoak. Komunikabide ekonomiko, kultural, sozial eta politikoak ziren erromes-bide haiek. Lau ibilbideak talde-nortasun berriak sortzeko haziak izan ziren, zentralizazio-prozesuak poliki-poliki garatzeko baldintzak ekarriz: eliz-zentralizazioak, lehen; politikoak, gero. Barreiro Rivas-ek dioenez, bide haien helmuga ez zen erromes-tokia frankoen Europari lotzea, alde-rantzizkoa baino. Alegia, frankoen eragin politiko, kultural eta ekonomikoa zabaltzea, jada finkaturiko pilgrim-guneetarako bideak indartuz. Horrela, erromes-bideak Europa berriaren hedakuntza politikoa-aren ardats nagusiak izan ziren. Eta ondorioz, estatu modernoaren hasiera.

22. *La función política de los caminos de peregrinación en la Europa medieval; estudio del Camino de Santiago*, Tecnos argitaletxea, 1997.

23. Erdi Aroko estatugintza europearrak 'muga' nozio berezia sortu zuen. Bai eta mugakide-gizarteak ere bai. Ikus, esate baterako, *Medieval frontier societies*, Robert Bartlett eta Angus Mackay (editoreak) Clarendon Press, Oxford, 1989.

II. HERNÁN CORTÉS

Sinbolo eta irudi erlijiosoen lengoia erabilia, ekintza gerreroak eta eritzi politikoak aurrera eramane ziren, Jakobe-bidegintza zela-eta. Iruditza kristauaren bitartez, musulmanek aurretik agindutako lurraldeak kristauek eskuratu behar ziren arrazoiak sozialki eta kulturalki finkatu ziren. Erlijio-sinbolotegia eta konkista militarren elkarpena zinez emankorra agitu zen Erdi Aroko estatugintzan. Hain zen emankorra non itsasoaz bestaldeko iharduera kolonialetan berriro baitzen erabili. Beronen adibide zuzena Rafael Sánchez Ferlosio-k demaigu *Esas Yndias equivocadas: comentario a la historia* liburuan.²⁴ Liburu horretan Hernán Cortés-en testigantza mexikarrak biltzen dira. Testigantza horiek darakuste Cortés-ek erlijioa agente-tresna gisa nola erabili zuen, bertakotarrak menperatzeko.

Aurkizale-konkistatzaile espainarrek Aurkikuntza estetikoki nola definitu zuten begiratu ondoren, Ferlosio-k dakus *handitasuna* eta *misterio glorioso* nozioak batu zituztela gudari haiek, historiari errealtate-definizio moral eta epiko bat emanaz. Ferlosio-ren argudioaren arabera, *handitasuna* eta *misterio glorioso* batekin historiaren nozio bat abiatu zen. Jaingoikoak idatzitako historia unibertsalaren eraikuntza estetikoki apaintzen zuen nozioa, hain zuzen ere.

Jakobe-bideko iruditegiaren emaitza zen Ameriketako iharduera koloniala sostenganatu zuen historiaren nozio erlijioso-gudatzailea. Ameriketara ezezik, Filipinetara eramane zuten espainarrek historiaren nozio hau. Eta portugaldarrek berdin egin zuten euren India zein Afrikako ardura kolonialetan. Jaiak eta jaigiroko gertakizunak antolatuz ospatzen zituzten bataila-garaitzaileek garaipen militarrek. Eta penintsulan bezala, penintsulaz kanpoko lurralde kristau berrietan ere, erritualizatu ziren besta berezi haiek. Bestagirotako gertakizun haietan, gudu-irabazpenaz gaindi, egindakoaren *handitasuna* ospatzen zuten. Jesta, hots. Jaien antolatzaileek islamaren eta Ameriketako, Indiako eta Afrikako erlijioen aldean kristautasunaren goitia dramatizatu -eta publikoki gogorazi-nahi izan zuten. Penintsulako eredu besta-erritual haiek errepikatu zituzten espainarrek eta portugaldarrek euren ibilera kolonialetan. Orduko jesteren *handitasuna* egungo folklore afrikar, filipiniar, indiar eta ipar-, erta- zein hego-amerikarri erantsia gelditu da egun. Zenbait jai-tankeratan halaxe da, partikularizki mairu edo turken eta kristauen arteko lehiak erritualki antzezten dituzten bestetan. Antzezgrafiari dagokiolarik, gisa berdineko jai errituala da Pastoral.

24. *Destino* argitaletxea, 1994.

III. ANTZEKIZUN ERRITUALEN EGITURA SINBOLIKOAK, HERRI KULTURA ETA BESTEAREN ERREPRESNTAZIO POLITIKO-IDEOLOGIKOAK

Mediterranean zehar finkatu izan diren erri-tualizaioak dira Turken edo Mairuen eta Kristauen arteko bataillak. Zuberoan, Portugalen, Espainian eta Hego Europako herri askotan ezezik, Afrikan ere bai ospatzen dira halako antzerki-bestak. Eta ospakizun teatral eta erritual haietan amankomuneko karakteristika bat aurkitzen dugu: bestearen (geu ez bezalakoaren) irudi diskurtsibo ahaltsu bat klar datorkigula.

Almeriako Mairu eta Gristinoen antzezkizunei buruz Juan Grima Cervantes-ek egindako saikeran honakoa irakurtzen dugu:

En cierto modo, se respiraba [durante los siglos XVI y XVII] por todos lados una atmósfera maurofóbica y de exaltación del catolicismo. Ante las tropelías de los musulmanes se necesitaba una alta motivación para querer vivir en estas tierras. Por tanto, en ciertas festividades anuales (Santiago, El Corpus, San Roque, San Sebastián, fiestas de aniversarios bélicos, etc.) las autoridades tanto civiles como eclesiásticas van a propiciar, no sólo los torneos tradicionales, sino la representación de funciones religiosas, comedias, autos sacramentales, etc. En este contexto es en el que surgirán las primeras funciones de Moros y Cristianos, como escenificación mixta, en la que se mezcla el torneo, la comedia, el drama y el auto.²⁵

Alderdi geografikoak eta kulturalak zein eta nolakoak izan diren, Mairu edo Turken eta Kristauen arteko sasi-gudukak eta dantzak tankera eta estetika ezberdinez finkatu eta standarizatu izan dira denboran zehar.²⁶ Hasieran, estatu eta erlijio kristauaren nagusigoa eta ahalmena, islamdarren gainetik elebratzea eta erakustea, ziren helburu nabariak. Helburuak, beraz, diskurtsiboak ziren: bestea eta bestearena ahul, barregarri, menpeko

agertaraztea; gu eta gutarrak, ordea, jakintsu, indartsu eta beharrezko agintari bihurtuta publikoki hedatzea.²⁷ Nabar-nabarmenez, aginte eta legitimazio-egitura sinbolikoez baliatzen ziren antzezkizun haiek. Ondorioz, beraien estudioan funtsezko kontzeptu eta irudi plastikoak azaltzen zaizkigu. Areago, kontzeptu eta irudi plastiko horiek direla medio, ideologia erlijiosoak eta politikoak burutu izan dira, testuinguru historiko bakoitzaren arabera.²⁸

Denborak joan denborak etorri, hala Pastoralak nola Pastoralen antzeko antzezkizunek, *egitura sinboliko bat-bera* mantendu dutela erran daiteke. Horrela, mementuan mementuko, eta tokian tokiko, ideologiak nahiz errealitate politikoen definizioak (edo definizio-nahiak) jendeaurreratzeko gauza izan dira. Alegia, ikusgarri, entzungarri eta sentigarri egin dituzte gisa ezberdineko ikuskera politikoa.

Egun ospakizun-suerte horietan aldaera esanguratsuak jazo dira. Adibidez, istorio edo narratiba erri-tualaren protagonistek egitura sinbolikoaren jartokiak elkartrukatu dituzte. Hau da, musulmanak 'onak' dira orain, artean kristauak 'txarrak' direlarik. Honetaz, 'bestea'ren aurrean nagusigoa daramusen irudiz antzeztean, ganbio formal erradikala suertatu da, nahiz eta erranahia, edo mezua, sortarazten duen egitura sinbolikoa bera izan. Hots, 'bestea'ren konkista militarren jatorrasuna eta derrigortasuna egiaztatzen eta legitimatzen dituen egitura sinbolikoak bete-betean dirau joko teatral-erritualean. Baina, 'gutarra' eta 'bestea' errerepresentatzera datozen talde sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak ganbiatu dira.

Ondorioz, folk-teatruaren ikerketarako planteamendu teoriko bati atxekitezkotan, antropologia estrukturalaren eta sinbolikoaren ekarpenak, besterik gabe, ezagutzea edo maileguz erabiltzea ez da nahikoa. Gogora dezagun ezen, antropologia estrukturalaren printzipioaren arabera, bitako oposaketaren joko unibertsalaren emaitza dela erre-alitya. Antropologia sinbolikoak esangurak ezagutzea du helburu. Horretarako, erritualen barneko

25. Juan Grima Cervantes, *La Fiesta de Moros y Cristianos en la Villa de Carboneras*, Instituto de Estudios Almerienses, Almería, 1993, XXI. orrialdean.

26. Adibide gisa, honako idazlanak kontsulta daitezke: *Teatro popular en Andalucía*, Demófilo, Revista de cultura tradicional de Andalucía, Fundación Machado, Sevilla, 1966; *Teatro popular europeo*, Oihenart, Cuadernos de lengua y literatura, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999; *Teatro popular portugués*, hiru liburuki, J. Leite de Vasconcelos, Ed. Acta Universitatis Conimbricensis, Coimbra, 1974, 1976, 1979; *Early colonial religious drama in Mexico: from Tzompantli to Golgotha*, M. E. Ravicz, Catholic University of American Press, Washington, 1970; *Mexican moriscas: a problem in dance acculturation*, G. Kurath, Journal of American Folklore 62. zenbakia, 1949; *L'Opera dei Pupi*, Antonio Pascualino, Sellerio Editore, Palermo, 1977.

27. Ikus M^o Soledad Carrasco Urgoiti, *El moro retador y el moro amigo (estudios sobre fiestas y comedias de moros y cristianos)*, Universidad de Granada, 1996.

28. Kontestu kolonial moderno orokorrean "Ekialdea"ri buruzko diskurtso eta erre-presentazio europearren sasi-asmaketaz, eta erre-presentazioaren beraren eduki politiko-ideologikoa, Edward W. Said palestinarrek ihardun du *Orientalism* liburuan (Penguin, 1978). Beste esenplu bat Stuart B. Schwartz-ek dakar (ikus *Implicit understandings: observing, reporting and reflecting on the encounters between Europeans and Other Peoples in the early modern era*, Cambridge University Press, 1994). Eraberean, Euskal Herriko testuinguruan euskaldun "bestea" irudikatzearen lege diskurtsiboak ikus ditzakegu Joxe Azurmediren *Espainolak eta Euskaldunak* saioan (Elkar, 1992). Espainaren kontzeptuaren beraren sorkuntzan, ikus Francisco Abad-en *Literatura e Historia de las Mentalidades*, Cátedra, 1987.

kode komunikatiboak zein diren azaldu behar ditu. Pastoraletan opozioen jokoa garbia da. Baita ere, Pastoralek badute barneko kode komunikatibo berezia. Hala ere, Pastoralaren inguruan badaude errealtate politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, historian zehar aldakorrek izan direnak. Arestiko errealtateek Pastoraletan izandako eragina ezagutzeko, historiaren politika soziologikora jo behar dugu. Aurreneko argudioa onartuz gero, bi ikergai agertzen dira. Batean antzeppen erritualaren historia sozialki ikertu behar dugu. Bestean erritualak berak hedatzen dituen 'historia', 'gizarte' eta 'kultura' nozioak aztertu behar ditugu. Hala eginez, datorren galderari erantzuteko gai ginateke: norainoko ahalmena dauka erritualak- kreaturiko(h)istori(o)ak erritualetik kanpo suertatzen den prozesu historikoan eragile izateko?

Arturo Warman antropologo mexikarrak egindako estudioari begiratuta hobeto jabetzen gara proposaturiko ikergaiaren zabalera. Geografikoki eta historikoki aldendutako Mairu eta Girstinoen arteko -jaigiroko- bataila erritualak miatu ondoren, ospakizunon sistema sinbolikoaren manipulazioa gertatu izan dela konkluitu du azterlari honek.²⁹ Ikus dezagun zertan datzan, edo nondik datorren, Warman-ek konkluitua.

Ikerlari honen lanari jarrai, zera aurkitzen dugu. Lehenengoz, Espainiar Erdi Aroko besta haiek gizarte-talde dinamikoaren eta indartsuen eskutan zeudela; gizarte-talde dinamikoago haiek ekonomikoki finantziatu, politikoki eta kulturalki antolatu, eta sozialki gidatzen zituzten guda-bestak, helburu nabaria zutelarik. Helburu zuten, bateko, estatu kristauaren etorrera berria legitimatzea, eta beste-ko, estatu berorren hedakuntza bortitza finkatzea. Bestela esanda, Erdi Aroko estatu kristauen hedakuntza politikoa ospatzen zuten erritualak ziren Mairu eta Kristuen arteko gudak errepresentatzen zituzten antzezkizunak.

Bigarrenez, jai haiek Ameriketara eraman zituzten espainiar konkistatzaileek. A. Warman-ek dioenez, militarri lortutako nagusigoa ospatzeko gertakizun erritual inportante eta handi bezalakatu ziren besta haiek Mundu Berrian. Mundu Zaharrean, aitzitik, bertan behera etorri ziren. Hau da, hiritar ahaltsuek utzi zioten halako jaiak Europan antolatzeari. Hala ere, baserritarrek eta bestelako gizarte-bazterreko talde batzuk jarraitu zuten festa haiek antolatzen.

Hirugarrenez, egungo Amerika Latinoan errepresentatzen diren Mairu eta Girstinoen arteko guduketara eta dantzetara zuzendu ditu bere begiak Arturo Warman-ek, honakoa aurkituz: hasierako egitura eta esanpide sinbolikoek iraun izan badute ere, hasierako eduki zaharrak esanguratsuki aldatu dira. Konkistadoreek haraino eraman zituzten errepresentazioetan Mairuen etzenatokia bertako jendeei, indioei eman zitzairen, girstinoena espainiarrek beren gain hartu zuten bitartean. Oraingo istorioetan bertako populazioa da heroe. Espainiarrak, aldiz, galtzaile, barregarri eta menpeko bihurtuta agertzen dira. Honetaz, estatu espainiar kristauak egituratu izan zuen ospakizun hura modu askotara mamituta ikusi ahal dugu. Jakina, iraganaldiko zein orainaldiko antolatzaileek ondu dituzte euren bestak tokian tokiko beharretara, baldintzetara eta estetikara zein imajinaziora begira.

Hego Ameriketara ezezik, Iberia penintsulan ere funtsezko gantziak suertatu dira besta erritual honetako jokotokietan, jantzietan eta gaietan. Esate baterako, Espainiako gerla zibilaren ondoren, Almeria aldeko herri batzutan Mairu eta Girstino jaien antolatzaileek Francisco Franco jeneralisimoaren soldaduak eta jeneralak zituzten jokalaririk ginstino³⁰ Egungo Zuberoako antzezkizun anitzetan euskaldunak suertatzen dira irabazle kanpoko etsai baten kontrako gerletan. Hara non, Napoleon Bonaparteri kristau-heroearen tokia ematen zitzaion lehen. Hona hemen, egungo Pastoraletan Napoleon pertsonaia agertzen denean *türk* da. Aipaturiko enpleu araberako folk-teatruek badute beren artean amankomuneko ezaugarri bat: mementu historiko jakinetan istorioak kontatzeko uneak eta guneak dira, bertan kontaturiko istorioak Historiari buruzko bertsio 'historikoak' (ofizialak edo hegemonikoak) nahiz bestelakoak direlarik.

NAZIOEZ ETA FOLKLOREAZ

I. SARRERA

Pastoralek irudi historiko-politikoak antzeppen dituzte. Ondorioz, Pastoralaren ikerketak folklorea eta politikaren arteko harremana nolakoxea den aztertzeke deia dakar, partikularzki, folklorea eta nazionalismoaren arteko harremana. Kapitulu honetako xedea folklorea eta nazionalismoaren arteko lokarriaz gogoeta egitea da. Horretarako, folklorea eta nazionalismoari buruzko ideia batzu laburbiltzen dira datozen lerrootan.

29. Ikus Arturo Warman, *La Danza de Moros y Cristianos*, Secretaría de Educación Pública, México, 1972.

30. Juan Gñma Cervantes Irakasleak elkarrekiko berbaldean emandako informazioa.



Sabino Arana Pastora-
la Garindaiñe herrian.
Ate-ohialen koloreak:
urdina, zuria eta gorria.

II. FOLKLOREAREN DEFINIZIOAZ ETA AZTERKETAZ

Etnologia, etnografia, antropologia soziala, antropologia kulturala, eta folklorea hitzak maiz aipatzen dira herri kulturaren ikerketan. Sinonimoak ote dira eleok? Galdera honi erantzuna ematekoan, Julio Alvar azterlariak³¹ idatzitako liburua zabaltzen dut. Ikerlari honek bi definizio-talde bereiztu ditu. Batean, *Diccionario de la Lengua Española* hiztegiak azaltzen dituen definizioak kokatzen ditu. Bestean, azterlari soziokulturalek beren ikerketen ondorioz ekarri dituztenak. Real Academia Española delakoaren hiztegian honako definizioak ematen dira:

Antropología: (Del gr. *ánthros*, hombre, y *lógos*, discurso). f. Ciencia que trata del hombre, física y moralmente considerado.

Etnografía: (Del gr. *éthnos*, pueblo, raza, y *gráphein*, describir). f. Ciencia que tiene por objeto el estudio y descripción de las razas o pueblos.

Etnología: (Del gr. *éthnos*, pueblo, raza, y *lógos*, tratado). f. Ciencia que estudia las razas y los pueblos en todos sus aspectos y relaciones.

Folklore: (Voz inglesa). m. Conjunto de tradiciones, creencias y costumbres de las clases populares.³²

31. *Etnología (Método y Práctica)*, Guara Editorial, Zaragoza, 1981.

32. Alval jaunak 1956. urteko edizioa (hamazortzigarrena, alegia) erabili du bere idazlanean. Nik neuk, ordea, 1970.ekoa (hemeretzigarrena, hots) begiratu eta aldaketarik badago, batez ere grekerazko hitzen transkripzioan, eta *folklore* hitzaren definizioan, 1970.eko edizioko folkore definizioan Alval-ek berri eman ez duen bigarren eraskin bat dago: *“//2. Ciencia que estudia estas materias”*.

Unibertsitatetik datozen azterlariak xehetasun gehiago agertzen dute hitz hauen definizioan. *Enciclopedia de las Ciencias Sociales* liburukiak ireki, Alvar-en liburua irakurtzen jarraitu, edo antropologiari buruzko liburu-sarrera bat hartu, eta berehala nabarmentzen da antropologia, folklore, etnografia eta etnologia iker-esparru bakoitzaren barruan jokaera ezberdinak daudela. Mundu akademiko anglosaxonean, esate baterako, antropologia hitzak esangura zabala du. Gizon-emazte buruzko ezaguera orokorraz diharduen diziplina da. Horrek erran nahi du antropologia fisikoa, arkeologia, etnologia, etnografia, antropologia soziala, antropologia kulturala, prehistoria, antropologia biologikoa eta abarreko deiturak antropologia diziplina orokor horren azpi-arloak direla. Mundu anglosaxonean, beraz, antropologia zientzia orokorra da, hitz nagusiz izkribatzen dena: Antropologia.

Jokaera anglosaxon horretan, orduan, etnologia Antropologia deritzan ezagutzaren adarra da. Eta etnologiak etniak eta arrazak deskribi eta sailkatzen ditu. Kontinente europearrean hitzen usadio akademikoa diferentea da. Kontinente europearreko ikerlariak, batez ere frantsesez eta alemanieraz mintzatzen direnek, ez dute normalean antropologia hitza erabiltzen, etnologia baizik. Gainera, Erta European antropologia hitza erabiltzean antropologia fisikoaren arloa izendatu ohi da. Bistan da nahasmen kontzeptuala sortzen dela herrien artean komunztadura ez egotean, Alegia, Erta Europako etnologia hitzak biltzen du anglosaxonek antropologiari erantsitako erranahi orokorra, kontinentetik at etnologia hitzaren esangura askozaz murriztutua delarik.

Etnografia hitzaren erranahiaz adostasuna dago, zeren eta jokaera akademiko guztiek esangura berbera ematen baitiote hitz horri. Azterlariak oro akort dira etnografia deskripzio soila dela. Etnografia herri, jendarte edo kultur batetako bereizgarri ekonomiko, politiko, erlijioso, ekologiko, teknologiko eta abarreko bilketa zehatza da. Baita ere, bilketaren aurkezpena, berau idatzizkoa, entzutezkoa edota ikustezkoa izanik.

Folklore hitza dator azkenik. Antropologiak eta etnologiak idazkuntzagabeko herriak eta kulturak ikertu dituzte normalean. Beraz, Europatik kanpo bizi diren herri primitiboak aztertu dituzte antropologoek eta etnologoek. Folkloristek, ordea, Europako nekazarien edo emigrante europearren kultura ikertu dute. Alegia, herri eta kultura alfabetuak ditu folkloreak ikergai. Bi arlotan ari izan da folklorea. Batean, berba inpresoa erabiltzeke belaunaldiz belaunaldi ezagutzak eta portaerak gizarte eta kultura baten barruan nola iragazten diren ikertu dute folkloristek. Bestean, folkloristek hizkuntza estatala edo ofiziala mintzatzen ez diren jendeek gizaldiz gizaldi nola iragazten dituzten euren ohiturak, tradizioak, arteak eta antzekoak ikertu dituzte.

Denboran zehar aldiari aldiko moda intelektualen arabera aldatu da folkloreaken ikerketa. XIX mendearen bukaeran eta XX mendearen hasieran jenero-sailkapenak osatzea eta kultur-iraupenak aurkitzea ihardunbide garrantzitsuak ziren folkloreaken ikerketan. Orain inportantzia gutxi ematen zaio sailkapenak egiteari. Hau da, dantza, kantu, kontaera, epika, bustingintza eta halako kategoria itxietan herri edo kultur batetako iharduerak kokatzeari. Halaber, egun inportantzia gutxi ematen zaio folk-agerpenetan iragan primitibo, pagano edo kristoaurrekoaren itzalik badagoen erakusteari. Gaur bestelako bideak jorratzen ditu folkloristak.

Adibidez, William P. Murphy-k³³ folkloreaken ikerketaz ihardun du, batez ere ahozko folk-agerpenez, halako ikerketan gehien erabilitako azterbideak eztabaidatuz. Folklore-ikerketaren hasieran adierazpide historiko-geografikoa dagoela dio Murphy-k. Adierazpide honetako folkloristek honako azterlanari ekin diote: folk-elementu bat-beraren aldaera geografiko eta morfologikoak bildu ondoren, jatorrizko, lehen-lehenengoa zein zen osatzeari edo aurkitzeari. Folk-elementuen identifikapen eta sailkapenari inportantzia gehiago eman zitzaion, interpretapen edo esangurari baino, adierazpide hau aukeratzean.

Folk-elementuen erranahia igarri nahian adierazpiderik bada folkloreaken ikerketan. Besteak

beste, honakoak aipatu ditu Murphy-k: naturaren alegoria deritzan adierazpidea; mito-erritoa izendaturikoa; psikoanalisetik abiatzen dena; Lévi-Strauss-en estrukturalismoa aplikatzen duena; eta marxismo ortodoxoaren ikuspegia. Murphy-k dienez, arestiko adierazpideak ez dira oso fidagarriak, zeren eta ikerlariaren beraren aurreiritzi kulturetan oinarritzen baitira, tokian tokiko jokalarri sozialen kultur-adierazpenetan oinarritu beharrean.

Testu ahozkoak edo mitologikoak interpretatzekoan naturaren alegoria aukeratzean, folkloristak badu abiapuntu jakin bat: testu ahozkoen eta mitologikoaren esangura behinolako gizarte natural batek osatzen zuen. Izadizko gizarte hori dagoeneko desagertu denez gero, testu ahozko-mitologikoaren esangura ere desagertu da oraingo narratzaile edo poeten kontzientziatik. Galduta da esanahia, hots. Ikerlariaren betebeharra, orduan, galdutako erranahiaren bila joatea da. Alegia, desagerturiko naturaren gizartea nolakoa izanen ote zen espekulatu, eta bertango bizimodu naturalean signifikazioa zein zen zehaztu behar du folkloristak.

Mito-erritoaren interpretabidea erabiltzean, folkloristak aurreritza badu. Erritoei istorio bana dagokie. Eta alderantziz: mito bakoitzak bere erre-presentazio dramatiko du. Darraikionez, mito bati esangura garbi ikusten ez zaionean arrazoi zuzena dago: mitoaren osagai den erritokoak ez du gizarte horretan iraun. Osterakoa ere suertatzen da. Hau da, erritokoak dirau, dagokion mitoa ahaztua delarik ere. Falta den konplementua aurkitzea da folkloristaren betebeharra, zeren eta osagarria aurkitu bezain pronto argitzen baita mitoaren edo erritokoaren erranahia. Beraz, testu ahozko-mitologikoaren esangura eskuratzekotan, galdutako erritokizunaren txerka abiatu behar da azterlaria.

Eredu psikoanalistak aplikatuz gero, folkloristak ulertzen du testu ahozko-mitologikoak jendetalde kultural baten inkontzientearen proiektzio edo hedapenak direla. Kasu horretan irudi eta heroe arketipikoak analizatzea da azterlariaren betebeharra. Lévi-Strauss-en mitoaren teoria erabiliz gero, ikerlariak endelegatu du testu ahozkoen eta mitologikoaren egiturari gai bereizgarriak daudela, logika kognitibo batek sortaraziko transformazio-sekuentziaren azken efektuak direnak. Zehatzago esanda: kultura guztietako ahozko prozesu kreatibo-artistikoetan naturaren eta kulturaren arteko oposizioak eta arartekoak antzeman daitezke. Ikuspegi estrukturalista hartzean, testu ahozko-mitologikoaren istorioetan naturaren eta kulturaren arteko oposizioa nola gauzatzen den da folkloristaren betebeharra.

Marxismo ortodoxo edo *arruntaren* adierazpidea erabili dute folklorista batzuk. Adierazpide horrek badu abiapuntu garbia: hots, testu ahozko-

33. "Oral Literature", *Annual Review Anthropology*, 1978, 7:113-136.

mitologikoak talde sozial nagusien tresna ideologikoak dira. Horrela, testu ahozko-mitologikoez gizar-te-kontzientzia faltsuak zabaltzen dituzte. Erran nahi baita, testu ahozko-mitologikoez legitimatzen dute klase sozial menderatzaileen presentzia. Ikuspegi horrek aurreritzen du folklorea herriaren *opium*-a dela. Ondorioz, herri kultura gizarte-harremman esplotatiboak ezkututzen dituen kontzientzia faltsu bat dela erakustea da folkloristaren betebeharra, azterbide hori aukeratuz gero.

Arestian esandakoetarik landa, bestelako adierazpiderik badago. Esate baterako, tokian tokiko ihardueran jasotako interpretazioak eta ikuspegiak badaude. B. Malinowski eta F. Boas aintzindari ziren halako ikerketa-moetan. Arestiko antropologoak hasitako bideak jarraiki, natiboen ikuspegira heltzen da azterlaria. Halakoan, folklorea eduki soziologikoa zein folk-elementuen historia lokala ikastea gako zaio ikerlariari. Dena den, erreferente soziologikoak eta historikoak berandu samar etorri zaizkio Europako folklorea-ikerketari, ez baitira ia 1970. urteen hamarkada heldu arte ikusten. Eraberean, urte hamarkada horretan beste azterbide garrantzidun bat arrakastatu zen: folklorea tesna komunikatiboa dela zioen azterbidea, alegia. Folk-jeneroak eta folk-agerpenak komunikazio-tresnak diren neurrian, helmuga bati atxekitako estrategia zehatzak bideratzen dituzte. Xede horretan kode bereziak erabili beharreko dira. Azken urteotan bestelako jokaerak garatu dira folklorea ikasketan. Besteak beste, folklorea performantza dela azpimarratu duena dago.³⁴ Performantzaren teoriaren arabera, folk-agerpenak balio eta kode estetiko-kulturalen antzeppen publikoak dira.³⁵ Ikuspegi honetan oinarrituriko folklorista berriagoek errepresentazioaren teoria sozialari begira egiten dute beren ikerketa.³⁶

III. NAZIONALISMOAZ

Nazionalismoa da atal honetako mintzagaia. Hitz honen esangura zehaztea nahiko konplikatu-

xa da. Antropologia eta folklorea berbak aztertu ditugunean, etimologiek ezer gutxi laguntzen dute la ikusi genuen. Berdin-berdin gertatzen da nazionalismoa hitzari hurbiltzean. Badirudi berben erabilerak eta garapenak anitzez adierazgarriagoak direla etimologiak baino. Historian zehar testuinguru sozio-ekonomiko eta politikoak zein eta nolakoak izan diren, nazionalismoaren esangura aldakorra da. Nazionalismoa nozioa estatua eta nazioa nozioekin batera garatu denez,³⁷ bi erreferenteok kontutan hartzekoak dira nazionalismoaren erranahia aztertzean. J-R Suratteauk dioenez,³⁸ nazionalismoaren esanguraren garapenean lehen-lehenik nazio-aberriaren formulazioa dago, enpirikoa, arrazionala eta kontraktuala dena, hein handian Frantziar Iraultzaren ondoren ideologizatu zena. Bigarrenez, natural-popularren identifikazioa dago, teorikoa, idealista eta mistikoa dena, batez ere Alemanian filosofatu izana.³⁹

XVIII mendearen bukaeran eta XIX mendearen barruan gorpuztu zen nazionalismoaren nozioa, bi elementu batuz. Bata, gizarteko edo jendarteko zentzazio, zirrara edo emozio bati dagokio. Bestea, idealizazio edo kontzeptualizazio-lantze prozesu bati. Estatua zer den adierazteko XIV, XV eta XVI mendeetara joan beharra dago. Prozesu ekonomiko identifikagarri erantsita erakitzen da estatua, batez ere merkantilismoari eta fisiokraten ikuspegi ekonomikoei. Halako prozesuan instituzio politiko berriak agertu eta aurretik zeudenei nagusitu zitzaizkien, estatua nozio abstraktua fisikoki gorpuztuz. Beraz, familia, etxea, herria, hermandadea, monastegia, eskualdea, hiria eta abarreko tokiko harremman-sareen gainean estatua izeneko instituzio-kopuru berri bat jarri zen. Prozesu hartan hiru mementu edo erreferentzi puntu erabakior ikusten dira. Lehenengoa, XVII mendeko Ingalaterra, non gorpuztu baitzen egituraketa modernoa. Bigarrena, Frantziako Iraultza Burgesa da. Eta hirugarrena, nazio amerikarra osatu zeneko burujabetasunaren aldeko gerala.

Estatuaren nozioak oinarri politiko-ekonomiko landuak auresuposatzen ditu. Ondorio gisa honakoa dator: lur-mugak, jende talde iratxekitako subiranotasun-ideiak eta agente juridikoak besteak beste, kausitzea. Nazioaren kontzeptualizazioa, ordea, natural, gordin edo jatoritasunaren zentzazio baten inguruan osatzen da. *A priori* akordio edo itun sozial zabal batetan oinarritzen da estatuaaren filosofia politikoa. Estatuaren teoria liberalaren arabe-

34. Gai honi sarrera orokorra Marvin Carlson-en "The performance of culture: anthropological and ethnographic approaches" liburu-kapituluan dago. Hauxe da liburua: Marvin Carlson, *Performance: a critical introduction*, Routledge, Londres, 1996.

35. Carmen Larrañagak bertsolaritza ikertu du delako ikuspegia hartuz. Ikus "Teatralidad y poética alternativas: el bertsolarismo y las mujeres", Carmen Larrañaga, *Breve historia feminista de la literatura española*, Iris Zavala (coordinador general), Anthropos, Barcelona, 2000.

36. Gaur eguneko folklorea ikerketak zertan diren xehetasun handiagoz jakin nahi duenak ikus bitza: *Folklore and Folklife: An Introduction*, R.M. Dorson (biltzailea), The University of Chicago Press, 1972; "Frontiers, Settlements, and Development in Folklore Studies, 1972-1985", J.E. Limón eta M.J. Young, *Annual Review Anthropology*, 1986, 15:437-460; "Poetics and Performance as Critical Perspectives on Language and Social Life", R. Bauman eta C.L. Briggs, *Annual Review Anthropology*, 1990, 19:50-88.

37. Ikus *La Idea Nacional: de la opresión a la liberación de los pueblos*, Jean-René Suratteau, Cuadernos para el Diálogo, 1975; *Contra el Estado-Nación: en torno al hecho y a la cuestión nacional*, Gurutz Jáuregui Bereciartu, Siglo XXI, 1986.

38. Arestixean aipatunko idazlanean.

39. *Ibidem.*, 15-16. orrialdeetan.

ra, estatuaren logika estatukideen artean dauden edota sortzen diren asimetriei, estratifikazioei eta desberdintatei aurre egitean datza.⁴⁰ Nazioaren logika, aitzitik, horizontalitate-irudikapen batetan datza. Bestela esanda, kideen arteko berdintasunean. Zentzu horretan, herria eta herrikoiaeren sinonimo bezalakak izan da nazioa.

Estatuak, beraz, espazioan arbitrario, modernoki errepresentatzeko instituzio politiko-juridiko zehatzak dira, iharduera ekonomiko jakinekin batera garatu direnak. Nazioak, ostera, espazioan naturalki errepresentaturiko jendarteak dira. Alegia, kontzeptualizazio ideologiko-kultural baten emaitzak. Estatuagintzan *a priori* bat dago: gizabanakoen eta gizarte taldeen artean tankera askotako mugak daude, integratu behar direnak instituzio-kopuru bat-beraren barruan. Nazioagintzan beste *a priori* bat dago, nazioak jadanik barne-integratuta daude, kideek orok izakera bat-bera konpartitzen dute-eta.

Frantziako Iraultza eragile izanik, XIX mendean aparteko gertakizuna suertatu zen: bateko, estatuaren erakuntza instituzional, enpiriko eta ezberdintzailea, eta besteko, nazioaren kontzeptualizazio berdintzailea, biak elkartu ziren prozesu kontzeptual eta politiko berri batetan, estatu-nazioagintzari hasiera emanez. Frantziaren eredu politiko baterako horrek ondorengo praktikoa bat ekarri zuen: lurralde guztiaren instituzio politiko eta juridikoen birmoldatze eta elkarlotzea. Horretarako, zentralizazio-prozesu gogor bati ekin zitzaion, errealtate berriarentzako jende-nortasun berriak sortuz, hala nola *le citoyen*. Eraberean, nazio-uniformizazioarako proiektua ibilarazi zen. Alegia, estatu berriaren nazioagintza.

Estatu barneko instituzioen eta identitate sozio-kulturalaren uniformizazio edo berdintze-egitasmo politiko-kultural bizkor horrek bestelako efektu politiko kulturalak ekarri zituen, ekarri ere: estatuaren nazioagintza elkarlotzaile eta kultur-berdintzailea iharduera erasotzailetzat jo zuten hainbategi. Alegia, erresistentziazko mugimenduak agertu ziren, hala nola nazionalismo periferikoak, zeinek estatuagintzaren lengoia eskuratu baitzuten beren egitasmo politikoaren defentsarako.⁴¹ Zentzu honetan, nazionalismoa nozioak bi prozesuz dihar-

du: XIX mendeko estatuaren arbitrariotasuna naziotu edo natural egitearen prozesuaz; eta XX mendean nola edo hala naziotzat definituriko populua bizi direneko lurraldeetan estatu-erakitzearen prozesuaz edo asmoaz.

IV. FOLKLOREA ETA NAZIONALISMOA

Folklorearen eta nazionalismoaren arteko harremanez galdetuz, ekoizpen kulturalaren eta politikaren arteko harremanaz itauntzen dugu. Bion artekotasunaz gogoeta egin aurretik nozio batzuei finkatu behar dira. Aurreneko ataletan zenbait nozio arakatu ditugu sarrera gisa: antropologia, etnologia, folklorea, nazioa, estatu eta estatu-nazioa nozioak, hain zuzen ere. Oraingo ataletan nazioek, estatuak eta estatu-nazioek errepresentazio kulturalekin zer nolako elkarpenak dituzten aztertu behar dugu laburki.

XIX mendean bukaeran eta XX mendean hasieran zehar bi jarrera daude, biak ongi tinkatuta. Alde batean ikusten dugu folkloreak eta etnologiak nazioaren nozio beregisa baten inguruan zihardutela: alegia, herria, arraza eta kultura elkarren sinonimoak zirelakoan lanegiten zuten lehenbiziko etnologoek. Nazioaren kontzeptu haren arabera, jende-talde baten antolamendu sozialaren eta kulturaren arteko harremana naturala da. Hots, genetikoa edo fisiko-biologikoa. Beste aldean antropologia soziokulturala dugu. Aldi hartako antropologiak jende zibilizatuak eta jende primitiboak elkarrengandik bereizten zituen. Jende zibilizatuak estatuak zituzten, pertsonen arteko gorabeherak politikoki antolatzen. Jende primitiboak, aldiz, estatuak zuten. Garai hartako antropologo sozialek estatuak ez ziren jende zibilizatuak erantzuteko lanean jarri ziren, gizartearen antolamenduak nolakoak ziren jakin nahian.⁴² Orduko antropologo kulturek, ordea, kultur-iharduerak zituzten ikergai, lengoaien ezagutza sinboliko-komunikatiboak zientzia sozialetara ekarri.⁴³

Antropologo sozialen eta kulturalen artean hartu-eman gutxi eman zirenez, kulturagintzaren eta gizartegintzaren artekotasunaz gogoeta gutxi egin zen, agian orduko ikerlari sozial eta kultural haiek etnia nozioan oinarritzen baitzituzten euren azterketak. Gainera, etniak alde aurretik izadiak emandako talde-sozialak zirelako ustean iharduten zuten antropologo haiek. Gizartegintzaren eta kulturagin-

40. Ikuskerak hau estatuaren teoria liberalak ekarri du. Delako ikuspegiak errekonozitzen du asimetriak, estratifikazioak eta ezberdintasunak badaudela estatukideen artean. Hala ere, estatuaren funtzioa positibo da teoria liberalaren ikuspegiaren. Teoria marxistak, berriz, bestelako argudioa ekarri du: klase sozial jakin baten indarkeria bideratzeko instituzio-kopurua da estatuak. Hala eta guztiz ere, badago bi kasutan amankomuneko abiapuntu bat: estatuak instituzioen bereizte- eta lantze-prozesua dakar.

41. Etabaia borobilduago eta zehatzuago baterako, ikus Gurutz Jauregi Bereciartu, op. cit.

42. Ikus M. Fortes eta E.E. Evans-Pritchard (editoreak) *African political systems*, OUP, Londres, 1940.

43. Ikus D.G. (editorea) *Selected writings of Edward Sapir*, Berkeley, University of California Press, 1949.

tzaren artekotasunaz gogoeta beranduago piztu zen: antropologoen etnia nozio biologikoa baztertu, eta etnizatearena berenganatu zutenean, alegia. Beraz, jende-taldeak prozesu kulturalen ondorengoak ba ote ziren eztabaidatzen hastean portunatu zen ikerketaren norabide-ganbioa. Hau da, etniatik -etnia kategoria enpiriko, alde aurretik emanda, eta naturala dela ulertzetik- etnizatera -talde sozialak prozesu soziokultural eta historikoetan tanke-ratzen direla ulertzer- iragan zenean. Etniatik etnizaterako bidean politikaren eta kulturaren artekotasuna dager zientzia sozialen eztabaidara. Hots, biologiatik prozesu etnikorakoan, prozesua hitzak protagonismoa hartzen du, erran nahi baita, egin-tza soziala gako dela ikerbide berri horretan.⁴⁴

Prozesu etnikoak aktibitate politikoak dira, zeren eta estatuak naziotu edo nazioak estatu bihurtu gura direnean, nahitanahiez, prozesu etnikoak abiatzen baitira. Darraikionez, gatazkak ere bai. Folk-iharduerak zererrana izan dute, eta badute, estatuaren nazioegite zein nazioen estatuegite asmoetan. Beraz, prozesu etnikoetan. Ideia hau nahi nuke gehiago argitu, Felix Oina folkloristak liburu batetan batutako artikuluak labur-labur komentatuz.⁴⁵

Oina-k egindako liburua arrazoï ezberdinengatik da interesgarria. Liburuak etnizatearen, nazionalismoaren eta politikaren artean dauden hartu-emanen aberastasunaz dihardu. Prozesu nazionalak testuinguru estatal diferenteetan suertatzen direnez gero, liburuak ongi agertarazten du kultur-nortasun eta kultur-abiabide franko aurki daitezkeela. Oina-k bilduriko idazlanetan honako galdera egiten da: prozesu nazionala eta testuinguru estatalan zer nolako nortasun-kulturalak jendaurrertzen dira folk-iharduerak direla medio?

Folklorearen, prozesu etnikoen, eta estatus politikoaren artekotasuna aztertzean hainbat ideia azpimarratzen da Oina-ren liburuan. Folkloreak eta nortasun etnikoak elkar sostenganatzen dutela da ideiotarik bat. Hau da, ezberdintasun etnikoaren kontzientzia piztearekin folk-iharduerak ugaritu ohi dira, eta baita alderantzizkoa ere. Alegia, ezberdintasun sozial eta etnikoaren ahuleziak folk-jeneroen desagerpena ekartzen du. Zentzu horretan, burujabetasun etniko sendo batek herri kulturaren eta folk-jeneroen lantze sakona ekartzen du bertako intelektualen aldetik. Folk-aktibitateen eta folk-

jeneroen indarketak estatu politiko independente bat sor lezake, Finlandia esenplu ona izanik. Finlandian *kabala* izeneko epika epika nazional bilakatu zen folkloristen eskutik, izakera kultural eta duintasun finiar bat ekarriz. Epika nazionalizatzeak kulturen eta politikan izakera finiar independente bati atxekimendua ekarri zuen. Ondoren estatu bat instituzionalizatu zen.

Finlandian gertatu bezala, folkloristak aberriaren edo ideia politiko baten zerbitzurako lanean ihardutea gauza arrunta da. Finlandiako *kabala* epikaz gain, Oina-ren liburuak folklorea politizazioaren adibide gehiago dakartza, hala nola Albania, Siberia, Batasun Sobietar, Turkia, Ukraina eta Estatu Batuetako esenplu zenbait. Argudioa zehatza da, folklorea instrumentala da esparru politikoan, batez ere estatu bati kultura bat dagokiela, eta kultura bati estatu bat dagokiela, oneritiz gero. Hau dela-eta, testuinguru estatal eta anitzkultural batean arestiko eritzia aplikatu ondoren, talde kultural agintaria zein den garrantzitsua da, zeren eta, folklorea etnizate-ekarlea denez gero, folk-agerpenak ofizialki bultzatzea edo bazteraraztea ondorengo zuzenak baitira. Bestela esanda, folk-agerpenen antolamenduan eta folklorea ikerketan sostengu ofiziala aurki daiteke. Edo opozizioa. Testuinguru anitzkulturaletan ezezik, talde sozialen ezberdintzan ere susmatzen da folklorea instrumentaltazioa, *literati* eta herritarrak, edo hiritarrak eta baserritarrak elkarkontrastatzean, talde bakoitzaren sorkuntz-lanei definizio bana emanez: kultura eta folklorea. Lehena benetan sortzailea. Bigarrena errepikakorra eta monotonoa.

V. FOLKLOREA ETA POLITIKA ZUBEROAN

Oraindik ez dago Zuberoako folk-antzezenen eta politikaren arteko loturaz estudio sistematarik eginda. Hala ere, delako loturaz ohar batzu zirriboratu ahal dira, han eta hemen erreferentzia esankorrek aurkitzen dira-eta. Erreferentzia bat George Hérelle-n idazlana da. *Etudes sur le théâtre basque*⁴⁶ liburuan Hérelle-k Zuberoako folklorea eta politikaren harremanaz zehaztasunak eman ditu. Partikularzki, Hérelle-k errepublikaren ideiek Pastoralaren antolakuntzan izandako eraginak ikertu ditu. XVIII mendearen bukaerako Pastoralgintzaz bildutako dokumentazioan Hérelle-k aurkitu du Pastoralen antolatzaile zenbait subertsibotzat salatuak eta gartzeleratuak izan zirela. Arrazoa hauxe zen: Pastoralak erregetza eta elizagoaren ikuspuntu politikoak sostenganatzen zituelakoan zeuden errepublikanoak. Hérelle-n beraren eleak adierazgarriak dira:

44. Etnia, etnizitatea eta politika nozioen arteko harremana Euskal Herrian nolako izan den jakiteko, ikus *Etnia y nacionalismo vasco*, Jesús Azcona, Ed. Anthropos, 1988; eta *Los vascos del cromañon al carnaval*, Joseba Zulaika, Erein, 1997.

45. *Folklore, nationalism and politics*, Felix Oina (biltzailea), Slavic Publishers, Inc., 1978.

46. Honoré Champion, Paris, 1923, 9-20 orrialdeetan.

Mais le sujet de cette pièce n'était qu'une 'moralité', et l'instituteur avait eu soin d'y insérer une chaleureuse profession de républicanisme. Voici ce qu'on trouve dans le manuscrit dont il fit usage (en basque, bien entendu):

..... Messieurs, divertissons-nous,
Chantons le *Te Deum*,
Tous l'un avec l'autre.

Mais en 1796 le *Te Deum* n'était plus de mode, et l'instituteur corrigea d'abord le verset de la manière suivante:

..... Célébrons la Nation.
Tous l'un avec l'autre.

Puis cette formule lui paru encore insuffisante, si bien qu'il biffa de nouveau et écrivit en surcharge:

..... Chantons la Carmagnole,
Tous l'un avec l'autre.

Et il ajouta au texte sept versets, dont les quatre premiers commentent, non sans verve, la rédaction définitivement adoptée:

Vive, vive la France!
Vive, vive la Nation!
Vive, vive la République!
Et toute l'assemblée!

(Hérelle 1923: 45)

Errepublikazale eta aintzineko erresumazaleen arteko lehiak eta tirabirak berdin-berdin agertzen ziren Zuberoako Maskaraden antolakuntzan. Ikus dezagun nola:

Le pis est que les passions politiques s'en mêlent, et, comme toujours, elles produisent de déplorables effets. Si la mascarade a été organisée dans un village où la municipalité est républicaine, les villages réactionnaires refusent de la recevoir; si elle a été organisée dans un village où la municipalité est réactionnaire, les villages républicains refusent de la recevoir (cela s'est vu notamment en 1914). Triste réciprocity de sottise!⁴⁷

Zuberoan folk-arteetan bezala Frantziako Pirinio eta beste eskualdeetan ere gauza bera gertatzen zen. Alegia, herri txikietan folklorea zuten ezkertiarrek eta eskuindarrek beren arteko gorabeherak eta ezberdintasun politikoak neurtzeko

saila. Esate baterako, M. Agulhon eta P. McPhee hala dokumentatu dute berek egindako ikerketan.⁴⁸ Idazle horien ikerketan ikusten denez, baserri giroko herri askotan folklorea eta tokian tokiko kultura tradizionala erradikalismo ezkertiarra adierazteko tresna bihurtu ziren. McPhee-ren konklusioa garbia da:

By 1850, dancing and support for the Left had become virtually synonymous through much of southern France.⁴⁹

Agulhon eta McPhee ikertzaileek azaldu dute Frantziako bigarren errepublikaren garaian folklorea erraminta politiko-kulturala izan zela anitz herri-tan. Alegia, baserri-arte ezkertiarrek tokian tokiko sinboloak eta bertan bertako izakera soziokulturaren markatzaileez baliatu ziren eskubiko alderdizaleen aurkako lehia politikoan. Zuberoa ez da sabulespenik izan, zeren eta Zuberoan ere tokian tokiko politika *gorrien* eta *zurien* arteko gorabeherak markatu baitute. Arestian esan bezala eman ditugu, G. Hérelle-n hitzak errepikatuz. Bai Hérelle-n eta bai Agulhon-en zein McPhee-ren testigantzak bertan bertako folkloreak eta tokian tokiko politikaren lotura erakutsi dute. Hala ere, agerpen kulturalen eta politikaren artean badago bestelako loturarik. Esate baterako, Frantziaren estatu-nazio-gintzak kultura-moeta hegemonikoak, edo handiak, eta bazterreko kulturak, edo txikiak, elkarrengandik bereiztera jo zuten. Hau da, kultura-moeta bat frantziar eta hiritar-tzat jo, eta gainontzeko kulturak atzerakoi eta baserri-arte zirelako kontsideroa ekarri zuten iraultza burgesak.

M. Martin-ek eta Eugen Weber-ek beren estu-dioetan erakutsi dute estatu-nazio-gintzarekin batera Frantziako nortasun soziokulturalean definizionaldaketa suertatu zela. Alegia, frantziar izakeraren egintzan 'hiritartasun' nozioa nagusitu zen, baserri giroko kutsuak bazterreratu zirelarik.⁵⁰ XIX mendearen bukaeran eta XX mendearen hasieran gertatu zen izakeraren bilakera hori. Eta Jean-François Daguzan-ek idatzi duenez, bilakera hori hiru gauzaren emaitza izan zen. Batetik, trenbide-sareak erai-kiz, lurgaineko komunkabideen garapenaren emaitza. Bestetik, errepublikak errejentak bazterreko

48. Agulhon, M. 1982. *The Republic in the village: the people of the Var from the French Revolution to the Second Republic*. Cambridge: Cambridge University Press. McPhee, P. 1977. *The Seed-Time of the Republic: Society and Politics in the Pyrénées-Orientales*. Ph.D. Thesis. University of Melbourne. McPhee 1978. *Popular Culture. Symbolism and rural radicalism in nineteenth-century France*. *Journal of Peasant Studies* 5: 235-53.

49. P. McPhee. *Ibidem*. 245. orrialdean.

50. M. Marin, *The making of France: the origins and development of national unity*, Londres, 1951. E. Weber, *Peasants into Frenchness: the modernisation of rural France, 1870-1914*, Stanford University Press, 1976.

47. G. Hérelle, *Le théâtre Comique*, Champion, Paris, 1925, 26. orrialdean.



Xalbador Pastoralara Larrañe herrian. Kristauen ate-ohialaren kolorea: berdea.

herrietara bidaliz, haur-eskolak zabaltzearen emaitza. Eta azkenik, XX mendean Europako bi gerlen ondorioz gorpuztutako 'kanpoko etsaia' ren nozioa finkatzearen emaitza.⁵¹

Beraz, XX mendearen lehen erdialdiko Frantzia badugu kultura frantziar moderno bat, zeina baita hiritar bizimoduari eta frantses hizkuntzari lotua. Burura datorkigun galdera hau da: orduko urteetan nola pertzibitzen zen Frantzia zentralizatuaren kultura hegemoniko hiritar hartatik eskualdeetako folklore baserritarra? Erantzunik bilatzerakoan, Peer ikertzailearen lanean erreferente bat aurkitzen dugu. Europako bi gerlen arteko urteetan folkloreak erabilpen politiko-ideologikoa nolakoa zen Frantzia analizatu du Peer-ek. Horretarako, Parisen 1937.ean antolaturiko nazioarteko kultur-erakuspen handi batez gogoeta egin du. Bere artikuluan Peer-ek idatzi duenaren jarraian, 1937. urteko erakuspen hartan Frantziako agintari kulturalak lehenbizi onartu zuten Frantziako eskualdeetako usadioak eta kultur-moldeak 'kultur-ondare nazional' gisara jendeaurrean aurkeztuak izan zitezten.

E.J. Hobsbawm eta T.Ranger idazle britaniarrek tradizio nazionalen egindako gogoetatik abiarazi du Peer-ek bere analisisa⁵². Idazle haien eritziz usantza

nazionalak asmazio soziokulturalak izaten dira. Peer-ek azaldu duenez, eskualdeetako folklorea ez da Frantzia behin ere erabili izan, ez nazio-nortasun frantziarrik asmatzeko, ezta ere batasun politikorik hedatzeko. Alderantziz, eskualdeetako folklorea eta tokiko kultur-agerpenak frantziar-nortasunari mehatxu zitzaizkiola uste zuten Frantziako agintari politiko eta kulturalak, partikularzki ezker-rindarrekoek. 1937. nazioarteko kultur-erakuspean orduko agintari politiko-kultural ezkeriarrek tokian tokiko usadioez baliatu ziren 'kultura herrikoia eta kolektiboa' ren nozioa asmatzeko:

the positive representations of folklore in the 1937 Exposition did not constitute a disinterested tribute to rural and provincial folk. Instead, they provided a nostalgic refuge from industrial capitalism in crisis. More importantly, they translated a simultaneous attempt by the Left to 'reinvent' folklore as an element of its *collective popular culture* and as an usurpation of local cultures by national authorities (jatorrizko hitz italikoak).⁵³

Zuberoara etorri, eta bertako folk-agerpenei begiratu gero, honakoa ikusten dugu: XX mendearen lehen erdialdearen Maskaradetan eta Pastoraletan nazio-sinbologia frantziarra zabalera handikoa zen. Gerokoetan, ordea, abertzaletasunaren sinboloak ugaritu dira, bai nazio frantziararenak

51. "Fait national eta fait regional: essai comparatif entre la France et l'Espagne", J.F. Daguzan. *Régions, nations, états: composition et recomposition de l'espace national*, Pierre Bidart (ed.), Publisud, Paris, 1991.

52. E.J. Hobsbawm eta T. Ranger (eds.), *The invention of tradition*, Cambridge University Press, 1983.

53. Peer 1989: 72;

espreski ukatuz, eta bai bi sinbolotegiak nola edo hala elkarkidetu.⁵⁴ Folklorearen eta nazionalismoari buruz den kapitulu honi bukaera emateko, Pastoraletan erabili ohi diren kolore-sinbologian eta musika-doinuetan 1990. urteen hamarkadaren hasieran izandako eztabaidaz lekuko batzu jakin behar ditugu.

1980. urteen hamarkadaren amaieran eta 1990. urteen hamarkadaren hasieran Pastoraletako musika-doinuak aire militar frantziarrekin zerikusi handiagoa zutela, Euskal Herriko kulturarekin baino, hotsa zabaldu zen. Zuberotar zenbaiten eritziz, doinu arrotzak baztertu behar ziren Pastoral berrietatik, euren lekuan euskal melodiak sartuz. Halaber, gisa berdineko beste hots bat zabaldu zen. Alegia, normalki kristauen atean izan den kolore urdinak, gehi zeruaren atean den kolore zuriak, gehi turkuen atean den gorriak, hiru koloreek, batera jarrita, Frantziako bandera osatzen dutelako hotsa zabaldu zen. Baina jarraitzen zitzaien, kristauen kolore urdinaren ordeztu behar berdea jarritz gero, orduan berdea, zuria eta gorria elkartzen dira, euskal ikurriña osatuz. Argudio orokorra hone-latsua zen:

azken urteotan Pastoralaren gaiak euskaldundu izan dira; hala ere, musika-doinuek eta koloreen konbinaketek oraindik ere frantziar dira; euskaldun ditzagun beraiek ere; modu horretara, Pastoralaren estetika bururik buru bertako kulturaren ohiartzuna dukegu.

Urte haietako Pastoral-antolatzaileek esperimentatu zuten arestiko ideia berriekin. Bereziki, kristauen zein turken sarreretan eta irteeretan berrikuntza-saioak egin ziren, euskal doinu 'tradicionalak' Pastoraletara ekarri, eta 'betikoak' ixilduz. Koloreetan ere ganbioak ikusi ziren. Hasieran, errejentek bandera urdinari utzi eta berdeari ekin zioten. Gero, kristauen ateko kolorearen ganbioa etorri zen: 'tradio'zko *bleu*aren ordeztu, orrial berdea erabiltzen zen. Aldaketa horiek gertatuta gero, Donapaleu ondoan Lurberri kooperatibak duen egoitzan ihardunaldi kulturala antolatu zen, non bi mintzaldi eman baitziren. Bata, Ipar Euskal Herriko emakumeaz. Bestea, Pastoralaz. Lehenean, Teresa Lekunberri etnologoak hitzegi zuen. Bigarrenetan, Jean-Louis Davant idazleak. Hizlariak beren mintzaldia amaitu ondoren, bertan bilduek publikoki eritzi-emateari lotu zioten. Pastoralari buruzko mintzaldiko audientzia Iparraldeko apaizgoak osatzen zuen gehienbat. Kolore urdinaren aldaketa

eztabaidara iritsi zen. Han argudiatua haxe izan zen: urdina, zuria eta gorria koloreen konbinaketak ez zuen Frantziako bandera inondik inora ere errepresentatzen, baizik eta zerua, lurra eta infernua. Koloreen sinbologia politikoki endelegatzea okerreko gauza zen. Han batutakoen ustetan, Pastoralaren jatorria erlijioan bai dago, eta ez oraindik nazio-ideologian. Beraz, auzia ez zen urdina/Frantzia versus berdea/Euskal Herria, baizik eta urdina/zerua versus gorria/infernua. Konklusio horretara heldu ziren hango bilerara azaldu zirenak. Eta azaldu ez zirenak, zeren eta harez geroztik antolatutako Pastoraletan orrial urdina nahiago izan da, berdea baino.

TEATRO ERRITUALEK DRAMATIZATURIKO HISTORIA EPIKOAK

Gero ixtoria faltsiak
Europako herrietan
Zütien ager-erazi
Franko haien uhurretan

Bena gük egia nahiz
Librū zaharrak ikertü
Eskolan beno hobeki
Ikhusi zer zen agitü

Ibañeta Pastoral, Junes Casenave Harigile,
Jakin 1978, 15. orrialdean.

I. SARRERA

1999.eko Urtarrilaren goiz batetan Zuberoko Bozako irratsaio bati beha nintzaiolarik, Manex Goyhenetxereren *Histoire Générale du Pays Basque*⁵⁵ idazlanaren lehen liburukia elkarrizkomentatzen zioten irratsarduradunak eta Jean-Louis Davant idazleak. Elkarriketan gauza batez ohartu nintzen. Mintzagai zen liburuari J-L. Davant-ek eginitako aipu, eranskin eta adierazpenen tartean irratiko aurkezleriak hitza hartzen zuen, bere komentarioak gehitzeko. Komentario haixetan harrizten nintzen, zeren Pastoral maiz aitatzten baitzen. Alegia, Zuberoako edo Euskal Herriko iragan historikoaz J-L. Davant-ek zerbait erran, eta aurkezleriak segidan zehaztuko zuen nongo Pastoralak erakutsia zuen erraniko pasarte historikoa. Euskal historian agitua eta Pastoralak antzetzua elkarlotze-portaera hori sarri suertatu zen bi mintzaleen arteko irratsaioan zehar, batez ere irratsarduradunaren aldetik.

54. Ikus: Kepa Fdez. de Larrinoa, "De los límites y las transgresiones culturales", *Fronteras y puentes culturales*, Kepa Fdez. de Larrinoa (ed.), Pamplona, 1998. François Fourquet, *La Mascarade d'Ordian*, Boletín del Museo Vasco de Bayona, 1990.

55. Elkarfanean, Donostia, 1998.

Pastorala eta historia elkarlotzea baita beste kontestuetan ere ikusi dut. Esate baterako, Altzürükü herriko etxe batetan Maskaradari buruzko elkarrizketan honakoa portunatu zitzaidan. Elkarrizketa formala amaitu ondoren, honetaz eta hartaz laxa eleztatzen ginen etxeakoak eta ni, oraingoa arestiko elkarrizketaren erroak bete-betean irauliz. Hots, etxeak nerau zorrotz itauntzen ninduten nitaz, neronek haiek lehentxeago euren gauzez itaundu nituen bezalaxe. Bapatean jabetu nintzen guda karlistez mintzo ginela. Karlismoaz gehien omen zekien andrari galdetu nion ea nondik zuen guda karlisten berri hain zehazki jasoa. *Phas-tualetarik*, erantzun zuen.

Pastoralak antzeztuaren eta historian gertatuaren artekotasunaz hirugarren adibidea ekarri behar dut. Muskildi herriak Harispe Pastoralak antzeztu zuen 1991.eko urtean. Antzeztu aitzin, prentsaurrea antolatu zen Muskildin bertan. Dei eginiko egunean eta tenorean han ziren antolatzaileak eta kazetariak. Baita antzeztanaren sortzailea ere. Pastoralaren izkiriataileari galde asko egin zitzaizkion, haboroxenak. Eta galderen doinuei kasu eginenez gero, haserre-antza nabarmentzen zuen galdegile zenbaitek, partikularzki Zuberoatik landako kazetari euskaldunek. Haserre-giroko galderek seinatu nahi zuten ezen, Harispe Frantziako armadako marexala izanda, halakoxe Pastoralak ez zion azken urteotako modari heltzen, azkenurrenari baino. Alegia, euskal heroe baten bizitza azaldu beharrean, heroe militar frantziar batena izkiriatua zuela leporatzen zitzaion idazleari. Idazleak honelatsu ihardetsi zuen-eta:

Harispe Pastoralak erakusten du Harispe pertsonaia historikoak bere bizitzaren

mementu batetan euskaldunen alde jo zuela, euskal batailoi bat osatuz, eta euskal izakera defendatuz.

Galdegileek ez zuten atsegin handiz arrapostua hartu, eta euren ikuspegia azaldu zuten. Horretaz, esan zuten Harispe militar frantsesa izan zela, errepublikaren aldeko borroka-egilea. Harispek ezer gutxi lagun zezakeela Ipar Euskal Herria, zeren Errepublikak foruen, euskal usadioen eta tokiko botere politikoaren deusezteka baitzuen ekarri. Galdera-egileen eritziz, Pastoralaren idazleak Harispe euskal heroetzat jotzea *kosmetika* handiko manio-braren, berezko historian Harispe frantses heroea izan zen-eta. Beraz, honakoa argudiatzen zuten kazetariak: historian gertatuari begiratuz gero, Harispek egindakoa Frantziako historiari dagokio, eta ez Euskal Herrikoari. Zuberoako Pastoralak, ordea, Euskal Herriko historia goraiatu behar du.

Arestiko pasadizoa tirabira baten ispila da. Aspaldian Pastoralak euskal heroen bizitzak kantatzen dituzte. Askotan bizitza haiek dokumento historikoak bailiran aurkezten dira jendearen aurrean. Hein handian, Frantziako eskolak ezkutaturiko euskal historiaren erakuslea balitz bezala endelekatzen da egungo Pastoralak. Agian, Junes Casenave da ikuspegi horretako exenplurik erradikalena. Modu legunago batez azalduta ere, beste idazleen jokaera berdintsua da. Leheneko Pastoralen idazleek agiri bibliko zein literatura europearrean oinarritzen ziren antzeztan osatzeko. Egungo Pastoralen idazleek idazlan historikoetan arakaten dituzte pertsonaia eta pertsonaiarekiko gorabeherak. Gaiari eta gaiaren tratamenduari begira, egungo Pastoraletan historia dokumentatuarekiko grina perzibitzen da. Eta leheneko Pastoraletan



Harispe Pastoralak Muskildi herrian. *Türkak* eta *errejenta*.

anakronismo ugari agertzen bazen, ez da oraingo-etan anakronismorik agertzerik nahi. Ondorioz, oraingo Pastoraletan tirabira bat ikusten da: historia eta ixtorioaren, egia eta alegiaren, erreala eta fikziozkoaren artekoa.

Aukeraturiko gaietan eta testuetan erreparatuz gero, Iparraldeko euskal kontzientzia historikoa dute egungo Pastoralak antzezgai. Pastoralen bitartez, Iparraldeko euskal kontzientzia suspertzeko grina dago. Xede horretan, Hegoaldeko pertsonaia eta historia politikoa usu izaten dira kantagai egungo Pastoraletan, partikularzki Hegoaldeko imaginario nazionalista. Hegoaldeko zein Iparraldeko gaia hautatzean, Euskal Herriak munduko historian bere toki berezia baduela erakustea du helburu Pastoralaren idazleak. Hautaturiko gaiaren bidez, orain arte izan ez den euskal talde-kontzientzia historikoa sortarazi nahi du idazlanaren egileak. Halako helburuak tirabirak dakartza. Horregatik zaie oraingo Pastoralen izkiriartzaileei historia dokumentua hain beharrezko. Hala ere, Pastoralen idazleak ez dira historialariak, hainbat idazlek historia-maisuak izan nahi arren. Pastoralen idazleek ez dute artxibo-lanik egiten, ez dute, ezta ere lehen-leheneko berri-iturrietara jotzen. Pastoralen idazleek eskura dituzten liburuak leitu, ikasi eta modu literario batez berraurkezten dute historia hori. Hots, Pastoralaren kode erritual-komunikatibora itzul eta ezagutarazi dute bigarren edo hirugarren eskutik jasotako informazioa. Darraikionez, idazleek ez dute Pastoralaren gaiari buruzko ikerketa sitematikorik egiten, zirriborro orokor bat baizik. Nahitanahiez historiaren topikoak errepikatzera jotzen dituzte.

Arestikoa oso nabarmen ikusi da 1990. urteen hamarkadetako Pastoraletan non lehenbiziko euskal nazionalismoaren heroeak antzezgai izan baitira. Euskal nazionalismoak Hegoaldean du sorrera, garapena eta indarra. Euskal nazionalismoaren historia ez da oso gauza gertua, ikasia edo eztabaidatua Zuberoan. Euskal nazionalismoaz liburu gutxi dago eskuragai frantsesez. Are gutxiago hangoxe euskeraz. Beraz, azkeneko Pastoralak osatzeko, Hegoaldeko euskal nazionalismoaren topikoak antzeztu dira, hala eginez anakronismo berriak agertu direlarik.

Aurreneko Pastoralen idazleek beste norbaitzuk laburturiko pasarte bibliko zein literarioak itzultzen zituzten Pastoralaren lengoia etzenografikora. Oraingo idazleek beste norbaitzuk laburturiko pasarte historikoak itzultzen dituzte Pastoralaren kode erritual-komunikatibora. Itzulpenean anakronismoak sortzen ziren lehen. Eta anakronismoak sortzen dira orain. Harispe Pastoralak demaigu adibide ederra. Harispe Pastoralaren agertaldi batetan bi euskal gudukari afusilatu behar zituzten etsaiek. Oso agertaldi hunkigarria zen, propio hala

tankeratuta: afusilatuek kantu mingarri bana ematen zuten; atzekaldetik emazte-abetesbatzek mingiroa areagotzen zuten; eta bi ikurriña ezarri zituzten ageri-agerian, egoeraren euskalduntasuna indar gehiagoz definitzeko. Ezenografiaren lantze horrek agertaldiari zirrara biziki eraginkorra ekarri zion, eta hala pertzibitzen zen Zuberoako publikoarengan eta Pastoralaren aktoreengan.

Eguno parametro zuberotarrei gatxezkiolarik, lehen aipaturiko agertaldian goimailako etzenografia erabilia zuten Harispeko antolatzaileek. Harispe Pastoralak, haatik, Hegoaldean ere antzeztu zen, Victoria Eugenia eta Arriagan, Donostiako eta Bilboko antzokirik inportanteenetan, hain zuzen ere. Ez zuten Hegoaldeko antolatzaileek arestiko etzenografia oso egokia ikusi. Kantuak ederrak ziren, abesbatzak ere bai. Euren eritziz, ikurriña ez zen egokitzen, ordea. Harispe bizi zeneko urteen artean ikurriña ez zegoen asmatuta. Hegoaldeko ikusentzulegoa euskal nazionalismoaren historiak jakilea baita, berehalaxe jabetuko zen anakronismo edo ahistorizitate hartaz. Testuinguru interpretatibo zuberotarretik ikusita, ikurriña eransteak etzenografia janzenago zuen, publikoa gehiago hunkitzen zuen-eta.

Harispe Pastoralak Zuberoako kanpo zabala utzi eta Victoria Eugenia eta Arriaga antzoki aberatsetan kokatzean, Pastoralak kutsu *herriko*tik jenero *kulto*etarako jauzi egiten zuen. Halako kontestu kultoari ez omen zitzaion ikurriñarekiko anakronismo historikorik egokitzen. Eta horixe jakinarazi zuten Hegoaldeko antolatzaileek. Beraz, kontestua zein den, ixtoria historia gauzaraz daiteke. Alegia, iraganaz asmatua gertakari historiko izatea sinestaraz daiteke. Eraberan, historia ixtoriotxo dela erakuts daiteke. Eraberean, egitasmo historiko-politikoak balitezke orainaldiko asmazioak izatea, edo lehenengo asmakizun zaharretan oinarrituta egotea.

Arestian aipaturiko enpleuek erakusten duteenez, Pastoralaren ikerketak historiaren ikerketa dakar. Pastoralaren historiaren ikerketa ezezik, Pastoralak historiak diotenarena. Pastoralak aztertzean, beraz, honako galderak egin behar dira: orainaldiak iraganaz zer dio? Eta, iraganak bere orduko orainaldiaz zer zioen? Horretaz, Pastoralaren ikerketak historia kulturalaren esparrura gaitzartzen.⁵⁶

56. Euskal Herriko kultura herrikoa enpleutat hartuta, historia eta antropologia dituztuen arteketasunari buruzko eztabaida teorikoren norabideak honako idazlanetan bila daitezke: Jesús María Usunariz Garayoa, "Los estudios sobre religiosidad popular en la España moderna en los últimos veinticinco años", *Religión y símbolos*, Zainak, 27. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999; Kepa Fdez. de Larrinoa, "Herri kultura eta eredu teorikoak", *Nekazal gizarte eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993.

II. FOLK-ANTZEZKIZUNA, ERRITUALA ETA HISTORIA

1980. urte-hamarkadan erritualaren eta historiaren arteko artekotasunari buruzko monografia ugari argitaratu zuen ingleserazko antropologiak.⁵⁷ Besteak beste Maurice Bloch-ek idatzi zuena zegoen.⁵⁸ Historiaren eta erritualaren arteko artekotasunaz ihardutean, M. Bloch-ek ideologia politikoaren esparruan kokatzen du portaera erritual-estetikoen azterketa. Madagaskarreko herri bateko zirkuntzizio-erritualak ikertu ondoren M. Bloch-ek honakoa ikusi du: erritualen estetikaren bitartez *agíntea* eta *nagusigoa* ideologikoki eraik eta legitimatzen dira. Bloch-en eritiziz, ideologiaren eraikitze-prozesu delakoari mistifikazio-kutsu handia dagokio, erritualaren indar estetikoak mistifikazio-funtzioa betetzen duen bitartekari. Zentzu horretan, estetika erritualaren estudioa *gizartegintza* eta *ideologiagintza*ren iker-arloei datzekie. Alegia, gizarte historiari edota historiaren soziologiari.⁵⁹ M. Bloch-en jarrerari helduz gero, errituala indar politiko paregabea da. Halaber, ideologiaren eta hierarkiaren ekoizpenean zein legitimazioan eragile handia da.

Liburu sakratuen zein mitologia klasikoaren istorioak, ospe handiko gai literarioak eta historia-liburuaren argudioak antzezten dira Zuberoan, tokiko eta garaiko interesen arabera. Bidean errejenta eta idazleen lana gako da, beraiek mundubisio eta interpretazio historiko zein sinboliko zaharrak nahiz berriak gorpuzten dituztelarik. Pastorek istorioak dramatizatzen dituzte. Baina, istorio horietan sakonduz gero, honakoa dakusagu: historikoki kreativeki istorioak antzezten dituzte Pastorek. Alegia, istorioak historiari ihardun izan dute, eta dihardute. Hau da, mementu historiko identifikagarri eta zehazgarri ezberdinetan jendaurreratzen dira Pastoralak. Aurkeztutako gaiak historian gertatuari buruzko irudi kulturalak izatean, *historia* nozio eta interpretazio diferenteekin topatzen da ikertzailea.

Zuberoako Pastoralak folk-teatruari zientzia sozialetik begiratu gero, ideia garrantzidun bat agertzen da: drama zuberotarrak gune eta une historikoak signifikantza ezberdinez kutsatzen ditu. Bestela erranik, ezagutza historikoaren ormazurak eta kontzientzia historikoaren baldintzak sozialki gorpuzteko, eta kulturalki transmititzeko, tokiko kultur-instituzio aparta da Pastoralak. Denbora dokumentatua zehar Zuberoako folk-teatrua beha-

tuz gero, gizarte-tirabiren, desoreken eta ideien korronte ezberdinak bertan daudela perzibitzen da. Txomin Peillen idazleak Zuberoan eragin handia ukaniko pentsamentu-korronte batzu zirriboratu ditu, hala nola: XVI. mendean protestanteen Erreforma; XVII. mendeko katolikoaren Kontraerreforma; XVIII. mendeko filosofo eta pedagogoaren arrenkurak; XIX. mendeko erromantikoaren kezka; eta XX. mendeko abertzaletasuna.⁶⁰ Halaber, Pastoralen gai-aldakuntzan ikus dezakegu garaian garaiko pentsamoldeekin eta irudiekin jolasteko jokaera bizkorra. Antzezturiko gaien aldaketa dela eta, G. Hérelle azterlariak honelako gai-taldeak berezi ditu. XV. mendean amaieratik XVI. mendean bukatu arte, noiz eta lejenda erlijioso eta heroikoak antzezten baitziren. *Mystères* izenarekin ezagutu ziren. XVI. mendean bukaeratik XVII. mendean amaitu arte aintzinate profanoa errepresentatzeko jokaera zegoen. Normalean, jesta-gisako abenturak eta istorioak ziren, *tragédies* zeritzetenak. Eta XVIII. mendetik 1914. urteko gerlara arteko *Phas-tualak*, Frantziako historia plazaratu dutenak.

Jean Haritschelhar-ek, bere aldetik, G. Hérelle-n lana gaur eguneraino osatuz, XX. mendean beste bi aldaldi gehitu ditu.⁶¹ 1920-1950 urtaldia, noiz, lehengo mendeko tradizioari atxekita, Frantziako historia antzezten jarraitzen den; eta 1950. hamarkadetik orain arte, Pastoral berria mamitzen den urtaldia, gaiak euskaldunak direlarik. Egungo folk-antzerkiaren egileek, ondorioz, euskal historia-egiazkoa nahiz asmatua- azter eta antzezgai ekarri dute herriko plazara.

Orain arte erranikoari darionez, hauxe baieztatu ahal dugu: ezberdinez gabe, ideiak, ezaguerak, kontzeptuak, pentsamenduak eta ulerkerak sozialki azaltzeko *locus* bezala endelegatu behar dugu Zuberoako Pastoralak. Bidean, erreala edo imajinarioak, ukatuak edo desiratuak diren gertakizunak eta jende-pasadizoak antzezteaz gain, Pastoralak historiaren nozio edo kontzientzia sozialaz eta, baita ere, historian suertatuaz jokatzeko. Beraz, Zuberoako herri-antzerkiak gogoeta egin, eta anitz gauzak jabe gaitzeko, haien artean hauxe dagoelarik: Historia historiak dira. Hots: ahaztu dugun historia; ahaztu gura dugun historia; dakigun historia; behin ere ezagutu ez dugun historia; dakigun historia; gura genukeen historia; nahi ez genukeen historia; barre-alarak sortarazten dizkigun historia; eta historia gehiago, den-denak elkarri begira sortu eta desagertu izanak, gorpuztu eta barreiatu izatekoak. Eta historia guzti horiek gune eta une publiko berezietan ezkutatu, espresatu eta

57. Ikus *Estatu Batuetako Mendebalde Urrutiko euskal jaiak*, Kepa Fdez. de Larrinoa, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua, 1992, 125-156 orr.

58. Ikus *From Blessing to Violence*, Cambridge University Press, 1987; Baita ere *Ritual, History and Power*, London School of Economics, 1989.

59. Ikus *Historia social/sociología histórica*. Santos Juliá, Siglo XXI, 1989.

60. Ikus Txomin Peillen, *Zuberoako Itzal-Argiak*, Elkar, 1988.

61. Ikus J. Haritschelhar "La Pastorale", *La Pastorale: théâtre populaire basque en Soule*, Lauburu, Bayonne, 1987.

jakinarazi direnez gero, kulturalki definituak eta ideologikoki eraikiak dira.

Dudarik gabe, Pastoral Europa teatru errural zabalago baten senide zuzena da.⁶² Udaberriko bataila erritoen, Erdi Aroko heroe epikoaren, drama liturgikoaren eta, baita ere, mairu eta girstinoren arteko guduka sinbolikoen itzalak, han eta hemen, ederkí asko hedatzen dira Zuberoako Pastoraletara mementu historiko ezberdinetan barrena. Geografikoki eta kasu askotan plastikoki ere bai hurbilak, Pirinioetako beste alderdietako antzezkiunak, teatru flandiarra, bretoia, biarnesa, Italia aldeko toskanoa, Iberia penintsulakoak... batzu desagertu, bestetu ahuldu, eta oraindik dirautenak, bestelako produzio eta errepresentazio-markoek gidatuta daude. Pastoralak ez dakar, irudiz, mugimenduz, bertsetez eta kantuz, iragana orainaldira; baizik eta, orainaldiaz eta iraganaz baliatuz historiagintzaz dihardu. Bestela erranik, Pastoral ez da ez ezeren, ez inoizko eta ez inongo errealtatearen ispilu geldoa, baizik eta berezko errealtate dinamiko eta eraginkorra.

Areago, historiagintza (errealtate sozial berrien egintza, alegia) da gaur egungo Pastoraletatik jalkitzen den ale lodí eta astuna. Hots, historia produzitzea da elementu soziologiko garrantzidunetako bat Zuberoako egungo folk-teatruan. Zehatzago, eskola nazionalean zein pribatuan, irakurri eta idatziz (hau da, berba inpresoaren bitartez) ezagututako eta ikasiriko Historia baino, eskenario baten gainean dramaturgiaren legetatik jarraikiz irakatsitako osterantzeko historia bat jakinarazi nahi da. Arestiko baieztapen honek badauka, ordea, *boomerang*-efektua, beronek bi aldetako itauna dakar eta: alde batetik, *zernolako* historia egin gura den; eta beste alde batetik, historia produzitu *nahiaren* zergatia. Bituez gogoeta egin behar dugu antropologok.

III. IRUDI HISTORIKOEN PRODUKZIOA

Jadanik aipatu dugu Maurice Bloch antropologoaren lana. M. Bloch-ek estetika erritualaz landuriko ideiak Joao Pina-Cabral antropologo portugaldarrak hartu ditu, Ipar Portugaleko Alto Minho eskualdeko *Autos* izeneko folk-teatruaren ikerkeran aplikatzeko. *Autos* izeneko drametan Mairu eta Girstinoren arteko gudukak errepresentatzen dira. Pina-Cabral-ek egindako gogoeta baliagarria da, Pastoralaren aztertekan kontutan hartzekoa da eta. Pina-Cabral-en analisisian bi ideia ditugu eskuagarri. Honakoak idatzi ditu:

Literacy is manipulated by peasant society but not controlled.⁶³

Eta bigarrenez:

Similarly historical information which is gleaned from literate sources (and therefore presumes an irreversibility of time) is used a-historically to construct a repetitive symbolic universe.⁶⁴

Portugaleko *Auto*-etan esangura-alderdien manipulazio kontziente bat dagoela konkluitzen du J. Pina-Cabral-ek. Pina-Cabral-en eritziok interesgarriak dira, zeren eta, analisi kognitiboan ezik, analisi soziologian kokatzen baitu mundu erruraleko ekoizpen kulturala. Hori aurrerapausoa da Euskal Herriko herri kulturaren ikerketan. Euskal Herriko nekazalgiroko munduaren kultura aztertzean, askotan kulturaren alde kognitiboari inportantziarik gehiena ematen zaio. Hala izateko bi arrazoí daude. Bata, hauxe da: Joxemiel Barandiaran-ek euskal mitologiaren ikerketa aurrehistoriako mundubisoari lotarazi zion. Eta bestea: Walter J. Ong-ek ahozko produkzioaz teorizatutakoaren artean arlo bakan batzuri bakarrik jaramon egin zaio Euskal Herrian.⁶⁵ Orohar, W.J. Ong-en ideak bertsolaritzaren funtsa adierazteko erabili izan dira Euskal Herrian, normalean ahozko poetaren sormenari dagozkion prozesu mental-kognitibo bereziak azpimarratzeko. Ondorengoz, prozesu mental-kognitiboekí toki gehiago eman izan zaio, produkzioaren ezagaurri sozialei baino, Euskal Herriko ahozko-kulturaren ikerketan.

Errana dugu irudi historiko-kulturalak helazten direla, folk-teatruaren estetika errituala dela medio. Gainera, irudi historiko-kulturalen produkzioa kontrolatuta dago. Alegia, irudien produkzio-guneak eta hedabideak daude. Pastoralaren kasura itzuliz gero, garbi oharzen dugu Pastoralaren jeneroari folk, herritar, nekazal eta antzeko izenlagunak eransten zaizkiola. Hala ere, liburu sakratuetatik zein mitologia klasikotik, epika unibertsaletik edo historiatic hautaturik daude Pastoralaren gaiak, *Bibliothèque Blue* eta gisa berdineko edo pareko filtoetan barrena iragan ondoren. Halaber errankorra da, eredu klasiko, literario eta historiko horiek herri-kulturatik garatu direla.⁶⁶ Beraz, ahozko eta

63. Ikus "Paved Roads and Enchanted Moeresses: the Perception of the Pass Among the Peasant Population of the Alto Minho", *Man*, 4. zenb., 1987, 723. orrialdean.

64. *Ibidem*, 723. orrialdean.

65. *Orality and literacy. The technologizing of the world*, W.J. Ong, Methuen, Londres, 1982.

66. Literatura klasikoaren oinarri herrikoia idatzian frankotah ageri da. Adibide modura honako erreferentziak aipatzen ditut: *The making of Homeric verse: the collected paper of Milman Parry*, A. Parry (ed.), Clarendon, Oxford, 1971; *La cultura popular en la Edad Media y el Renacimiento. El contexto de François Rabelais*, Mijail Bajtin, Barral, 1974; *Otra manera de leer el Quijote*, Agustín Redondo, Castalia, 1997.

62. Ikus, adibide gisa: Peter Burke, *La Cultura Popular en la Europa Moderna*, Alianza, 1991; *Teatro popular europeo*, Oihenart 16. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999;

idatzizkoaren arteko -edo herritarraren eta kultoaren arteko- bereizketa erradikalak daudelako irudia puxkatzen da. Mendebaldeko ekoizpen kulturalari ezezik, ekialdeko munduari ere egokitzen zaizkio kultoaren eta herrikoiaeren arteko joanetorriak eta elkarri egindako begiradak.⁶⁷

Baserritar gizarteaz, alfabetizazioaz edo idatziaren-irakurriaren esparru sozialaz, eta drama antzetzuez Pina-Cabral-ek egindako gogoetak Zuberoako folk-teatruaren ingurugiroan arakutzen saia gaitzke. Eta *errejentaren* -maisuaeren- errolarekin topo egiten dugu. Berbak berak dioenez, pertsona honek *eskolarekin* eta *alfabetizazioarekin* zerikusi zuzena dauka. *Errepetizioeak* edo ensaioak gidatzen ditu errejentak, *nork zer* egin edo kantatu behar, berak erabakitzen duelarik. Horrek esan nahi du ezen *ezagutza-era* jakin batek ematen dioela status berezi bat komunitatearen barruan. Eskolatuak askosaz inportantzia sozial gehiago ukanen zuen, dudarik gabe, iragan den mendeko baserritar gizarte alfabetatugabeen, oraingo alfabetatua baino, orduan pribilegiozko gizarte-ertzotokiak aisago bereganatu izango zituen-eta.

Ixtant batez Euskal Herriko herri kulturaz maiz aipatzen den ikuspegi kognitiboa laga dezagun. Eta une batez pentsa daigun herri kulturaz sozialki.

Pastoralaren ahozkoa/idatzizkoa harremana idazkuntzak kontrolatzen du. Errejentaren *cahierek* status berezia dute errepetizionetan eta antzezpenean berean. Gainera, errejentak banatzen ditu Pastoralaren errolak. Kasu bakoitzean, zein dira banaketaren kriterioak? Pastoralaren ahozkoa/idatziaren (irakurriaren) bereizketak tokian tokiko hierarkietara eta elkar-aldentze sozio-kulturaletara gakartza.

Gizarte-antolakuntzaren eta idazkintzaren erduen arteko erlazioa da gogoeta egiteko.⁶⁸ Hau da, gizarte-ezagutzaren transmisioa nolatan gorpuzten den itaundu behar diogula geure buruari. Zeren Europako zein bestelako testuinguruan gako izan baitira komunikazio-bideak eta komunikazio-manerak tokikotasunean eta estatu nazionalen eraikuntzan. Folklorearen edo kultura herritarra eta kultura landua, hiritarra edo kultura elkarrengandik ondo bereiztuta gelditu dira. Horretaz, eskola, liburua eta hitz inpresoa funtsezkoak izan dira modernitatearen eta tradizioaren mundubisioak ezberdintzeko, eta bien asimetriak adierazteko. Gauzak hala izanda, nekazal gizartean folk-antzerkiaren errejentek eta idazleek pribilegiozko tokiak berenganatu dituzte. Errejenta ahozkoaren eta idatzizkoaren arartekoa izan da. Idazlea ezagutza unibertsal edo kultoaren eta ezagutza tokikoaren ararteko izan da.



Sabino Arana Pastoral Garindaiñe herrian. Andrazko kristi arizaleak makilarik gabe.

67. Ikus Roger Cahier, *El mundo como representación*, Gedisa, 1992; eta *African popular culture*, Karin Barber (ed.) Indiana University Press, 1997.

68. Ezaguera konpartaibo baterako, ikus Jack Goody-k idatzitako *The Logic of Writing and the Organization of Society*, Cambridge University Press 1986; eta *The Interface Between the Written and the Oral*, Cambridge University Press, 1987.

II. ALDEA. JEIA

HALA TRAJERIA NOLA JEIA

[errito, drama eta besta]

Bethi begira dezagün
 jei zaharren amodiua,
 Hola eginen beituğü
 Uskal-Herriaren gerua.
 (Ibañeta Pastoral, Lehen pheredüküa)⁶⁹

Zeren harek deikü eman
 Egünko gure süjeta.
 Ümenaldi bat bezala
 Izan dadin gure jeia.
 (A. d'Oinenart Pastoral, Lehen pheredüküa)⁷⁰

Arrastiri hon, osagarri
 jin ziraien güzieri,
 Laket izan ziteiela
 besta huntan algarrekin.
 (Eüskaldünak Iraultzan Pastoral,
 Lehen pheredüküa)⁷¹

I. ERRITOTIK BESTARA

Kapitulu honetan gogoeta-arlo antropologiko batzu eztabaidatzen dira. Lehenengoz, antropologiaren ikerketan errito eta drama nozioei erantsi izan zaizkien esangurak aipatzen dira. Ondoren, Zuberoako Pastoralari buruzko miaketaz mintzaten da. Azkenik, gaur eguneko antropologiak antzerti erritualizatu ez giten duen ikerketari begiratzeko, Pastoralaz ikergai eta azterbide berriak iradoki asmotan. Pastoralaren sorrera non den jakin nahi izan dute Pastoralari buruz lanegin duten ikerlariek. Etorki batez baino gehiagoz hitzegin dute ikerlariek. Beraz, Pastoralaren etorkiaz dauden teoria nagusiak aipatzen dira kapitulu honetan.

Folklore-arloko ikerlari batzu Pastoralari errito pagano bat dela baieztatu dute.⁷² Literaturaren historialari zenbaitek argudiatu dute elizbarruko antzekizun liturgikoa lehen, eta gero elizkanpoko antzekizun erlijiosoa dela.⁷³ Filologoen testuen iturrien bila ihardun dute, askotan jatorrizko testua identifikatu nahian.⁷⁴ Semiotikan, antropologia sin-

bolikoan eta teatru post-modernoan, ostera, bestelako ikerkuntzari ekin diote. Halako idazleek estetikaren kodeez axolatu dira gehienbat, Pastoralaren errepresentazioa sistema komunikatibo berezi bati datzekiela zihurtatuz.⁷⁵ Pastoralari ikeritzeko, idazle zenbaitek oraingo zuberotar gizarte harreman-sareari so egin die. Hala eginez, Pastoralak antolatzearekin batera hedatzen diren balore komunitario, nortasun sozial eta izakera kulturalak idatzi dute.⁷⁶

II. ERRITOKIZUN MAGIKOAK ETA LITURGIKOAK

Zuberoako Pastoralaren ikerketa dela-eta, XX mendearen hasieran bi sostengu historiko-interpretatibo zeuden. Violet Alford britaniarraren ikerlanek eraginda, sostengu bat ingleseraz garatu zen. Urte haietan folklorea-ikerketak kristautasunaren aurreko pentsamendu magikoari zemaian inportantzia bildu zuen sostengu hark. Violet Alford-ek James Frazer eta E. Tylor antropologo eboluzionisten ideiak eta interpretabideak ondo ezagutzen zituen. Baita ere, Europako nekazarien folklorea *in situ* ezagutu zuen, hara hona abiatuz, bertan bertako jai-bestak ikusiz eta elkarrizketak eginez.⁷⁷ Pirinioetan luze ihardun zuen eta, bidaiari ikusitako festivalen adiera jakinarazteko asmoz, James Frazer-en teoriak erabili zituen.

Beste sostengua George Hérelle ikertzaile frantziarrak ekarri zuen. Pastoralaren nondik norakoa ezagutzeko, G. Hérelle-k Europako antzekizun kristauetara jo zuen. George Hérelle irakaslea izan zen eta Pastoralaren ikerketa historiko-dokumentatua jorratu zuen. Europako baserriarrek egiten zituzten bestelako antzerki-moetak ezagutu gero, Pastoralari Erdi Aroko teatru liturgikoaren azken aztarna zela konkluitu zuen G. Hérelle-k. Haren ustez, Pastoralak Frantziako *mystère* izeneko elizdramen oihartzunak zekartzaten. V. Alford-ek zein G. Hérelle-k ikerketa konparatiboan oinarritu zituzten beren idazlanak. Hala egitean, begibistara ekarri zuten Pastoralaren ikerketa europar folk-antzerkiaren esparru zabalean kokatu behar zela. Gainera, bi ikerlariek beste ezaugarri bat nabarmandu zuten: Pastoralari lehenengo errito baten

69. Junes Casenave Harigile, 1978, 13. orrialdean.

70. Arnaud Agueraray-Bordaxar, 1985, 7. orrialdean.

71. Jean-Louis Davant, 1993, 10. orrialdean.

72. Ikus Violet Alford, *Pyrenean Festivals*, Chatto & Windus, Londres, 1937.

73. Ikus G. Hérelle, "Les Problèmes Relatifs aux "Pastorales"", *R.I.E.V.*, 12^a Année, Tome IX, Janvier-Décembre, 1918, Paris-San Sebastien.

74. Ikus Beñat Oyharçabal, "La Pastorale souletine: édition critique de Charlemagne", *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, Donostia, XXII-3 1988, XXIII-1 1989, eta XXIII-2 1989.

75. Ikus Maria Arene Garamendi Azcorra, *El teatro popular vasco: semiótica de la representación*, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, Donostia, 1991.

76. Ikus Marie-Hélène Etxecopar, *Théâtres Basques*, Gatzuzain, Baiona, 2001; Kepa Fdez. de Larrinoa, "Teatro tradicional y dinámica social en el mundo rural", *Intervención y diseños rurales*, K.Fdez. de Larrinoa (ed.), Escuela Universitaria de Trabajo Social, Vitoria, 1996; "La constitución de la comunidad festiva: geografía, danza y celebración" *Fronteras y puentes culturales*, K.Fdez. de Larrinoa (ed.), Pamplona, Iruinea, 1998.

77. Besteak beste, ikus: *Pyrenean Festivals*, Chatto & Windus, Londres, 1937; *The singing of the travels*, Max Parrish, Londres, 1956.

iraupen bitxia zen. Ikus dezagun nola argudiatu zuten arestikoa.

Violet Alford-en eritziz, fertilitatea eta oparotasuna ospatzeko behinola dramatizatzen ziren udaberriko erritoekin zerikusia bazuen Pastoralak. Hala ere, Pastoralak bere aintzineko funtzio kosmologikoa zuen galdua. Hain aspaldian non parte hartzaileak ere ez baitziren aintzineko funtzio hartaz jabetzen. George Hérelle-n ustetan, haatik, Pastoralak Erdi Aroko errito liturgikoei begira ikertu behar zen. Dena den, Pastoralak denboraren iraganaz finkaturiko ekimen berezia aztertu zuen G. Hérelle-k.

Mende-hasierako bi ikuspegiotan Pastoralak lehenengo erritokizun zahar baten azken ondarra zen. V. Alford-en ustez, kristautasunaren aurreko fertilitate-erritoen ondarra zen. Hérelle-en ustez, ordea, Erdi Aroko kristautasunaren errito liturgikoen ondarra zen. Nahiz eta bi azterlariek Pastoralak lehenengo erritokizun zaharren azken ondarra zela pentsatu, nor bere aldetik erabilitako erritokizunozioak ezberdinak izan ziren. Alegia, erritokizunari buruzko nozio bana erabili zuten. Labur hurbil gaitezen nozio hauetara. Has gaitezen Violet Alford-engandik:

To recapitulate then, it seems certain that all along the Pyrenees and on both sides, **pre-Christian rites survived** in forms appropriate to their regions, carrying on the Bear, the Horse, the Two-faced divinity, the Rock Goddess cults, though doubtless in decay, until the coming of the Moors. At their going, the glory of the Reconquista and the immensely strengthened influence of the Church, paradoxically gave new life and a new name to those ancient rites, and partly changed their form. Yet such changes did not interfere with the venerable lower strata, and as Moorish memories fade it is this strata which is again taking first place, in Spain and the Basque countries keeping its ecclesiastical veneer, in France almost wholly secular now (nik belzturiko hitzak).⁷⁸

Alford-ek magia, erlijioa eta zientzia bereiztu zituen bata bestetik, Edward Tylor eta James Frazer-en garapen eboluzionistaren teoria bere gain hartzean. Antropologo eboluzionisten adierazpenaren arabera, magia, erlijioa eta zientzia gogoeta-sistema ezberdinak ziren, magia gogoeta-sistema 'primitiboena' zelarik. V. Alford-ek ezezik, nekazal

gizarteko jai eta ospakizunen ikerlari europear askok bereizketa horretara jo zuten. Berriro Alford-en mintzoa:

again everything points to that something having been the seasonal rite surviving from one end of Europe to the other, which by **magical practices** aimed at the promotion of fertility in field, river, forest and village (nik belzturiko hitzak).⁷⁹

Alford-en ikuspegitik begiratuta, Pastoralak erritokizunak ziren; aintzineko esangura magiko baten oihartzunak zekartzaten erritokizunak, hots. Eraberean, erritoak dramak ziren, zeren eta halako erritokizunetan pentsamolde magikoa dramatizatzen baitzen. Izadiari lotutako pentsamoldea zen magia-sistema hura, haren dramatizazioa bi moduz gauzatzen zela: homeopatiar, erran nahi baita, natura imitatuz; edo kutsaduraz, hau da, natur-elementuak fisikoki hunkituz. Modu batez zein bestez naturaren indarra, legeak eta norabideak erreprezentatzen zituen erritoak. Ondorioz, Pastoralaren zergatiari erantzuna ematekotan, eboluzionismo kulturalaren adierazpenak maileguz hartu zituzten folklorista zenbaitek XX mende-hasieran. Folklorista haien ustez, errito eta drama sinonimoak ziren, eta Pastoralak drama erritual baten azken ondarra zen.

Folk-kulturaren azterlariez gain, XX mende-hasieran bestelako ikerlariak ere zuzendu ziren Pastoralaren zergatiari erantzuna ematera. Lehenago aipaturiko George Hérelle dugu haietako bat. G. Hérelle-k nekazarien antzerki eta literaturaren historiara jo zuen, Pastoralak etorki erlijiosokoa zuela aurkituz. Pastoralaz Hérelle-k egindako azterlanean ere errito eta drama elkarren sinonimoak ziren. Hala ere, errito eta drama berbok, Hérelle-k erabili edo Alford-ek erabili, oso erranahi ezberdina zuten. Erritoaz eta dramaz Hérelle-k bildu zituen nozioak Erdi Aroko teatru erlijiosoaren ikertzaileen-gandik zetozen. Ikus dezagun labur-labur zertan ziren nozio haiek.

Bere garaiko literaturaren historialariengan nagusi zen tesiari jarraiki zitzaion Hérelle. Tesi horren arabera, Europa aldeko nekazarien antzerki-moeta askok elizak aurkeztutako drama liturgikoe-tan zuten etorkia. Pastoralak ez zen salbuespenik:

Le fait certain, c'est que les pastorales basques ressemblent de tout point aux mystères français du XV^e et du XVI^e siècle.⁸⁰

79. Violet Alford, *Ibidem*, pag. 225.

80. G. Hérelle, "Les Problèmes Relatifs aux "Pastorales"", 120. orrialdean, *R.I.E.V.*, 12^e Année, Tome IX, Janvier-Décembre, 1918, Paris-San Sebastien.

78. Violet Alford, *Pyrenean Festivals: calendar, customs, music and magic; drama and dance*, Chatto and Windus, Londres, 1937: 227-228.

Concluons. Le fait indéniable, c'est que les pastorales souletines sont de vrais mystères; que les textes de ces pièces présentent tous les caractères des drames français de ce nom; que la scène sur laquelle on les joue reproduit d'une manière très simplifiée les dispositions de la scène médiévale; que les conventions scéniques, les jeux de scène, l'action et le débit des acteurs rappellent par une infinité de détails ce qui se faisait sur le théâtre du moyen âge; qu'enfin toute la dramaturgie et toute la mise en scène de ce théâtre rural ressemblent extraordinairement à la dramaturgie et à la mise en scène du théâtre rural brainçonnais au XVe et au XVIe siècle.⁸¹

Goiko Erdi Aroko teatruaren historiaren teoriarri errietoak dramak ziren. Bereziki, mezaren eta Elizaren beste zerbitzuen drama erlijiosoak ziren. Alegia, drama kristauak ziren. Beraz, errieto hitzak elizkizuna adierazi nahi zuen. Eraberan, drama hitzak ospakizun liturgikoa esan gura zuen. Areago, drama kristaua mimesis, imitazio, jarraibide zen; hain zuzen ere, Jesukristoren bizitza antz-egitea, bere eredia errepikatzea, bai elizaren liturgia fisikoki eta bisualki antzekotuz, bai saintuen bizitza itxuratuz. Saintuak, noski, Jesukristoren bizitzaren ereduari bete-betean jarraitzeagatik heldu ziren saintu gradura. Horretaz, istorio sakratuak aurkezten zituztelako jotzen zituzten errietoak drama erlijiosoak. Istorio sakratuen errepresentazioak ziren heinean, dramak berak ere sakratu, errietoak ziren. Dirlako istorioen sinesmenean fede kristaua oinarritzen zenez gero, erdiaror Elizaren mundubisioan ospakizun liturgikoa, drama eta errietoa elkarren sinonimoak ziren.

XX mendearan hasieran Pastoralari buruzko ikerkuntzan erabilitako bi eredu akademiko nagusiak aipatu dira honainokoa. Pastoral drama edo errieto magiko pagano baten iraupena zela zioen bat. Drama edo errieto mitiko kristau baten iraupena zela zioen besteak. Bi ereduak *iraupe* hitza nabar-nabarmen agertzen zen. Bi ereduak haxe zuten amankomunean: Pastoral leheneko gizarte-antolakuntza garrantzia handikoa bazen ere, XX mendearan hasierako gizarteetan bazterreko errietoa zen. Alegia, garai modernoan Pastoralak antolatzea gauza bitxia zen, zeren eta testuinguru soziokultural modernoan Pastoralak galduak baitzi-

tuen bere jatorrizko esangura, funtzioa eta zentzua.

Folkloristen jarrera honelakoxea zen: aurreneko esangura mitiko-magikoa galdu ondoren, Pastoral inertziak mantentzen zen. Antzerkiaren historialariek ikuspegi berdintsua zuten: Pastoral inertziak mantentzen zen, behin bere esangura mitiko-kristaua galduz geroztik. Bistan da Pastoralaren historia negatiboki juzgatzen zutela, zeren eta, arestiko eritzien arabera, Pastoralaren historia errieto baten degenerazioa baitzen. Alegia, drama errieto garrantzidun bat gainbeherako bidean zebilen. Halako ikuspegi ezezkoa zen, Pastoral zeren arakatu beharrean, zer ez zen adierazi zuen eta.

Delako ikuskera negatibo hartan pentsamolde eboluzionista eta erromantikoa batzen ziren. Eboluzionismoa eta erromantizismoa elkarrekin nahastean, munduaren historia atzerakoi dela pertzibitzen da. Alegia, sakratutik profanorako gainberaldi luze batek definitzen du gizakien historia soziokulturala. Hasieran portaera erlijioso eta sakratuak zirenak, denbora joateaz 'jolas', 'olgeta' edo 'txostaka' giroko portaerak dira.⁸² Ikuspegi degeneratibori loturiko ikertzaileek diotenez, gainbeheraldia honako urratsak emanda suertatu da: lehendabizi, errietoak paganotik errietoak erlijiosora iragan zen; ondoren, errieto erlijiosotik antzekizun trajikora pasa zen; azkenik, antzekizun trajikotik antzekizunaren beste jeneroetara igaro zen, besteak beste, jokora eta jaira.

Dramaren ikerketan, hiru nozio ezberdinekin topo egiten dugula azpimarratu dute azterlariek: alegia, *komunione* nozioarekin; *errepresentazione* nozioarekin; eta *libertimendu* nozioarekin. Komunione nozioa errieto giroan gorputzen da. Errepresentazione nozioa teatralitate giroan. Eta libertimendu nozioa besta giroan. Maiz elkartzen dira arestiko hiru nozioak jendaurrezko talde-iharduera bat-berean. Baina, ez beti proportzio berdinean. XX mende-hasierako moda edo korronte intelektualek Pastoralaz egindako gogoetan etorkiari sobera begiratu zitzaion. Gainera, Pastoralaren etorkia antigoaleko errieto giroko portaera kokatu zuen. Hala egitean, komunione nozioari lotuta ikertu izan zen Pastoral, teatralitate eta besta giro nozioei lotuta ezaugarri soziokulturalak bazterrean utziz. Ondorioz, orduko ikerlariek arras mugatu zuten beren ikergaiaren adierazpena.

81. G. Hérelle, "Les Problèmes Relatifs aux 'Pastorales'", 138. orrialdean. *R.I.E.V.*, 12^e Année, Tome IX, Janvier-Décembre, 1918. Paris-San Sebastien.

82. Kulturaren dekadentziak honako liburuak kontsulta daitezke: Johan Huizinga, *Homo Ludens*, Alianza, 1972; Harvey Cox, *Las Fiestas de Locos. Ensayo sobre el talante festivo y fantasía*, Taurus, 1983; Jacques Heers, *Las Fiestas de Locos y Carnaval*, Peninsula, 1983. Euskal kulturari aipagarri da Joseba Zulaika, *Bertsalaritzaren Jokoa eta Jolasa*, Primitiva Casa Baroja, 1985.

III. DRAMA ETA ANTZERKIAREN IKERKETA ANTROPOLOGIAN

XX mendeko antropologiaren bilakaerak arestian azaldutako eredu interpretakorrak baztertua gelditzea ekarri du, XX mendeko antropologia-ikerketek errito eta ospakizunei buruz bestelako teoriak plazaratu dituzte-eta. Halaber, dramari buruz bestelako nozioak ere ekarri dituzte. Azkeneko antropologia soziokulturalak erritoen esangura orainaldikoak jakin nahi izan ditu, esangura iraganaldikoak laga utzita. Horretaz, XX mendeko antropologiak era ezberdinetan erabili ditu drama, antzerki eta antzezkizun hitzak, normalki analogia gisa. Gizakiok komunikaziorako dugun gaitasuna nabarmendu nahi izan da folklore-alorreko antzerki berriagoetan.⁸³ Oro har, antropologiak mendebaldeko ez diren gizarteak ikertu ditu. Mendebaldeko ez diren gizarteak egindako ikerketan dramari buruzko nozio ezberdinak agertu dira. Hemengo eztabaidara hiru nozio datoz: drama errituala; folk-drama edo tradiziozko teatrua; eta antzezkizun dramatiko edo drama teatrala.

XX mendeko antropologo askok drama errituala esaera erabili du, honakoa adierazi nahian: drama erritualek kultura primitibo eta estatugabekoe-tako gizabanakoei talde-nortasun, gizarte-kohesio eta ordenu sozialaren zentzazioa dakarkie.⁸⁴ Horretaz, drama errituala iharduera kodifikatua da. Dagokionez, gizarte ez-mendebaldeko drama erritualak jende-portaera apartak dira, non tokian tokiko gizarteak buruzko kontzeptualizazioak dramatizatzen diren. Bestela erritua, errituala kodea da, zeinak gizarte eta kultur ordenuaz mezuak osatzen baititu. Erritualaren parte-hartzaileek aurkeztu edo agertarazi⁸⁵ egiten dute delako ordenua, errituan parte-hartzean hain zuzen ere. Beraz, ordenu liturgiko eta komunikatibo bat egokitzen zaio erritualari.⁸⁶ Bidenabar, drama erritualetan aktore edo jokalariek eta audientzia edo ikusentzulegoaren artean ez dago muga fisikorik ez kontzeptualik. Horrela, gizarte primitiboaren drama errituala funtsezkoa da, zeren erritua direla medio, Rousseau-k mendebaldeko gizarteetarako zeritzon 'itun-agiri soziala' burutzen baita. Itun-agiri izkribuzkorik ez, baizik eta itun-agiri antzeztua.

Beste alde batetik, folk-drama, edo tradiziozko teatrua, gizarte eta kultura estatudunetan agitzen da. Antropologian folk-drama ikertzean, azterlariek azpimarratu dute folk-drama ospakizun, denborapasa, oporraldi, jai eta bestagiroa dela. Alegia, 'kultur-jolas' nozioaren inguruan mugitzen da egungo folk-drama.⁸⁷ Gustora egotea, laketa izatea, plazerra eta atsegina sentitzea gakoenez gero, harreman-sare soziokomunitarioak sortarazteko aukera paregabea bideratzen du folk-dramaren antolakuntzak.⁸⁸ Badago portaera honetan aipagai garrantziduna: antzezkilariak, ikusentzulegoa eta antzerkia elkarrengandik bereizgarriak dira. Hala ere, haien artean lotura sendoa dago, zeren eta tradiziozko drama herri edo eskualde jakin bateko gertakizuna izaten baita. Beraz, aktoreek eta audientziak elkar ezagutzen dute. Gainera, antzeztokia kanpo zabalean kokatzean, joaleen arteko hartu-emanak aisa bideratzen dira.

Areago, errepresentaturiko istorioa edo pasadizioa bertako populazioak jadanik ezaguturikoa ohi da, eta urteroko data finkatuan antzezten da. Gai berriak plantatu ahal izan arren, tokian tokiko kode sinboliko eta kinesiko ezagunak erabiltzen direnez gero, audientziak ez du esfortzu handirik egin behar, istorioaren gorabeherei heltzeko. Ondorioz, maiz portunutzen da antzeztutako istorioa atxakia dela jende-topaketarako, eta harreman soziokomunitarioak zaharberitzeko. Tradiziozko teatrua jende jakin batzuren zeregin berezia da, kultur-parametro deigarriak bete behar ditu-eta.

Antropologoen gizarte eta kultura ez-mendebaldearren teatru profesionalak, dantza-gertakizunak eta samanismo-iharduerak ikertu dituztenean, antzezkizun edo errepresentazio dramatikoak ihardun dute. Esate baterako, Asia-ko antzerki klasiko, folkloriko eta herrikoien ikerketa oso arrakastatsua izan da antropologoen artean. Besteak beste, honakoak miatu dituzte: Japon-go Noh, Kabuki eta Buraku; Indonesia-ko itzalezko antzerki-erak; Tibeteko panpinak; India-ko Sanskrit tradizio teatral ugariak eta Nautanki, Jatra edo Tamasha antzerki herrikoioak; eta amaigabeko zerrenda bat.⁸⁹ Aipatu-

83. Ikus "Analogia tipila: Erving Goffman-en azterbide dramaturgi-koa", Kepa Fdez. de Larrinoa, *Uztaro* 1. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1991; "Jendarte hirigirodunak eta erritokizunaren ikerketa (jaigiroko jokaera soziokulturalen ikerketek ohar teoriko batzui)", Kepa Fdez. de Larrinoa, *Kobie* 6. zenbakia, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992/93.

84. Ikus *Ritual: perspectives and dimensions*, Catherine Bell, Oxford University Press, 1997.

85. Errepresentatu edo eszenifikatu, hots.

86. Ikus Roy A. Rappaport, *Pig for the Ancestors: Ritual in the Ecology of a New Guinea People*, New Haven, Yale University Press, 1968; baita ere, "The Obvious Aspects of Ritual", *Ecology, Meaning and Religion*, Richmond, California, 1979.

87. Ikus Richard M. Dorson (ed.), *Folklore and Folklife*, The University of Chicago Press, 1972; eta Richard Bauman (ed.), *Folklore, Cultural Performances, and Popular Entertainments*, Oxford University Press, 1992.

88. Ikus *From Ritual to Theatre*, Victor Turner, PAJ Publications, New York, 1982; *Aboriginal voices: Amerindian, Inuit and Sami theater*, per Brask eta William Morgan (eds.), The Johns Hopkins University Press, Baltimore, 1992; James Peacock, *Rites of modernization: symbols and social aspects of Indonesian proletarian drama*, University of Chicago Press, 1968.

89. Adibide gisa, ikus: *Masked performance: the play of self and other in ritual and theatre*, John Emigh, University of Pennsylvania Press, 1996; *The Kabuki theatre*, Earle Ernst, University of Hawaii Press, 1974; *The language of Balinese shadow theatre*, Mary Sabina Zurbuchen, Princeton University Press, 1987; *Grounds for play: the Nautanki theatre of North India*, Kathryn Hansen, University of California Press, 1992.

riko teatru asiar horietan diruaren truk, edo osterantzeko ordainaz, baten batek tankeratu edo gidatzen du istorio bat. Normalki, aktoreek portae-rak eta egintzak agertzen dituzte publiko baten aurrean eszenario baten gainetik. Asiako teatru horietan musika, mozorroak, dantzak, gorputz-apainketa eta jantziak arras sinbolikoak ohi dira; erran nahi baita: estetika biziki kodifikatua eta sakonki landua da. Horrela, irudigintzaren eta arte etzenikoen lantze estetikoari garrantzia handiagoo ematen zaio, hitzak elkarrizketan esateari baino. Beraz, testu idatzien edo ahozkoen antzeppenak ezeze, kulturalki kodifikaturiko errepresentazio estetikoak dira halako antzezkizun dramatikoak.

Aurreneko lerroetan ikusi dugunez, antropologian drama hitzarekiko dauden erranahiak ugari dira. Hiru planteamentu agertu dira hemen; drama erritualarena, folk-dramarena, eta antzezkizun dramatikoarena. Drama erritualetan itun-agiri sozialak antzezten dira. Hau da, ordenu soziokulturalak errituetan dramatizatzean, kontzeptu sozial eta kultural orokorrak areago onartu eta sendotzen dira gizarte-kideen artean. Folk-draman ospakizuna, besta eta jaigiroa oinarritzko ezaugarriak dira. Antzezkizun dramatikoaren nozioak mundu artistikora gakartza, partikularzki kodifikazio eta ontze estetiko ez mendebaldearretara.

IV. ANTZEKIZUN DRAMATIKOAK ETA ONTZE ESTETIKO EZ MENDEBALDEARRAK

Antropologiek drama hitza erabili dute, eta delako erabilerara hurbildu gara aurreneko orrialdeetan. Baita ere, alderantzizkoa gertatua da: hau da, teatruko jendeek antropologia hitza erabili dute, edo antropologiaren iker-arlorra zuzendu dira, beren ireazio-lanak osatzeko asmoz. Baina, teatruko ikerketa post-modernoan antropologia hitza erabiltzen denean, zer erranahi du antropologia hitzak? Gizarte primitiboen irudiak behin baino gehiagotan izan zaizkie argialdi mendebaldeko artistei.⁹⁰ Teatru-egilei ere bai.⁹¹ Adibide gisa, irakur ditzagun gaur eguneko antzezgintzara ondoren nabarmenak ekarri dituen pertsona baten berbak:

El teatro balinés nos ha revelado una idea del teatro física y no verbal, donde los

límites del teatro son todo aquello que puede ocurrir en escena, independientemente del texto escrito, mientras que en Occidente, y tal como nosotros lo concebimos, el teatro está íntimamente ligado al texto y limitado por él. Para el teatro occidental la palabra lo es todo, y sin ella no hay posibilidad de expresión; el teatro es una rama de la literatura, una especie de variedad sonora del lenguaje y aun si admitimos una diferencia entre el texto hablado en escena y el texto leído, aun si limitamos el teatro a lo que ocurre ante las réplicas, nunca alcanzamos a separarlo de la idea de texto interpretado.⁹²

Artaud-ek antzertiaz garaturiko kontzeptuak teatrugintza berrizatu nahi zuen. XIX mendeko antzertiar nagusi zitzaizkion melodrama eta denborapasa kutsuak gainditu, eta baztertera bota nahi izan zituen. Xede horretan, *krudelitatearen teatrua* izendatu zuenaz teorizatu zuen. Naturaren indar kosmikoa, ikurren metafisika, zentzazioen magia, talde-mistizismoa, errealtatearen alegia, eta gorputz zein ideien ekzortzismoa zen Artaud-en krudelitearen teatrua.⁹³ Hitz-eza mami-tzat jo zuenez gero, berak proposaturiko teatruan aktore eta audientziaren arteko muga ezabatzen zen; teatrua esperientzia kosmiko-erlijioso arrabihurtu behar zen. Berrito Artaud-en mintzoa:

En un espectáculo como el del teatro balinés hay algo que no tiene ninguna relación con el entretenimiento, esa idea de una diversión artificial e inútil, de pasatiempo nocturno que caracteriza a nuestro teatro. Las obras balinesas se forman en el centro mismo de la materia, en el centro de la vida, en el centro de la realidad. Hay en ellas algo de la cualidad ceremonial de un rito religioso, pues estirpas del espíritu del espectador toda idea de simulación, de imitación irrisoria de la realidad. Esa gesticulación intrincada y minuciosa tiene un objetivo inmediato, que persigue con medios eficaces. Los pensamientos a que apunta, los estados espirituales que procura crear, las soluciones místicas que propone son animados, mostrados, alcanzados sin retrasos ni circunloquios. Todo parece un exorcismo destinado a hacer AFLUIR nuestros demonios.⁹⁴

90. Adibide gisa ikus: *Primitivism and modern art*, Colin Rhodes, Thames and Hudson, Londres, 1994; *The myth of primitivism: perspectives on art*, Susan Hiller (ed.), Routledge, Londres, 1991; *Kandinsky and old Russia: the artist as ethnographer and shaman*, Peg Weiss, Yale University Press, 1995.

91. Ikus: *The intercultural performance reader*, Patrice Pavis (ed.), Routledge, Londres, 1996; *By means of performance: intercultural studies of theatre and ritual*, Richard Schechner eta Willa Appel (eds.), Cambridge University Press, 1990; *The twentieth-century performance reader*, Michael Huxley eta Noel Witts (eds.), Routledge, Londres, 1996.

92. Antonin Artaud, "Teatro Oriental y Teatro Occidental", *El Teatro y su Doble*, 77. orrialdean, Edhasa, 1978.

93. Ikus: Artaud, Martin Esslin, Fontana, 1976; *Artaud and after*, Ronald Hayman, Oxford University Press, 1977.

94. Antonin Artaud, "Del Teatro Balinés", *Ibidem.*, 67. orrialdean.



Xalbador Pastorala Larraine herrian. Andrazko *türkak* eta *kristik* makila eskuan eramanda.

1960. urteen hamarkadan Artaud-en teatruaren eta bestelako teatru esperimentalen eraginpean teatru modernoaren aurkako eritziak eztabaidatu eta ekintza zehatzak eraman ziren aurrera. Antzerkiko pertsona batzu zuzen-zuzenean abiatu ziren antropologiara laguntzaren bila. Eta beren gogoetak izkribatu dituzte. Jerzy Grotowski,⁹⁵ Peter Brook⁹⁶, Eugenio Barba,⁹⁷ eta Richard Schechner⁹⁸ adibide esankorrek dira. Jakin ditzagun labur-labur teatrutik antropologiara pentsalari horiek egindako gogoetak.

Ronald L. Grimes antropologoak Jerzy Grotowski-ren teatrugintza ikertu du. R.L. Grimes-en eritziz, J. Grotowski-ren antzertiak *teatru erritualak* [ritual theater] edo *erritualaren teatruak* dira. Grimes-en hitzetan:

Characteristics of the ritualizing of theater include: an abiding interest in the use of masks, gesture, Asian spirituality, and drama; use of indigenous folk drama and storytelling; an emphasis on the sounds, rather than the discursive qualities, of words; little emphasis on playwrights; heavenly reliance

on the interaction between actors and directors; a tendency to experiment with audience-inclusion in the performance; an eclecticism of form and content; and sometimes a borrowing from popular entertainments, circus, puppetry, mime, and tribal dance.⁹⁹

Grotowski-ren teatrua, eta orohar modernitate-osteko teatrua, teatru esperimental da. Esperimentazio giroa dela-eta, teatru-egile zenbaitek ikergai antropologikoak eskuratu dituzte beren sormen-lanetarako. Hala eginez, antropologiak tradizionalki bere gain hartu izan dituen erritonozioak berenganatu dituzte teatru esperimentalaren egile horiek. Irakur ditzagun Jerzy Grotowski-ren beraren gogoetak:

As soon as my practical awareness became conscious and when experiment led to a method, I was compelled to take a fresh look at the history of theatre in relation to other branches of knowledge, especially psychology and cultural anthropology. A rational review of the problem of myth was called for. Then I clearly saw that myth was both a primeval situation, and a complex model with an independent existence in the psychology of social groups, inspiring group behavior and tendencies.

95. *Towards a Poor Theater*, Holstebro, Denmark: Odin Theater Forlag, 1968.

96. *The Empty Space*, Penguin, 1968.

97. *The Paper Canoe*, Routledge, 1995.

98. *Between Theater and Anthropology*, University of Pennsylvania Press, 1985.

99. Ronald L. Grimes, *Beginnings in Ritual Studies*, University Press of America, 1982. 166. orr.

The theatre, when it was still part of religion, was already theatre: it liberated the spiritual energy of the congregation or tribe by incorporating myth and profaning or rather transcending it. The spectator thus had a renewed awareness of his personal truth in the truth of the myth, and through fright and a sense of the sacred he came to catharsis. It was not by chance that the Middle ages produced the idea of 'sacral parody'.¹⁰⁰

Teatru-jokalarriak bere teknika pertsonalaren bidez teatru-agerraldiak menderatu behar ditu. Arestikoa da, J. Grotowski-k ustez, antzerkiaren betebeharra. Xede horretan, *Teatrotegi Poloniarra* sortu zuen. Teatrotegi hartan aktoreak bere interpretazio-teknikak landu behar zituen, partikularzki gorputz, botz eta izpirituarekiko teknikak.¹⁰¹ J. Grotowski-ren teatrugintzan aktoreak trantzea jo behar zuen-eta, aktorearen hezkuntza gako zen. Horregatik:

I have studied all the major actor-training methods of Europe and beyond. Most important for my purposes are: Dullin's rhythm exercises, Deslarte's investigations of extroverse and introverse reactions, Stanislavski's work on 'physical actions', Meyerhold's bio-mechanical training, Vakhtangov's synthesis. Also particularly stimulating to me are the training techniques of oriental theatre – specifically the Peking Opera, Indian Kathakali, and Japanese No theatre. [...] Ours is not a deductive method of collecting skills. Here everything is concentrated on the 'ripening' of the actor which is expressed by a tension towards the extreme, by a complete stripping down, by the laying bare of one's own intimacy – all this without the least trace of egoism or self-enjoyment. The actor makes a total gift of himself. This is a technique of the 'trance' and of the integration of all the actor's psychic and bodily powers which emerge from the most intimate layers of his being and his instinct, springing forth in a sort of 'translumination'.¹⁰²

Trantze erritualak, Europako erlijio erdiariorra, Asiako drama erlijioso-teatralak, horiek oro ikasi zituen J. Grotowski-k, bere *Poloniar Teatrotegitik*

abiatuta, mendebaldean teatru erritualak bersortarazteko. 1999. eko Urtarrilak 14ean hil zen J. Grotowski. Heriotzaren kariaz, bi egun beranduago Jose Luis Gomezek artikulu bat El País kazetan idatzi zuen. Artikuluan pasadizu bat aipatzen du. J.L. Gomezek Grotowski-rekin teatru-bideak ikasi nahi, eta berarengana jo zuen. J. Grotowski-k Gomezzi esan zion *Poloniar Teatrotegitik* behar bezalako probetxua ateratzeko bi urtetako ihardunaldia behar zela. Hori, gutxienez. *No dispongo de ese tiempo. ¿Qué hago?* izan zen J.L. Gomezen arraspostua, denboraldi luze horretaz ezin baliatuz. Hara non J. Grotowski-ren erantzuna:

Vuelva a su país. Hable su lengua. No haga teatro por un tiempo. Mire las fiestas populares.¹⁰³

Poloniar Teatrotegiko jendeak erritualarekiko zuen jarrera, eta tradiziozko teatru erritualetan parte hartzen duenaren jarrera, ez dira jarrera bat-bera. Alegia, ohizko antzezkizun erritualizatueta partehartzaileak bat egiten dira erritualaren bitartez ezagutarazten den errealtatearekin: hau da, errealtate erritualarekin identifikatu egiten dira erritolarriak. Aldiz, J.Grotowski-ren egitasmo teatrolean teatru-jokalariek errealtate erritualari aurre egiten diote:

One of the results of this is that the Polish Lab Theatre wants confrontation with ritual rather than identification through it. Grotowski uses ritual to attack, and Asia uses it to reassure. He uses force: forcing his audience to 'drop its social mask'. The Asian ritual drama, on the other hand, assumes that the social mask is the face itself.¹⁰⁴

Antropologoek ere ikasi dituzte tradiziozko drama erritualaren eta mendebaldeko antzezkizun esperimentalaren arteko aldeak eta amankomunitasunak, besteak beste Victor Turner-ek.¹⁰⁵ Antropologiazko estudio horien arabera, tradiziozko drama errituala dramaturgia erritoduna da. Berriz, mendebaldeko teatru postmodernoaren erritoduna da. Drama tradizionalen *de factokoa* da erritoduna. Mendebaldeko teatru erritualistiko berrietan, ordea, erritoduna egitasmoa da. Artea da, hots. Beraz, jende-portaera erritodunaren eta erritoguradunaren arteko aldea nabaria da. Iharduera erritualetan bizi, heriozpen eta talde-iraupen zentzazioak berez

100. J. Grotowski, *Towards a poor theatre*, Melthuen, Londres, 1968, 22.-23. orrialdeetan.

101. J. Grotowski, *Towards a poor theatre*, Melthuen, Londres, 1968, 83. orrialdean.

102. J. Grotowski, *Towards a poor theatre*, Melthuen, Londres, 1968, 16. orrialdean.

103. José Luis Gómez, "Una búsqueda irrepetible", *El País*, sábado 16 de Enero de 1999, 27. orrialdean.

104. Donald Richie, "Asian theatre and Grotowski", *The Grotowski sourcebook*, Richard Schechner eta Lisa Wolford (eds.), Routledge, Londres, 1997, 144.-145. orrialdeetan.

sortarazten dituzte. Partaideek hala jakinarazitako errealtatean automatikoki sinesten dutelako, index dira drama erritualak. Iharduera erritualistiko edo erritoguradunak jomugak dira. Metafora-gaiak, alegia. Ikusten denez, bien arteko ezberdintasuna inportantea da. Kasu batean, dramatizazioak *indikatu* egiten die errito-partaidei errito (hau da, natur-kosmologia edo erlijio-moeta) horrek kreaturiko errealtatea *benetazkoa* dela. Mezua literala da. Beste kasuan, dramatizazioak *antzeztu* edo itxuratu egiten du errealtatea. Beraz, erritoak darakusen errealtatea *alegiatzkoa* da, parte hartzaileek sinetsuarena egiten dute-eta.

A. Artaud eta J. Grotowski lez, beste teatru-egile asko ibili dira azken urteetan teatru modernoaren naturalistika, mimetika eta sublimazionetik ihesean. Horretarako, erritualaren munduan murgidu dira, eta antropologia kulturalak ikasitako 'egintza sinboliko'ra eta 'esperientzia' erlijioso, kosmologiko, mitiko edota mistikoetara jo dute. R.L. Grimesek erran duenez, teatruko pertsona horien helmuga ez da gizarte ez-mendebaldearretako erritoen sakralitatea teatru mendebaldearri eranstea, sakralitateari berari eraso egitea baino.¹⁰⁶ Lehen aipatu bezala, gizarte primitiboetako errito baten dramatizazioa sistema kultural baten itun-agiria da. Itun-agiri antzeztua eta sakratua, denok onartua. Aldiz, gizarte mendebaldearreko sinbolo, sinesmen, kontzepzio eta portaera konbentzionalak profanatzea da modernitate-osteko teatru erritualaren xedea. Beraz, kultura primitiboetako erritoei gizarte-kontraesan eta kontrajarrerak izkutatzen dituzte. Alderantziz, gizarte post-modernoaren teatru erritualak kulturaren kontraesanak eta kontrajarrerak astindu eta agerian jarri gura ditu.

Peter Brook-en *El espacio vacío: arte y técnica del teatro* liburuan arestian argudiatuikoaren beste esenplu bat dugu.¹⁰⁷ Brook-en liburu horretan honako bi lerroaldeak aurkitzen ditugu:

Hoy día resulta difícil ver un teatro vital y necesario que no esté en desarmonía con la sociedad, que no desafíe en lugar de celebrar sus valores aceptados.¹⁰⁸

Pero si nuestro lenguaje ha de corresponder a nuestra época, debemos aceptar

que actualmente la tosquedad está más viva y lo sagrado más muerto que en otros tiempos. Antiguamente el teatro pudo comenzar como magia: magia en el festival sagrado, magia al surgir las candilejas. Hoy día es todo lo contrario. Apenas se necesita el teatro y apenas se confía en sus laborantes. Por lo tanto, no cabe suponer que el público se agrupará debota y atentamente. A nosotros nos toca captar su atención y ganar su fe.¹⁰⁹

Peter Brook-ek lau teatru moeta bereiztu ditu: teatru hilkorra, teatru sakratua, teatru latza eta teatru hurbilgoa. Teatru hilkorra teatru txarra da, aspaldian mendebaldeko hiri-gizartean nagusitu izan dena. Merkantziaren balorea hartutako teatrua, hots. *El espacio vacío* liburuaren lehen kapituluaren analizatzen ditu P. Brook-ek teatru hilkorra-aren gorabeherak: besteak beste, teatru-munduko idazle, idazlan, publiko eta kritikoei dagozkienak. P. Brook-en ustez, azalezko artifizioak eta birtuosismoak nagusi dira egun egiten den teatruan. Areago, baita aurreneko mendeetan teatru ona osatzen zuten autore haien antzenpenak ere jotzen ditu delako azalkeriak, antzerkigile sonatu haien obrak orain montatzen direnean.

Peter Brook-en eritziz, teatru isabelinoan dago teatruaren benetazko izpiritua, gaur egun desagertu dena. Zertan zen izpiritu hura? Dakusagun:

Hace cuatrocientos años le fue posible a un dramaturgo presentar en abierto conflicto los acontecimientos del mundo exterior, los procesos internos de los hombres complejos aislados como individuos, la amplitud de sus temores y aspiraciones. El drama era exposición, confrontación, contradicción que llevaba al análisis, al compromiso, al reconocimiento y, finalmente, al despertar del conocimiento.¹¹⁰

Teatrua adierazpen dramatikoa denez gero, adierazpide beregisakoak ditu. Hau da, dramaturgiak badu bere etzema-mintzaia. Oraingo teatruak gero eta eskasago erabiltzen ditu teatruaren beraren mintzaiaren ahalbideak eta, ondorioz, teatruaren kalitatea behe-behean dago. Horretaz:

Si partimos de la premisa de que un escenario es un escenario –no el lugar adecuado para desarrollar una novela, una conferencia, una historia o un poema escenificados-, la palabra dicha en ese

105. Ikus: V. Turner, *From ritual to theatre: the human seriousness of play*. PAJ, New York, 1982; V. Turner, *The anthropology of performance*. PAJ Publications, New York, 1987. Baita ere: W. Morgan eta P. Brask, "Towards a conceptual understanding of the transformation from ritual to theatre", *Anthropologica* 30.zenbakia, 1988.

106. *Beginnings in Ritual Studies*, University Press of America, 1982.

107. Peninsula, 1969.

108. Ibidem: 181, orrialdean.

109. Ibidem: 130. orrialdean.

110. Ibidem: 42. orrialdean.

escenario existe, o deja de existir, sólo en relación con las tensiones que crea en dicho escenario y dentro de las circunstancias determinadas de ese lugar. En otras palabras, aunque el dramaturgo traslada a la obra su propia vida, que se nutre de la vida circundante –un escenario vacío no es una torre de marfil-, la elección que hace y los valores que observa sólo tienen fuerza en proporción a lo que crean en el lenguaje teatral. Ejemplos de esto se dan siempre que un autor, por razones morales o políticas, intenta que su obra sea portadora de algún mensaje. Sea cual sea el valor de dicho mensaje, únicamente surtirá efecto si marcha acorde con los valores propios de la escena.¹¹¹

Teatruak bere izpiritu dramatikoaren indarra berreskura dezan, teatru hurbilgoa jorratzea proposatzen du P. Brook-ek. Teatru hurbilgoak hiru kontzeptu katearazten dizkio elkarri. *répétition*, *représentation* eta *assistance*. Errepetizioa sormena da. Baina, errepika denez gero, dekadentziarako jokaera du. Kontrajarrera hori gainditzeko errepresentazioa dago. Errepresentazioa jokatzeko da. Alegia, ekintza eta berrikuntza. Hala ere, berrikuntza osorik gauza dadin lagungoaren beharrean dago errepetizioa, erran nahi baita, *assistance* behar du. Publikoa, hots, Teatru hurbilgoaren katea honela itxi arazi du P. Brook-ek:

Con esa asistencia, la de ojos, deseos, goce y concentración, la repetición se convierte en representación.¹¹²

El espacio vacío liburuan badago tesi bat: teatru hurbilgoaren funtsa teatru sakratuaren eta teatru latzaren sintesian dago, alegia. Benetazko teatruak egitura latz-sakratua behar du.¹¹³ Bigarren kapituluaren garatzen du Peter Brook-ek teatru sakratuaren izana, honelaxe dioelarik: ikustezinezkoa ikusgai dakarrena da teatru sakratua.¹¹⁴ Teatru sakratuan konpartitzea gako da. Horretaz, teatru suerte horrek baditu gain-gaineko bi ezaugarri: gorespina eta isiltasuna, zeinak konpartituriko bizi esperientzia moeta baitira.¹¹⁵ Gizarte burgesaren baloreek teatru sakratuaren funtsari bizkar eman diotelako,¹¹⁶ gaurko antzerkigileak teatru sakratuaren bila abiatu beharrean daude. Xede horretan, estrategia batzuri heldu diete antzerkigileek,

hala nola: hitzik gabeko lengoiaekin jolasteari; isiltasunarekin esperimintatzeari; eta erritoekin iharduteari, partikularzki ekintza-ereduen erreplikatzeari. Arestiko estrategien zergatia aipaturik dago jada: ikustezinezkoa ikusgai agertaraztea.¹¹⁷

Teatru sakratuaren bila dabilzan esperimintazioen adibide zenbait ematen ditu Peter Brook-ek: bata, Merce Cunningham da, norik dantzaren bidez sakratua jo nahi duen; beste bat, Samuel Beckett, iluntasuna dela medio argitasuna azaldu nahi duena; hirugarren enpleua Jerzy Grotowski da –dagoeneko hemen aipatua-, bertan parte hartu nahi duenarentzako zeremonialak osatzen dituena; laugarrena, *Living Theatre* konpainia da, zeinaren kideek jende-komunitate nomada bat osatu baitute, honakoxe jomuga buruan edukita, interpretatzearen bidez elkarkide sentitzea; azkenaren adibidea, *vudu* haitiarren ospakizunena da, non, jaingokoarekin eta munduko misterioekin buruz buru jartzeko, beharrezko elementuak ximple-ximpleak baitira. *Vudu* ospakizuna aurrera eramateko, jendetalde bat elkargune batetan bildu eta hantxe esola bat ezartzea dira behar diren elementuak.¹¹⁸

Teatru latza da teatru hurbilgoaren beste osagaia. Peter Brook-ek idatzi duenez, teatru latzak baditu bere azala eta sakona, erran nahi baita, kanpoko jantzia eta barrengo asmoa.¹¹⁹ Lehenengoz, herrikoia izatea da teatru latzaren kanpoko ezaugarria. Alegia, kanpoko azalari begiratzeko gero, lagarritasuna da teatru herrikoia ezaugarriak garrantzidunena.¹²⁰ Bigarrenez, audientziaren barreak sortarazi, eta irria dela medio, audientziak gizakien ekintzez gogoeta egin dezala du teatru latzak xedetzat. Beraz, teatru herrikoian dago teatru latzaren abiapuntua.

Teatru latza populuaren gertu izateaz gain, iraultzailea da, zeren eta, teatru-jolearen eta teatru-jokalariaren arteko komunztadura erdiesteko, eskura duen guztiaz baliatzen baita teatru latza. Eskuragarri duen guztiaz baliatzean, teatru latza sormen nahiz gizarte arma bezalakatzen da sarri.¹²¹ Inguruan dagoen guztiaz baliatzearen ezaugarri horrek badu ondorengo berezia: estilobatasunik eza, alegia. Bestela erranik, inkongruentziaz beterik dago teatru latza. Hala ere, onartu ezezik, maite egiten ditu teatru latzaren publikoak inkongruentzia horiek:

111. *Ibidem*: 45. orrialdean.

112. *Ibidem*: 118-119 orrialdeetan.

113. *Ibidem*: 120. orrialdean.

114. *Ibidem*: 51. orrialdean.

115. *Ibidem*: 58. orrialdean.

116. *Ibidem*: 60. orrialdean.

117. *Ibidem*: 65. orrialdean.

118. *Ibidem*: 73-83 orrialdeetan.

119. *Ibidem*: 91. orrialdean.

120. *Ibidem*: 85. orrialdean.

121. *Ibidem*: 87. orrialdean.

El teatro tosco no escoge ni selecciona: si el público está inquieto, resulta más importante improvisar un *gag* que intentar mantener la unidad estilística de la escena. En el lujo del teatro de la clase alta todo puede ser de una pieza; en el teatro tosco el aporreo de un cubo puede servir de llamada para la batalla, la harina en el rostro sirve para mostrar la palidez del miedo. El arsenal es ilimitado; los apartes, los letreros, las referencias tópicas, los chistes locales, la utilización de cualquier imprevisto, las canciones, los bailes, el ruido, el aprovechamiento de los contrastes, la taquigrafía de la exageración, las narices postizas, los tipos genéricos, las barrigas de relleno. El teatro popular, liberado de la unidad de estilo, habla en realidad un lenguaje muy estilístico: por lo general, el público popular no tiene dificultad en aceptar incongruencias de flexión o de vestimenta, o en precipitarse del mimo al diálogo, del realismo a la sugestión. Sigue el hilo de la historia, sin saber que se han infringido una serie de normas.¹²²

Jerzy Grotowski-k bezala, Peter Brook-ek inportantzia handia ematen dio herrikotasunari:

Sin embargo, a partir de la época clásica se ha considerado 'legítimo' el teatro importante, mientras que se ha tenido como menos serio el teatro tosco. No obstante, todo intento de revitalizar el teatro ha tenido que volver a la fuente popular. Meyerhold apuntó muy alto, quiso llenar de vida el escenario, tuvo por maestro reverenciado a Stanislavsky, por amigo a Chejov, pero a la hora de la verdad buscó inspiración en el circo y en el *music-hall*. Brecht estaba enraizado en el cabaret, Joan Littlewood tiene la vista puesta en las ferias de atracciones, Cocteau, Artaud, Vakhtangov, los más improbables compañeros de camino, todos estos espíritus selectos han vuelto al pueblo, y el teatro total es la mezcla de dichos ingredientes.¹²³

Peter Brook-ek ez du dudarik: alaitasuna eta algara dira teatru latzaren osagai nagusiak. Arago, teatru latzari dagokion irribarrak indar berezia dakar taulagáineko mundura, zeren eta indar hori militantea baita. Alegia, gizakien ekintzaz ardurtzean gizarte idealak hedatzen ditu teatru latzak.¹²⁴ Hauexek dira P. Brook-en hitzak:

Vemos aquí el doble aspecto de lo tosco: si lo sagrado es el anhelo por lo invisible a través de sus encarnaciones visibles, lo tosco es también una dinámica puñalada a un cierto ideal. Ambos teatros alimentan en sus respectivos públicos profundas y auténticas aspiraciones, tanto uno como otro abren infinitos recursos de energía, de diferentes energías, pero ambos acaban por delimitar zonas en las cuales no se admiten ciertas cosas. Apparentemente, el teatro tosco carece de estilo, de convenciones, de limitaciones, pero en la práctica tiene las tres cosas. Al igual que en la vida el uso de trajes viejos puede comenzar como una actitud de desafío y convertirse en una postura, lo tosco también puede pasar a ser un fin en sí mismo. El hombre desafiante del teatro popular puede llegar tan a ras de tierra que impida el vuelo de su propio material. Cabe incluso que rechace el vuelo como posibilidad, o el cielo como lugar apropiado para el vagabundeo. Esto nos lleva al punto donde ambas formas de teatro muestran su verdadero antagonismo. El teatro sagrado se ocupa de lo invisible, y éste contiene todos los ocultos impulsos del hombre. El teatro tosco se ocupa de las acciones humanas, y debido a que es directo y toca con los pies en tierra, debido a que admite la risa y lo licencioso, este tipo de teatro al alcance de la mano parece mejor que el sacro.¹²⁵

Aipatua dugu energia militantea dela teatru latzari dagokion energia. Teatru latzaren ezaugarri horren gáinean ere gogoeta egin du Peter Brook-ek. Honela idatzi du:

La despreocupación y la energía lo alimentan [teatru latza], pero es esa misma energía la que también produce rebelión y oposición. Se trata de una energía militante: la de la cólera y, a veces, la del odio. La energía creadora que existe tras la riqueza inventiva de la versión de *Los días de la Comuna* realizada por el Berliner Ensemble es la misma que guarnece las barricadas; la energía de *Arturo Ui* es capaz de llevar directamente a la guerra. El deseo de cambiar la sociedad, de obligarla a enfrentarse con sus eternas hipocresías, es una poderosa fuerza motriz. Figaro, Falstaff o Tartuffe satirizan y revelan la realidad median-

122. Ibidem: 87-88. orrialdeetan.

123. Ibidem: 89-90. orrialdeetan.

124. Ibidem: 92. orrialdean.

125. Ibidem: 94. orrialdean.

te la risa, y el propósito del autor es lograr un cambio social.¹²⁶

Teatru latzaren energia militante horren zertan datzan jakin dezagun, hiru adibide ezarri ditu P. Brook-ek. Lehenengoa, teatruaren praktikara Bertolt Brecht-ek buruturiko kontzeptu berria: alienazioaren teatrua. Bigarrena, Estatu Batuetako irudi herrikoiez Txinan egindako satirizazioa. Eta hirugarrena, Amerika Latinoan katolizismoaren, indigenismoaren eta langilego iraultzailearen mundubisi-oiak, berauek jendeen agerpen kulturaletan elkarrekin batzen direnean, ekarri dituzten energia desmistifikadoreak.¹²⁷ Hala ere, Peter Brook-ek bere liburuan deus gutxi adierazi du Txinako teatru militanteaz. Teatru hori bete-betean indartsu eta esankorra dela baino ez dio.¹²⁸ Gehixeago arduratu da Amerika Latinoaren esperientziak, non P. Brook-ek ikusi baitu badela herri-ospakizun kristaue- tan egiazko teatrua gauzatzeko bide paregabea:

En muchos países sudamericanos, donde la única actividad teatral consiste en pobres imitaciones de éxitos extranjeros, que presentan improvisados empresarios y por una sola sesión, el teatro únicamente comienza a encontrar su significado y su necesidad cuando está en relación con la lucha revolucionaria, por una parte, y con los centelleos de una tradición popular sugerida por los cantos de los trabajadores y las leyendas campesinas, por la otra. En realidad, una expresión de los actuales temas militantes a través de las tradicionales estructuras católicas de los dramas alegóricos pudiera ser, en ciertas regiones, la única posibilidad de establecer un contacto vivo con el público popular.¹²⁹

Askoz luzeagoa egin du Peter Brook-ek B. Brecht-en alienazio teatruari buruzko gogoeta. Hiru ideia dira nagusi Bertolt Brecht-ek proposaturiko teatruan. Hauexek dira ideia horiek. Lehenengoa, teatruak ez du inola ere zerbitzen duen gizartea bazterreratu behar.¹³⁰ Bigarrena, audientziak audientzia hori bizi deneko gizartea hobeto endele- ga dezan behar da teatrua izan. Ondorioz, teatru-aren bidez publikoak ikasten du bizi deneko gizarte hori nola eta nondik nora kanbiaraz.¹³¹ Azkenik, komunitate-jende batek teatru moeta berezi bat

denboran zehar iraunarazi badu, komunitate-jende horrekin bizi den teatru-jokalariak konpromiso bikoitza azaldu behar du. Alde batetik, bere burua- rekiko konpromisoa. Alegia, praktikatzen duen ofi- zio apartarekiko konpromisoa. Eta beste alde bate- tik, teatrutik kapo dagoen munduarekiko konpro- misoa.¹³²

Aurreneko lerroetan laburbilduriko argudioek badute helburua, zeren eta Peter Brook-ek ondo- rioak finkatu nahi baititu. P. Brook-ek teatru berri baten premia aldarrikatu du. Delako teatrua zen- bait behar betetzekoa da, hala nola: ikustezina ikusgai agertaraztea; algararen poderioa eskura- tzea; eta gizarteko zein gizabanakoen tentsioak dramatikoki lantzea. Horrelakoa Shakespeare-ren- gantzea litzateke. Hots, sakratuaren eta lazgarrita- sunaren arteko kontrastea taulagainean berriro kokatzea.¹³³

Peter Brook ez da teatruaren teoriko bat beste- rik gabe izan. Teatru obrak ondu ditu, non eta berak ausnarturiko ideia teatralak taulagainean ezarri bai- titu. Xede horretan, lengoia unibertsal baten bila abiatua da P. Brook, teatru-lengoia unibertsal baten bila, hots. Horretarako, esperimentazioak egin ditu. Esate baterako, denboraldi batez umeen aurrean bakarrik jokatu zuen, zeren eta P. Brook-ek orduan pentsatzen baitzuen haurrek teatruari buruz- ko aurreritirik ez zutela. Eraberan, hizkuntza berri bat asmatu zuen, eleetan baino, doinueta oinarri- tu zuena. Halaber, Persia zein Afrikako herri txikie- tara jo zuen bere jokalaria-konpainiarekin batera, mendebaldekoak ez diren kultura baseritarren ai- tzinean bakarrik teatruan ari izateko. Azkenik, Cali- forniako *teatro campesino*an eta Estatu Batuetako indioen teatru natiboan ziharduten pertsonekin lan- saioak egin zituen. Jakina, arestiko esperimenta- zioetarako arrazoiak bazuen Peter Brook-ek. Alegia, mendebaldeko teatruaren kodeak ezagutzen ez dituen audientziarekin esperimentatzea zuen P. Bro- ok-ek asmotzat. Hala eginez, munduko jende guz- tientzako drama-tankera endelegarririk badenez jakin nahi zuen.¹³⁴ Harrigarria izan da noraino heldu den Peter Brook halako jarreraz baliatzean:

In 1975, Brook produced a ninety-minute show adapted by Jean-Claude Carrière, Colin Higgins and Denis Cannan from Colin Turnbull's book, *The Mountain People*. Turnbull was an anthropologist who had gone in 1964 to study a northern Ugandan tribe, the Ik. They had been hunters until

126. Ibidem: 93. orrialdean.

127. Ibidem: 94-114. orrialdeetan.

128. Ibidem: 111. orrialdean.

129. Ibidem: 111. orrialdean.

130. Ibidem: 95. orrialdean.

131. Ibidem: 96. orrialdean.

132. Ibidem: 101. orrialdean.

133. Ibidem: 114. orrialdean.

134. Ikus Albert Hunt eta Geoffrey Reeves, *Peter Brook*, Cambrid- ge University Press, 1995, 154-190. orrialdeetan.

1946 when the government had taken over their land and turned it into a National Park. They were forced to live as farmers in barren mountains. Turnbull found that the shock of relocation, coupled with drought and famine, had brought about a complete desintegration of social and family structures. He called them 'ruined pieces of nature'.

[...]

The Ik were played by actors who had been on the African journey. Brook claimed that through that experience they had come to 'sense the emotions underlying unfamiliar gestures. Even the way people carried objects around had a meaning'. The external physical manifestations were copied rigorously so that each actor could uncover his own Ik-ness and thereby understand the inner stay of the tribe.¹³⁵

Brook-en teatruaren gainean arestian laburbi-
duak erakusten du noraino hurbildu diren antzerki-
gileak antropologoaren langaietara. P. Brook-en tea-
tru-saiakeraz anitz jakitun mintzatu da, denetariko
eritziak zabaldu direlarik. Hona New York-eko teatru
kritikari Robert Brustein-ek idatzi zuena:

Brook is trying to make a point about the international roots of primitive theatre; I don't think he has proved it yet. But the effort, if not the result, compels respect, and it brings the theatre just a little closer to the serious purpose for which it was first conceived.¹³⁶

Antzerkigintzatik antropologiarako bidea dela-
eta, Eugenio Barba dugu aipatu beharreko beste
erreferentzia bat. 1979. urtean *International Scho-
ol of Theatre Anthropology* izeneko teatrugunea
sortu zuenez geroztik, iharduera teatralaz baliatu
izanaz gain, izkribuetan ere jarri ditu E. Barba
berak jorraturiko teatru antropologia horren gora-
beherak.¹³⁷ Eugenio Barbaren proposapena eta
Peter Brook-en proposapena ez dira proposapen
berdinak. Lehenago adierazi bezala, P. Brook-ek
teatruaren ezaugarri latz-sakratua jorratu nahi izan
du. Peter Brook-ek zein Eugenio Barba kultura
ezberdinetakoa antzezleriak bildu eta moldatu dituz-
te. Hala ere, nork bere bidea landu du antzezleriaren
prestakuntzan. Alegia, P. Brook-ek audientziaren

erantzunari garrantzia handia eman dio. Arrazoi
horregatik izan da Peter Brook Persian, Afrikan eta
natiboen Ameriketara. P. Brook-en esperimendua,
beraz, honakoan etzan da: kultur ezberdinetakoa
audientzien aurrean aktoreek teatrua jokatu-
ko balezate, teatru-lengoaia unibertsal bati hel lekiz-
kio aktore horiek.

Kultura ezberdinetakoa audientziengandik teatru
egiten ikastea baino, kultura ezberdinetakoa antzez-
leriaren gorputz-mugimenduak ikertzetik abiatuta tea-
tru egitea izan du Eugenio Barba ibilbide. Hots,
kultura ezberdinetakoa antzezlearen higimenduak eta
keinuak analizatu, eta analisi horretan oinarrituta
teatrugintzari eustea izan da Eugenio Barbaren
proposapena. Halako proposamenari 'teatruaren
antropologia' [*theater anthropology; antropología
teatral*] izena eman dio.¹³⁸ Peter Brook-ek lez,
Eugenio Barba teatruaren ezaugarri unibertsalen
bila ihardun du. E. Barba, ordea, teatru-tankera
ez-mendebaldeko jokalariren gorputz-mugimenduak
miatu ditu; partikularzki, Asiako teatru-tankera erri-
tualizatuen partaideenak.

Beraz, antropologo askok bezala, kulturaren
printzipio unibertsalen txerka erautsi du Eugenio
Barba. Horretarako, teatru-tankera ezberdinak
ikertzeraz jo du. Zehatzago: teatru-jokalariren gor-
putz-portaerak eta espresio-teknika kodifikatuak
behatu ditu. Horra hor Eugenio Barbaren berba:

La antropología teatral es el estudio del comportamiento biológico y cultural del hombre en una situación de representación, es decir del hombre que utiliza su presencia física y mental según principios distintos a los de la vida cotidiana.

Esa utilización particular, extra-cotidiana, del cuerpo en el teatro, es lo que se llama técnica.

Unos principios concretos determinan la técnica del actor, esta utilización particular del cuerpo. Aplicados a algunos factores fisiológicos (peso, equilibrio, postura, desplazamiento del peso-equilibrio, oposición entre la gravedad y la columna vertebral, dirección de los ojos) estos principios determinan tensiones orgánicas *pre-expresivas*. Esas nuevas tensiones, este nuevo tono muscular estimulan un cambio de cualidades de nuestras energías, hacen nuestro cuerpo decidido, "vivo", manifiestan su *bios* escénico atrayendo la atención

135. Hunt eta Reeves, *Ibidem*: 203-204. orrialdeetan.

136. Hunt eta Reeves-en liburuan aipatua. *Ibidem*: 210. orrialdean.

137. Ikus: *Beyond the floating islands*, Performing Arts Journal Publications, New York, 1986; *The secret art of the performer: a dictionary of theatre anthropology*, Routledge, Londres, 1991; *The paper canoe: a guide to theatre anthropology*, Routledge, Londres, 1995.

138. *Anatomía del actor: un diccionario de antropología teatral*, Eugenio Barba eta Nicola Savarese, Universidad Veracruzana, Mexiko, 1988.

del espectador mucho antes de introducir la expresión personal.¹³⁹

Orduan, teatruaren antropologia honakoa da: lehenbizi, kultura desberdinetako aktoreen gorputz-portaeren eta energia aurre-espresiboen ikasketa; eta ondoren, tradiziozko teatruan ikerturiko energia eta portaera horiek sormen teatralerari erabili:

La tradición del teatro occidental siempre ha preferido las teorías y las utopías rechazando una auténtica aproximación empírica al fenómeno del actor. En ISTA [*International School of Theatre Anthropology*] se concentra en este "territorio empírico", siguiendo una perspectiva interdisciplinaria y transcultural. Del equipo del ISTA forman parte no sólo biólogos, psicólogos, psico-lingüistas, simiólogos, antropólogos, sino también y sobre todo maestros y actores de diferentes culturas y tradiciones teatrales. Para comprender los secretos de la técnica que hay que poseer para poderla superar.¹⁴⁰

Bistan da teatruaren ezaugarri biologikoetan oinarritzen dela Eugenio Barbaren proposamena. Abiapuntua bera biokulturala da: soziokulturaliki begiratuta, gorputz-teknikak diferenteak dira munduko antzerkietan; gorputz-teknikak han eta hemen gauzatze fisikoari begira jarriz gero, ordea, amankomuneko printzipio biomotrizak antzeman ahal dira. Zein dira printzipio horiek? Bata, eguneroko ihardueran gorputz-mugimenduek badute grabitate-gune bat. Hala ere, antzerkietako mugimenduek badute beste grabitate-gune bat. Ondorioz, egoeraren arabera gorputzaren grabitate-gunea aldatzen dela da lehenbiziko printzipioa. Bigarrena, grabitate-gunea lekuz ganbiatzearekin batera gorputz-energia modu ezberdinez bideratzen da, erran nahia baita, muskuluen tentsioa mugimendu berriari egokitu behar zaiola. Azkenik, mugimenduetan berriari egokitzeak gorputzaren pisua gisa berezi batez karga dadila ekartzen du. Arestiko printzipio horiek tradiziozko teatruetan nola burutzen diren da teatruaren antropologiaren lehen-leheneneko urratsak.¹⁴¹

Teatruaren antropologia, orduan, transkulturaliki teatru-jokalarien mugimendu kodifikatuak anali-

139. Eugenio Barba, *Anatomía del actor: un diccionario de antropología teatral*, *Ibidem*: 7. orrialdean.

140. Eugenio Barba, *Ibidem*: 7. orrialdean.

141. Ikus Ian Watson "Eugenio Barba's theatre anthropology: an intercultural methodology", *The intercultural performer reader*, P. Davis (ed.), Routledge, Londres, 227. orrialdean.

zatzea da, bereziki mugimendu berezien tentsioa nongo muskuluek kargatzen duten ikertuz. Hala ere, analisiaren helburua ez da ikerketa egite bera. Alegia, kultura ezberdinetako aktoreek nola jokatzeko duten teorizatzea ez du Eugenio Barbak xedetzat jotzen. Eugenio Barbak zientzia idatziaz haratago joan nahi du, zeren eta berak egindako ikerketa dela medio Europako sorkuntza teatralari eragin nahi dio, nahiz eta, egon ere, oztupoak badauden:

Se nos podría preguntar si individualizar el nivel pre-expresivo del arte del actor no nos distancia de los verdaderos problemas del actor occidental. ¿Quizás el nivel pre-expresivo sea solamente verificable en una cultura teatral altamente codificada? ¿Quizás la tradición europea se caracterice por una falta de codificación y por la búsqueda de una expresividad individual? Son preguntas absorbentes que en lugar de respuestas inmediatas nos invitan a hacer una pausa.¹⁴²

V. PASTORALAREN IKERKETA DRAMATIKOA

Kapitulu honetan dramari eta erritualari buruzko zenbait nozio azaldu dira. Horretarako, bi bide hartu ditugu. Bata, erritotik antzekizunerakoa. Bestea, antzekizunetik erritorakoa. Orain, azken itauna heldu da: non kokatu behar dugu Zuberoako Pastoralaren ikerketa? Eboluzionismo antropologikoak, literaturaren historiak eta filologiak egindako azterlanek ez dute balio gaur egungo Pastoralak zertan diren jakiteko. Eboluziozaleak Europako errito paganoen bila dabilta, oso interpretabide espekulatiboak erabiliz. Literaturaren historiara joz gero, Erdi Aroko teatru liturgiko edo erligiosoarekiko antz formalak aisa nabarmentzen dira. Hala ere, egungo Pastoralak teatru profanoa da. Filologoek hizkuntza idatziarekiko gorabeherak aztertu dituzte, hala nola: eskuizkribuen grafiak, autoregoa, data eta kokapena. Baina, Paul Zumthor-ek aldarrikatu duenez, hizkiek badituzte beren boza eta mugimendua. Alegia, beren beregisako bizitza eta abiadura, filologoek biltzen ez dituztenak. Horretaz:

Nunca hasta ahora se ha tratado de interpretar la oralidad de la poesía medieval. Nos hemos conformado con constatar su existencia. Ahora bien, lo mismo que un esqueleto fósil, una vez descubierto, debe ser despojado de los sedimentos que lo rodean, de igual manera debe

142. Eugenio Barba, *Ibidem*: 25. orrialdean.

hacerse con la poesía medieval, sacándola del tardío entorno en que la existencia de los manuscritos la ha permitido subsistir; fue en ese ambiente donde se formó el prejuicio que hacía de la escritura la forma dominante –hegemónica– del lenguaje. Los métodos elaborados bajo la influencia de este prejuicio (de hecho, toda la filología del siglo XIX, y todavía del nuestro en cierta medida) no sólo tienen poco en cuenta sus límites de validez, sino que incluso, cuesta trabajo determinar, dentro de la profundidad cronológica, la distancia precisa desde la cual considerar su objeto. Investigaciones y reflexiones sobre el carácter oral del cantar de gesta (tomo este ejemplo) han dado como resultado hasta el momento que se tambalean un poco las convicciones arraigadas, que se atenúe el alcance de varios términos y que se difunda un reducido número de dudas comunes. No nos han aportado seguridad, certeza. Pero, precisamente, no se trata de una certeza. Se trata de nuestro modo de percepción, y, más aún, de nuestra voluntad de apertura, que implica una integración, en la lectura de nuestros viejos textos, de una especie de imaginación crítica. Desde este punto de vista, poca importancia tiene el cantar de gesta como tal. Es un fenómeno general que conviene tener en cuenta, sin llegar a la materialidad de un determinado género: el fenómeno de la voz humana, dimensión del texto poético, determinada a la vez por los planos físico, psíquico y sociocultural.¹⁴³

Pastoralean gauza asko elkartzen dira: besteak beste, kode sinboliko-kognitiboak, ardura estetikoak, portaera politikoak, jaigiroa, erritualizazioa eta ospakizun-sistema. Ikusten denez, Pastoralak ikergai zabala da. Gorputz-mugimenduak, moorroak, komunikazio ez-berbala, egintza sinbolikoak eta sozialak aztertzen iaioak dira antropologoak. Arrazoiak hauxe da: antzerki erritualizatuak arakatu dituzten antropologoek testuen etzefifikazioak ikertu dituzte, testu idatziak baino. Alegia, testuarekiko estetika osoa.¹⁴⁴ Hori dela

eta, antropologoak¹⁴⁵ eta antzerkigileak¹⁴⁶ 'performantza' [antzezkizuna] nozio berezi bat garatzen ari dira.

Dudarik gabe, lantze teoriko eta bide berri horiek kontutan hartzekoak dira Pastoralaren azterketan. Adibide gisa, gogora dezagun Hegoaldeko antzerki-talde batzuk Zuberoako antzerki herrikoia ikertu dutela euren montaiak teatralak egiteko. Halaber, Zuberoan bertan ere gero eta ikusgarri teatral berri gehiago sortzen ari dira, non, inspirazio bila, maiz so egiten baitzaie Pastoralari eta Maskaradari. Eraberean, Berlingo antzerkigile batek Santa Engraziko Pastoralaren errepertorioak eta taulagaineak emanaldiak ikertu zituen. Beraz, Pastoralaren folk-jeneroak baliatu dira teatruaren beste jeneroak landu ohi dituztenak.

Beste alde batetik ikusita, Pastoralak jokatzeko eskatzen dituen mugimenduak eta keinuak oso kodifikatuta daudela hor dago. Esate baterako: turkek, kristauek, aingeruak eta elizako gizonak ez dituzte beren gorputzak berdin higiarazten taulagainean; makila eramanez gero, talde bakoitzak makilari nola euts alde aurretik taxututa dago. Eta galdera datorkigu: zein da Zuberoako Pastoralaren aurre-espresibitatea? Arestikoaz gain, Pastoralen idazle, errejenta eta antolatzaile zenbaitek Zuberoako komunitate soziokulturalarekiko konpromisotzat hartzen dute beren lana. Beraz, ikerketa antropologikoaren premian dago Pastoralak. Hala ere, badira bi arazo: bata, antropologoak heldu berriak dira Pastoralaren mundura; bestea, antropologoak etorri berriak dira antzerkilaritzara. Beraz, teatru zaharra izanik ere, egun Pastoralaren etnografiak egiteko dirau.

Zuberoako teatru erritualaren etnografia berria egiten hasteko, Richard Schechner-ek behin proposatu zuena aurrera eramatea ona litzateke. Zera proposatu zuen Richard Schechner-ek: kultura ezberdinetako antzezkizunak elkarri begira ezarri, eta modu konparatibo batez aztertzea, honako iker-esparruak bereiztuz: zerk egin arazi du antzezkizun bat sinesgarri eta egiazko bertako kulturaren

143. Paul Zumthor, *La letra y la voz de la "literatura" medieval*, Cátedra, 1989, 20. orrialdean. Ikus, baita ere, *Sardonic smile: non-verbal behavior in Homeric epic*, Donald Lateiner, The University of Michigan Press, 1995.

144. Ikus, "Antzezkizunaren antropologia: erritualak, sinbolismoa eta metafora", *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Plinioetako haran batetan*, Kepa Fdez. de Larrinoa, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993: 99-108. orrialdeetan.

145. Ikus jadanik aipaturiko idazlanok: Victor Turner-en *The anthropology of performance* eta *From ritual to theatre*; Ronald L. Grimes-en *Beginnings in ritual studies* eta *Symbol and conquest: public ritual and drama in Santa Fe, Mexico*; James Peacock-en *Rites of modernization: symbols and social aspects of Indonesian proletarian drama*; Per Brask-en eta William Morgan-en *Aboriginal voices: Amerindian, Inuit and Sami Theater*; Johannes Fabian-en *Power and performance: ethnographic explorations through proverbial wisdom and theater in Shaba, Zaire*, The University of Wisconsin Press, 1990.

146. Ikus: Michael Huxley-ren eta Noel Witts-en *The twentieth-century performance reader*; Patrice Pavis-en *The intercultural performance reader*; Marvin Carlson-en *Performance: a critical introduction*; Maria Shevtsova-en "The sociology of theatre", Part I, II, III, *New Theatre Quarterly*, 17., 18. eta 19. zenbakietan.



Pastoralaren jokolariek makilak modu ezberdinez erabiltzen dituzte, turkoak ala kristauak diren arabera.

audientziaren eta antzezleen aurreran? nolakoa da jokalariaren eta jokatuaren arteko aldea? nolako bidean ibiltzen da teatru erritualaren jokalaria bere burua transformatzeko? norena da antzez-egazutza? nola erakusten da? nola iragaten da belaunaldiz belaunaldi edo aktorez aktore? nolakoa da audientziaren eta antzezleriaren arteko komunikazioa? zeren bitartez ebaluatzen du publikoak antzezleen lana? noiz eta nola agertzen dira antzez-kizunaren barruan tentsio eta atsedeen dramatikoa?¹⁴⁷ Arestiko galderei erantzuna emanda, Pastoralarekiko ezagutza teatrala azalduko zaigu.

BESTAGIROA ETA NORTASUN SOZIALA

I. SARRERA

Azterlari soziokulturalari Pastoralaren barne-mundua izugarri aberatsa zaio, ikasgaiak franko dira-eta. Batzu aipatuta daude, honez gero. Esate baterako, Pastoralaren baserri giroko gizartean agerpen kultural beregisakoa izan ezeze, irudi historiko-kulturalak errepresentatzen ditu. Jakina, testuinguru erruralean kultura eta historiari buruzko interpretabideak nolakoak diren aztergai dute antropologo kulturalak.¹⁴⁸ Halako testuinguru erruralean 'eskolatuek' gidatu dute Pastoralgintza. Alegia, tokiko kultur-eliteek Pastoralaren produkzioan eragin zuzena dute. Analista sozialak hor badu beste ikergai bat: tokian tokiko kultur-eliteen formakuntza eta erreproduktzioa, hain zuzen ere. Hala ere, ikergaia gehiago zehaztu beharra dago. Hots, non daude kokatuta Pastoralaren idazleak eta errentak Zuberoako elite kulturalaren barruan? Pastoralari antzezpen-egazutza jakina dagokio. Gainera, zuberotar teatruko ezagutza hori ezagutza errituala da. Erran nahi baita, pertsona bakan batzuk bakarrik dira ezagutza horren begiraleak. Ezagutza hori jaso, plazaratu eta transmititu egiten da. Baina: zein dira ezagutza erritualaren transmisio-bideak? zeintzuk kontrolatzen dute ezagutzaren iragan-bidea? Areago: ezagutza errituala pertsona batengandik beste batengana iragan ondoren, nola zertifikatzen dira erreproduzitutako ezagutzaren legitimitatea eta egiazkotasuna?

Gizarte-ajenteen gorabeherak konplexuak ohi dira, anitz faktore kultural eta bariabile soziologiko nahasten baitira prozesu sozialetan. Halako konplexutasun soziokulturala begiesten da Pastoralaren

147. *By means of performance: intercultural studies of theatre and ritual*, Richard Schechner eta Willa Appel (eds.), Cambridge University Press, 1990.

148. Europako esenpluak bertatik ezagutzeko, ikus Kirsten Hasstrup (ed.) *Other histories*, European Association of Social Anthropologists, Routledge, Londres, 1992.

Sabino Arana Pastoral Garindaiñe herrian. Pastoralean ihardun ondoren arizaleek elkarrekin afaldu eta bestagiroan kantuari zein dantzari ekiten diete.



ren antzezpenean, zeren eta Pastoral folk-antzerkia, morfologiaz ximple xamarra izan arren, edukieraz tupitua baita.¹⁴⁹ Ondorioz, Pastoralaren erreferentzi puntuak ugari eta anbigoak dira. Pastoral antolatzean zirkunstantzia asko elkarren jokoan jartzen dira. Eraberean, kosmos sinboliko-interpretatiboak zein gizarte-jarrera instrumentalak plazaratzen dira joko horren inguruan. Adibide zenbait ematen dira ondorengo lerroetan.

II. MISTIFIKAZIO-MOETAK

Gero eta gehiago erabiltzen da egun Pastoral hitza Hegoaldean. Zuberoako trajediak ezezik, baita Hegoaldeko antzezkizun-moeta zenbait ere izendatzeko erabiltzen da Pastoral hitza. Sarri, herri bateko bizilagunak aktore gisa beren herriko plazan antzezkizunean agertzen direnean erabili ohi da Pastoral hitza. Horrela, *datorren igandean Lekeition Pastoral bat eman behar dute* edo antzeko izenburuak eta iragarkiak irakur daitezke noiznahi euskal prentsan. Neurri handian, Zuberoako Pastoralak herri txiki bateko jende-komunitatea batzen duelako ustea dago. Beraz, Hego Euskal Herrian esperientzia soziokomunitarioak sortarazten dituen kanpo-teatruak antolatu direnengan, teatru-esperientzia horiei 'Pastoralak' deritzete batzuk. Zalantzarik gabe, Zuberoako Pastoralak partaideengana dakarren esperientzia soziokomunitarioa da. Horrek ez du erran nahi, horratio, Pastoralaren atzetik herri-batasunik dagoenik. Halako ideia mistifikazioa da.

Alegia, herri batek Pastoral antolatzen duenean, usu lehia-dramatizazioaz mintzatu behar gara, herriko bizilagunen arteko batasun-prozesuaz baino. Dakusagun.

Bi Pastoral antolatu eta antzeztu ziren Zuberoan 1991. urtean: Harizpe marexala eta Xalbador bertsolaria. Urte bat-berean bi Pastoral antzezteza ez zen aspaldian Zuberoan agitzen.¹⁵⁰ Gainera, *erregent* [maisua edo zuzendari] bana estreinatua ziren Pastoral haietan. Halaber, 1991. urtean emandako Pastoralen idazleak Pastoral-idazle berriak ziren. Bi Pastoralen arteko kompetentziak nolabaiteko liskarra ekarri zuen. Pastoralak jokatu aurretik, herri bakoitzak bere legitimitatea edo zuzenbidea defenditzen zuen, beste herriarena ukatuz. Alegia, herri bakoitzak esaten zuen beste herriak haren antzezkizun-projektuari amore egin behar zioela. Eraberean, Pastoralak jokatu gero, audientziak juzgatu zuen antzezkizun bakoitzaren kalitatea, ikusle askok ez bata eta bestea benetazko Pastoralik ez zirela ihardetsiz. Eztabaida, orduan, honakoan zegoen: bateko, herri bakoitzak bere Pastoral antolatzeko eskubiderik bazeukanetz; eta besteko, taulagaineko antzezpeneak egiazko Pastoralak ba ote zirenetz. Ikusle askoren eritziz, Pastoral-idazleek ez zituzten ohizko Pastoralak idatzi.

Bi herrien arteko mesfindantzak bi argumentazio-moeta ezberdinetan nabarmendu ziren: esparru sinboliko-kognitiboan; eta esparru sozio-instumentalean. Esparru sinboliko-kognitiboari dagokiola

149. Tupitua esatean C. Geertz antropologo amerikarraren *deep play*, edo *joko lodia*, nozioaren oihartzuna dakart.

150. Pastoralen antzezkizunen zerrendak kontsultatzeko, ikus: G. Hérèle, *Riev.* 3. zenb., 1907; A. Agergarai, "Pastorales de 1951a 1980", *La Pastorale*, Lauburu, Baiona, 1987.

rik, natura/kultura bereizketan oinarrituriko metafora sozialak erabili ziren egoera definitzeko. Alegia, Pastoral bakoitzak bere nortasun berezia zuela adierazteko, herri antolatzaileak elkarrengandik aldendu ziren. Horretarako, parte hartzaileek

modu honetara bereiztu zituzten euren Pastoralak: bata, kultu, moderno eta landua; bestea, herrikoa, tradizionala, basa. Ikus ditzagun Zuberoan zehar zabaldu ziren bereizketa-jokoak diagrama batetan:

Heroea Heroearen izakera	Harizpe militarea frantsesa	Xalbador poeta euskalduna
Herria Kokapena	Muskildi Petarra ordokia/lautada	Larraïne Basaburua mendia/bortüa
Antzezlanaren Ezaugarri artistikoak	landua (moderno) botz ikasiak gorputz-higimendu ikasiak profesionaltasuna esportabilitatea	herrikoa (tradizionala) botz basak gorputz-higimendu basak herrikoitasuna barrutasuna
Kultur- erreferentziak	zabalak Zuberoatik kanpora begira egina	zuberotarrak Zuberoaren barrura begira egina
KATEGORIA	KULTURA	NATURA

Esparru gizarte-instrumentala dela-eta, hona hemen zer idatzi dudanez ohar-liburuan:

Muskildiko Pastoralak amaitu eta jauziak eman ondoren, kanpoko tabernara abiatu da jende anitz. Hantxe Larraineko gazte paketa bazen, beren artean herriko auzapeza, sujeta anaia, eta beste asko. Muskildiko jendea ere bai barra-barra zegoen. Eta bi taldeak nahastu egin dira, elkarriketan hasieran, eta kantuan segidan. Ni Muskildiko eta Larraineko gazte banarekin hizketan ari izan naiz. Egia erran, biek hitz egiten diote elkarri, zeren ni kanpoan gelditu naiz, nolabaiteko audientzia bihurturik.

Zuberoan bi Pastoral aurten izaitia, eta nola gertatu ote den, ukan dute mintzagai. Darraikionez, audientzia izan da problema handia. Beste bat, eskubidea edo lehentasuna. Arrazoiak eman dizkiote elkarri, bakoitzak bere buruari eusteko. Ber urtean bi herriko Pastoral bedera ematea sobera dela biek konpartitzen dute. Eta baita ere, bietako batek gibel eman behar izan zuela, zeren azpimarratzen bait zuten gaur egunean ez dagoela Zuberoan ez aski indar organizaileen aldetik, eta ez behar ainako audientzia konsumizatzaile kulturalen aldetik. Bi Pastoral antolatzeak honakoa dakar:

dirauen indar txikia eta ahula gehiago apurtzea. Puntu horretan akort zirelarik, Muskildik ala Larrainek, norik eman behar zuten gibel, zen auzia.

Muskildiarrak, bere eskubideari eusteko, honelaxe erraten zuten: Muskildiko xedea oso aitzinetik zen zabaldurik, urte bat aurrexetik, noiz gibel eman bait zuten Ikastolako Pastoralari bide emateko. Birritan, bi urte elkarren segidan, gibel ematea sobera zela zioen Muskildiarrak.

Larrainekoak, aldiz, bere eskubideari atxekitzekotan honako arrazoiak botatzen zituen: 38 urte joan dira Larrainen azken Pastoral antolatu zenez geroztik, eta Muskildik berriki emana zuten beste Pastoral bat, 6 urte lehenago, 1985. urtean hain zuzen ere; zaila da Pastoral bat Larrainen plantatzea, zeren eta, alde batetik, jende gutxi bizi bait da herrian gaur egunean, lana kanpoan dago-eta, eta beste alde batetik, ahula ahulari, urteetan zehar herria politikoki erdibanatuta egon da-eta. Beraz, Larraindarrek zioen, zuela sei urte eman nahi izan zuten Pastoral bat, baina ezin zuten, herritarren artean ados ez ziren etorri-eta. Orduantxe zuten aukera ederra, herri osoa akort izanik. Aukera iragaten

utziz gero, auskalo noiz letorkeen beste bat, behin ikusirik gero eta jende gutxiago bizi zela herrian.

Beraz, modu honetara laburtzen zuen larraindarrak bere jarrera: aurten ez badugu Pastoral plantatzen, sekulan ez dugu plantatuko, ahul gabiltza, jenderik ez da egongo herrian-eta; Muskildi indartsu dabil, berriki eman ditu Pastoral eta Maskarada; ondorioz, Muskildiri dagokio itxarotza. Muskildiarrek, ordea, modu honetara laburtzen zuen bere postura: guk behin itxoin dugu, ez dagokigu guri berriz itxotzea, are gutxiago noiz eta zuek guk baino beranduago abiatu bait duzue zuen Pastoral.

III. EKOIZPEN KULTURALA ETA TOKIKO POLITIKA

Pastoralaren historiari so labur bat eginez gero, urte berean bi eta hiru Pastoral antolatzea praktika arrunta izan dela Zuberoan berehala pertzibitzen da. Are gehiago, herri bat-berean bi Pastoral egun berean jokatzeko suertatu dela hortxe dago.¹⁵¹ Beste kapitulu batetan errana dugun bezala, Pastoralaren antolakuntzari herri antolatzailaren giro politikoa susmatu ohi zaio. Hainbat urtetan *gorrien* eta *zurien* arteko bataila politikoen bultzatuta, indartsu ibili dira Pastoralak Zuberoan. Orduko *zuriek* eta *gorriek* Pastoralak bultzatzean, herriko elkarrekintza politikarako espazioak kreatu eta biziartzen zituzten. Espazio haiek ez ziren xoil-xoilik ideologia politikoen esparruan iharduteko. Hau da, ideia politikoen zabaltzeko, edo propagandari eragiteko, baizik eta politika praktikatzeko. Beraz, *jei* haietan politika egiten zen. Ez zen parlamentuen politika handiaren gisako politika, egunero harreman sozioekonomikoak egituratzen zituen politika lokala baino. Baina, nolakoak dira oraingo nortasun sozialak, politikoen eta ekonomikoak Zuberoan? Erantzuna ez da erraza, Pastoralgintzan anitz elementu eta faktore elkarrekin ari dira-eta. Zientzia Sozialetan, bizitza sozialean lez, ez dago erantzun xinplerik. Hala ere, beste adibide bat aditzera eman behar dut.

1992. urtean Santa Engrazia herriak Pastoral bat plantatzen zuelako hotsa zabaldu zen. Geroxago, *Zuberoako Zohardia* elkarteak urte hartan beste Pastoral bat antolatu behar zuela mezutu zuen. Dantza zuberotarra pizteko asmoz osatutako elkarteak da *Zuberoako Zohardia*. Hala ere, *Zuberoako Zohardia* dantza-elkartea gauzatu eta urte batzue geroago, zatiketa bat suertatu zen elkartean,

nondik *Aitzindariak* dantza-elkartea egin baitzen. Bi elkarteek dantza-gertakizunen kontzepzio ezberdinak erakutsi dituzte, eta iharduera folk-kulturalak antolatzeko, instituzio publikoek banatzen duten sostengu ekonomikora jo dute. Administrazioak ez die diru-kopuru berdinek ematen elkarteei. Normalean, elkarte bati diru gehiago ematen dio, besteari baino. Ondoroz, influentzia edo ahalmen kontrastatuak dauzkate bi elkarteek. Alegia, baten protagonismo soziala, bestearen ahulezia izaten da.

Zuberoako Zohardiak antolaturiko Pastoral, orduan, modu honetara interpretatu zuten zuberotar batzuk. Urte hartan *Aitzindariak* taldeak Euskal Herriko 'dantzari-eguna' antolatzen zuen Maulen. Besta eta jai handia zela-eta, *Aitzindariak* dantza-elkarteak oso protagonismo indartsua hartzen zuen, Zuberora 'dantzari-eguna' bezalako ekoizpen kultural handia ekarriz. *Zuberoako Zohardia* elkarteak ezaugarri horretaz ongi jabeturik, beste folk-ekintza handia jendaurreratzea erabaki zuen: Pastoral. Hala eginez, *Zuberoako Zohardia* elkarteak ez zuen bere hegemonia eta irudi agintezkoa osorik galdu nahi. *Aitzindariak* eta *Zuberoako Zohardia* dantza-elkarteen arteko protagonismo soziala eskuratzeko lehiaz gain, bazen beste lehiarik: Santa Engrazia herriko Pastoralaren eta *Zuberoako Zohardia*-ko Pastoralaren artekoa. Santa Engraziako Pastoralaren bultzatzaileak *Zuberoako Zohardia*-koaren beldur ziren, Santa Engrazia herri txikia eta ahula izanda, *Zuberoako Zohardia*-ko Pastoralak kalte ekonomiko eta morala ekarriko ote zion Santa Engrazia herriari, kezkatuta zeuden-eta.

Zuberoako talde sozial, ekonomiko eta politikoen ezberdinen interesak dramatizatzeko espazio soziokulturalak dira Pastoralak. Maskaradekin batera, Pastoralak eragin handia izan dute Zuberoako herrien nortasunak moldatzerakoan. Hein handian, nortasun sozial, politikoen eta ekonomikoen oposaketa-jokoari jarraiki dio Zuberoako kreazio kulturalak. Pastoralak sormen kulturala da. Antzerkia eta erritua. Baita ere, jokoak eta jaiak. Johan Huijzingak aspaldian azpimarratu zuen kulturaren eta jokoaren artekotetasuna:

Resumiendo, podemos decir, por tanto, que el juego, en su aspecto formal, es una acción libre ejecutada 'como si' y sentida como situada fuera de la vida corriente, pero que, a pesar de todo, puede absorber por completo al jugador, sin que haya en ella ningún interés material ni se obtenga en ella provecho alguno, que se ejecuta dentro de un determinado tiempo y un determinado espacio, que se desarrolla en un orden sometido a reglas y que da origen a asociaciones que propenden a rodearse de misterio o a disfrazarse para destacarse del mundo habitual.

151. Ikus 107. oharra.

La función del 'juego' en las formas superiores que tratamos aquí se puede derivar directamente, en su mayor parte, de dos aspectos esenciales con que se nos presenta. El juego es una lucha por algo o una representación de algo. Ambas funciones pueden fundirse de suerte que el juego represente una lucha por algo o sea una pugna a ver quién reproduce mejor algo.¹⁵²

Egungo Pastoralgintzan erreferentzi puntu soziopolitiko berriagoen eragina berehala susmatzen dugu. Alde batetik, badago gertaera demografikoaren eragin nabarmena. Gero eta jende gutxiago bizi da Zuberoan. Gainera, populazioa zahartuta dago. Beste alde batetik, badago ideologia eta nortasun nazionalista edo euskalzale garrantzizkoa. Beraz, gaur egungo Pastoralen analisian, demografiaren beherakada eta azken urteotako ganbio soziopolitikoak oso kontutan hartzeak dira.

IV. PASTORALA ANTZEZTEAREN ZENTZUA

Pastoralak bere esangura galdu duelako zentzazioa dago aspaldion. Pastoralak desagertzeaz zegoela erran da lehen. Eta erraten da orain. Pastoralak azkendu delako zentzazioaz gogoeta egin beharra dago, zeren han eta hemen entzun eta irakurtzen baita Pastoralak azkentzen ari dela. Hala ere, Pastoralak antzezten dira. Orduan, nondik dator Pastoralak laster amaituko delako zentzazioa? Besteak beste, sozioekonomikoak, literarioak, identitarioak eta soziopolitikoak dira Pastoralak erranahia galduta dabilela dioten argudioak

Pastoralak urtero plazaratu arren, berez Pastoralaren folk-antzerkia bukatu delako zentzazioa dago bai Zuberoan eta bai Zuberoatik landa. Halako zentzazioa zergatik sentitua den adierazi duten argudioak hainbat dira. Esate baterako, XX mendeko hasieran azterlari batzuek pentsatu zuten progresoarene legeak ekarriko zioela Pastoralari bere azkena. Aspaldi honetan ere Pastoralak berea egin duelako eritziak entzun eta irakurri dira. Adibidez, Pastoralaren azkena, jenero literario gisa ulertuta, heroe modernoaren nortasun berriak ekarri duela erran dute batzuk. Bestetarik diotenez, zuberotar komunitate linguistikoak azkena joko du laster, erran nahi baita, Pastoralaren amaiera ere bertan dela. Eta argudio gehiago. Banan-banan zehaz ditzagun argumentazio bakoitzaren gorabeherak.

Zuberoako Pastoralari buruz hedatu den definizio batek dioenez, Pastoralak Europako nekazal teatruaren moeta beregisako bat da. George Hérelle-ren idazlanetan dakusagu ikuspegi hau. Idazle horrek bere azterketa egin zuenean, Pastoralaren azkena sentitu zuela ikribuz utzi zuen. Azkenaren zentzazioa bitan susmatu zuen. Alde batetik, europar baserritarren azken teatru-gisa bezala interpretatu zuen Zuberoako Pastoralak, zeren ikusi baitzuen beste europar nekazarien teatru-erak desagertuta zeudela, progresoak eta orduan nagusitzenago ari ziren kultura hiritarrek eraginda. Bestetik, Pastoralak bera ahultzen ari zela ikustean, Pastoralak amaiera laster joko zuela baieztatu zuen.

Pastoralak euskal teatruak zaharrena delako eritziak dago. Ikerlari batzuk esan diotenez, Pastoralaren heroeak Europako tradiziozko literatura epikoarekin harremanak daude. Hortik abiatuta, Jon Juaristi-k eta Maria Arene Garamendi Azcorra-k Pastoralari azkena heldu zaiola iradoki dute. Azterlari horien ustetan, egungo Pastoralaren gaiak eta irudigintza literatura eta heroe unibertsaletik zeharo hurrundu dira, oso tokian tokiko sujetak eta erreferentziak nagusituz. Gero eta tokikoagoko aferritatean, Pastoralak nortasun literario identifikagarririk gabe gelditu da. Jon Juaristi-ri eta Maria Arene Garamendi Azcorra-ri jarrai, Pastoralak bere burua galdu eta azkendu egin da jenero literario gisa.

Ikus dezagun Pastoralaren azkentzearen inguruan dagoen beste argudio bat. Donostiako Victoria Eugenia eta Bilboko Arriaga hiri-antzeztokietan errepresentatu zen Harispe Pastoralak 1991. eta 1992. urteetan. 1994. urtean Behe Nafarroako Donaxiti herriak Pastoral bat antolatu zuen. Antzeppen haiek Pastoralaren azkenaz mintzarazi zuten Zuberoan zein Hegoaldeko komunikabide euskaldunetan, erraniko arrazoiak ezberdinak izan zirelarik.

Pastoralak Uhai Handiko jendeen ezagutza eta egikuntza delako pertzepzioa dago. Pastoralak Zuberoako bertako kultur-ondare pribatua dela segituan dator halakoxe perzeptiotik. Bestela erranda, *xiberotarzuna* eta Pastoralgintza banandu ezinezko gauzak dira. Elkarrekin gauzatzen diren prozesuak dira, hots. Pastoralgintza izakera sozial berezi baten ekarlea denez, zuberotar zenbaitek argudiatu dute Pastoralak Zuberoatik at ez litzatekeela errepresentatu behar, nahiz eta *galtoa ukhen*, hau da, nahiz eta aukera euki. Arrazoitzat eman da zuberotar ez den audientzia baten aurrean Pastoralak antzezteak ez duela batere zentzurik, halako ikusentzulego kanpotarrak ezingo luke eta barneratu zuberotarrak barneratu ohi duena Pastoral baten aitzinean. Erran nahi baita, zenbait zuberotarrek interpretatu du Pastoralak bere berezko indarra galtzen duela testuinguru kulturaletik kan-

¹⁵² J. Huizinga, *Homo Ludens*, Alianza, 1972, 26-27. orrialdeetan.

po kokatzean. Baietzapen honen arabera, Zuberotatik at Pastoralak indarge da, nortasungabea. Halako kontestu kultural urrunean Pastoralak ulergaitza da, jokalarien eta ikusentzuleen arteko komunikazioa, kontzeptuala baino, bisuala eta azalezkoa baita. Ondorioz -zenbaitek dio- Zuberotatik kanpo Pastoralak errepresentatzeetik egiazko Pastoral zuberotarraren azkena datorke.

Halako eritziak kasu handia ematen dio Pastoralak denboran zehar bere kode sinboliko, estetiko eta linguistikoa landu izanari. Pastoralari logika berezia erantsi izan zaiolakoan, eta logika hori Arriaga eta Victoria Eugenia antzokietako audientziek nekez jasoko zutelakoan, harako bidaiak merezi ez zuela aipatu zuten zuberotar batzuk. Pertsonok, hala ere, aitortu zuten Pariseko edo Pabeko antzeztokiak aproposak direla Zuberoako Pastoralak emateko. Zergatik? *A priori* Victoria Eugeniako eta Arriagako audientziak kulturalki arrotz egiten zitzaizkien, ezjakitun zuberotar teatru-arte ez.

Kulturaren ezezik, politikan eta hizkuntzan ere arrotz egiten zitzaizkien Bilborako eta Donostiarako bidaiak anitz zuberotarri. Hegoaldeko hiri hauetan Pastoralak ematea hutsalezko espektakulua izanen zela aurreziritzoten. Aldiz, Parisen edo Paben Pastoralak emateari ondo zeritzoten, hiriotan emigrante zuberotarren kopuru handia dago-eta. Zuberotarren pertzepziotik begiratuta, Frantziako hiri hauetara Pastoralak eramanez gero, kanpoko zuberotarrak osatuko lukete antolatzaileek audientzia. Honexek adierazten du zergaitik endeleгатzen den Zuberoan, Paris eta Pabe hirietan Pastoralak erre-presentatuz gero, berauek egiazko Pastoralak izatea. Baita ere, adierazten du zergaitik sortzen duen zuberotar askorengan interes gutxi Bilbon edo Donostian Pastoralak erre-presentatzeak.

Eraberean azpimarratu beharra dago Zuberoako bizilagun asko gaztaroan emigrante izan direla Frantziako hirietan, edota bertan sendideak dituztela. Arestiko adibideetatik datorrenez, Pastoralari benetakotasuna kode kulturala konpartitzeak dakarkio. Ez badute jokalariek eta ikusentzulegoak kode sinboliko-komunikatiboa konpartitzen Pastoralaren *xiberotarzuna* barreiatzen da. Pastoralak eta *xiberotarzuna* elkarrekin osatzen direnez, Pastoralak izena eman zaion antzezpenera zuberotarra perzibitzen ez bada, emaitza ez da egiazko Pastoralak. Orduan, zuberotar ez den audientziaren aitzinean antzezturiko Pastoralak benetazko ez direla argudiatu dute zuberotar batzuk.

Urte-hamarkada honetan Pastoralak emanik izan dira Hegoaldeko aski hiri zein herritan, Pastoralaren antzeztokiak nabarmen aldatu direlarik. Zuberotar batzuren ustetan, Zuberoaren kanpoko

antzeztokian Pastoralak bere berezko errannahiaz eranzten da, batez ere bertara hurbiltzen den audientzia zuberotarra ez izatean. Hegoaldeko idazle batzuk ere ulertu dute Hegoaldea ez dela antzeztoki zuzena Pastoralak antzezteko, are gutxiago hiriko antzeztoki burgesetan erreprestatzen direnean.

Hegoaldeko intelektualek ezbaideratu zuten Bilboko eta Donostiako antzoki handietara Zuberoako Pastoralak ekartzean Pastoralaren nortasuna ba ote zen bortxatuta gelditzen halako testuinguru espazialean. Idatzizko komunikabideetatik bideratu zen eztabaida, eritzi-artikuluetan adierazita. Idazle batzu teatru handien kontra agertu ziren, Zuberoako kanpoalde menditsu eta zabaleko agertokiak laga eta aberats apainduriko hiritar antzokietan sartzean Pastoralaren herri-kutsua desagertzen zela erranez. Alegia, Pastoralaren izakera berezia deusezten zen. Argudio horren arabera, kutsu herrikoia, naturaduna galtzen zuen Pastoralak hiriko teatru estalian. Halako kokapenean gezurrezko afera bihurtu zen Pastoralak, Pastoralari berez daxtektion identitatea ezabatzen baitzen. Definizio suerte horren arabera, Pastoralak baserri-giroko ekoizpen kulturala da. Eta antzezten denari baserri-giroa susmatzen ez bazaio, orduan Pastoralak ez da. Bilbon eta Donostian halako eskenario-aldaketak Pastoralari bere nortasun-ezaugarri pisuzko bat kentzen zioela argudiatu zuten hegoaldetar batzuk, Pastoralaren kokapen berezkoa natura eta mendia baita, espazio kultural hiritarra Pastoralari ez dago kiola erantsiz.

1994. urtean Behe Nafarroako Donaxiti herriak donaxitiarrez osaturiko Pastoralak antolatu nahi izan zuen. Hasieran arazo ugariekin topo egin zuen egitazmo horrek, zeren eta, benetazko Pastoralak izan zedin, idazle, errejent eta dantza zuberotarrak behar baitziren Nafarroa Beherara ekarraziti. Beraz zuberotarren laguntza behar zuten Donaxiti herrikoek. Eta haiexei laguntza eskatu eta haiexengandik lortu behar laguntza delakoa. Pastoralaren sekretuak zuberotar ez denak bereganatzea zuzena ote zen mintzagai izan zuten zuberotarrak: hots, ea inguruko herriak Pastoralak antzezten hasiz gero, kutsua letorkiokeen Pastoralari, zeren *manexek* Pastoralaren sekretuak eskuratu ondoren, zuberotarrena ezezik askosaz jende gehiagorena ere izanen litzateke Pastoralak. Adibide honek ere erakusten du norainoko indarra duen Pastoralak/*xiberotarzuna* binomioa. Ikuspegi honetatik ikusita, antzeten dena zuberotarra denetz kolokan jarriz gero, antzeztua Pastoralak ote den baita ere jartzen da auzian.

Laburbilduz, egungo Pastoralgintzaren dinamikak hiru egoera berri sortarazi ditu: Hegoaldean maizago kasik Zuberoan baino Pastoralak antzezteak; nekazal kutsurik ez duten -beraz, naturaz apar-

te dauden- antzekune erabiltzea; eta kulturalki zuberotar ez diren herriek Pastoralak antzeztea. Jende batzuk kontuak atera ditu: bide hauetatik barrena sendo abiatuz gero Pastoral zuberotarren azkena datorkeela.

Aspaldi honetako Pastoralen inguruan sortu den giro berriaren aurrean, Pastoralari azkeneko azkena heldu zaiolako zentzaioa dago Zuberoan zehar, delako azken hau oso azken paradoxikoa izanik. Azkeneko azkentze honen zentzazio zertan oinarritzen den jabe gaitzen, bi erreferente sozial behar ditugu kontutan hartu. Bata, XX mendearen erdialdean portamolde eta eginbide urbano frantziarrak, kanpaina osoan bezala Zuberoan ere, nagusitzena go joateak duintasun soziala kendu zien laborarien hizkuntzei, pentsakerei, bizimoduei eta ekoizpen kulturei, beronen kariak folk-antzezkitzuna murriztu zirelarik. Gero eta herri gutxiago ziren gai Pastoralak edo Maskaradak antolatzeko, gero eta dantzari, kantari, baserri, eta *uskaz* ele-emale gutxiago baitzegoen Zuberoan. Ostera esanda, belaunaldi berriek gero eta gogo txikiagoa zuten gurasoen mundu ekonomiko eta kulturalki eusteko.

Urte-hamarkada honetan, ordea, bailerako herriero dager Pastoralaren eskakizuna. Duela gutxi herri gehienek muzin egin zuten Pastoral. Orain ikaragarri finkatua dute Pastoralaren nahia eta egintza. Hau dela-eta, 1991. eta 1992. urteetan Pastoral bina antolatu ziren. Ondoko urteetan lehia handia izan zen herrien artean, zeren urtero agertu baitira hiruzpalau herri Pastoral emateko prest. Herriek elkarré hitzegin behar izan diote, Pastoralak urtez urte eta errezman banan-banan antzezteko, urteko bi Pastoral plazaratzen herrien artean istiluak piztu dira-eta. Egun Zuberoan Pastoral emateko *lista de espera* edo itxarote-zerrenda luzeska dago, erran nahi baita, datozen urteotarako Pastoralak zein herri antzeztuko dituzten jadanik ezagutzen dela, zeren herri eta data zerrenda baitago, herri bakoitza bere txandaren zai dagoelarik.

Mende hasierako eta erdialdeko Pastoralak erreferentzipuntutzat hartuta, oraingo Pastoralako pa:taidetza nabarmen emendatu da, askoaz arizale gehiago agertzen da-eta. Gaur egunean, bistan da, Pastoralarekiko desira handia da. Folk-antzezkitzuna eta jokalarien kopuruari so eginez gero, Pastoralaren bizkundera gauzatu dela garbi dago. Pastoral sendatu eta hazi da, hots. Ordea, egoera hau paradoxikoa dela dio zuberotar jendetalde batek, entzuten baita egoera hau benetazko bizkundera ez dela. Alegia, egungo Pastoralaren indar hau antza baino ez da. Areago, Pastoral antzeztearen atarian gaudela gero eta gehiago aipatzen da.

Pastoralaren azkentze hau frogatzen duen argumentua hirukoitza da. Alde batetik, lehia bera dago.

Hau da, herrien artean kompetitzaek liskarrak eta mesfidantzak sortzen ditu, zeren Pastoral antolatzaek diru-inbertsio handiak, administrazio-subentzioen eskaerak eta partehartzaileen denbora esijitzen baititu. Urte bakoitzeko Pastoral prestazeko eskubidea zeinek duen gatazka-giroa ohi dakar-eta, batzuk uste dute Pastoralaren porrota berehala datorkeela. Beste alde batetik, egungo Pastoralgiron herriar asko agertzen da jokoan partehartzekotan, eta Pastoralaren testuetan dagoen baino pertsona gehiago azaltzen da errepetizionetara, batez ere andrazkoen partetik, eta beronek antolantza-arazoak sortarazten ditu. Azkenik, honakoa ere entzuten da: herri guztiek nahi dute ahal bezain laster Pastoral bat eman, zeren baitakite beren azken Pastoral dela, Zuberoako gazteak ez baitira euskeraz mintzatzen, eta Pastoral euskeraz erre-presentatzen da. Zuberoan euskerak berea egin du, eta euskeraren desagertetarekin batera berdín egiteko zorian dago Pastoral.

V. AZKEN HITZAK

Mende honetako hasieran Pastoralaren azkentze perzibitzen zen. Europako laborantza ahultzen ari zen bezala Pastoral ere ahulduko eta desagertuko zelakoan zeuden pentsalari batzu. Geroago aipatua izan da Pastoral bere izakeraz erantzia dagoela aspaldion: literatur esparruari begira, gaiak eta herreen betebeharrak burutik buru aldatu dira; antzeleen eta ikusentzuleei begira, hauexek heterogeneoagoak dira, Zuberoako kultura barnetik ezagutzen ez dutenak gero eta ugariagoak izaki; teknika artistikoak gero eta gehiago lantzen dira hiri-produkzio artistikoen ereduari begira, Pastoralari egokitu zaizkion herriko eta baserri estereotipoak indarra galduz doazelarik.

Egun mundu ruralaren dinamizazioa ikusten da. Pastoralaren munduan ere bizkundera bide dago. Hala ere, Pastoral hiltzen ari dela diote jende batzuk. Pertsona hauek azpimarratu dute sobera Pastoral antolatzaek arazo handiak sortzen dituela Zuberoan. Arazo bat herri zuberotarren eguneroko elkarbizitza dagokio. Beste arazo bat Pastoralaren kontsumoaren esparruari. Zeren zor eta irabazkin ekonomikoak baitaude auzian, giro deserosoak nabarmetzen dira herrien artean, urte berberan bi Pastoral plantatuz gero. Halaber, pastoralzalea asetu eta akitzen da, Pastoral gehiegi berari eskeinuta. Alegia, Pastoralen lar-eskeintzak Pastoralaren azkentza dakarre segituan. Gaur egunean, ondorioz, batzuk *bizkundera* -Pastoralaren indarra- deritzotena, beste batzuk *pastoralitis* gaitza -Pastoralaren ahulezia- izendatu dute.

Betiko urperatu baino lehenago itoak dagien azken hats handia bailitzan ikusten da Zuberoan Pastoralaren paradoxa hau. Zuberoako herriak pre-

saka datoz Pastoralak antzeztera zeren eta baita-kite hamar bat urteren buruan Pastoralik antzezteko gai ez diratekeela: herriak txipitzen eta zahar-tzenago joatean, ia haurrik ez dator-eta, sortzen diren umeez euskeraz hitzegien ez dutelako, Pastoralik plazaratzeko txanzarik ez dagoke arrunt Zuberoan.

XX mendean zehar, orduan, "Pastoralaren azkena" mintzagai izan da. Modu askotara, ordea. Gizarte osagileak behatuz gero, hego Europako baserri-tarren azken antzertia agertu zaie batzuri. Ezaugarri literarioei dagokiela, azkendutako jenero bat bereiztu dute beste batzuk. Elkarkomunikaziorako kode kultural eta sinbolikoei begira, ohizko kokapen fisiko-geografikoaren eta signifikantza-sarearen desagerteta susmatu dute beste zenbaitek. Pastoral-jokalaririk laster izanen ez dela igarri dute beste batzuk.

Iraultza Industrialak bizimodu hiritarrak ekarri zituen. Bizimodu berri haien aitzinean, XX mendean hasierako historialari eta soziologoek nekazal gizartearen azkena aurreikusi zuten. Nekazal gizartearen azkenarekin batera laborarien agerpen kulturalak ere desagertzeko zorian zeudela uste zuten. Pastoralaren esangura Europako nekazari-tzaren esparru historiko-ekonomikoan kokatzean, Pastoralaren geroa laborantzaren geroari lotu zio-

ten ikerlari zenbaitek. Hiriak herriei nagusitzean, herrietako agerpen kulturalak desagertuko zirela-koan zeuden azterlari batzu, Zuberoako Pastoralaz aztertu zutenak barne.

Filologiatik begiratuta, Pastoral jenero literarioa zehatza da, epika-kutsu handia egokitu zaiona, heroeak kultura unibertsaletik hautatuak izan baitira. Pentsalari batzuk diotenez, ez dute egungo Pastoralek ospe handiko heroe lewendariorik antzezten. Bai, ordea, tokian tokiko pertsona ezagutuak. Eraberan, egungo Pastoraletan ekintza epikoari garrantzia gutxiago ematen zaio, lehenengoetan baino. Oraingo Pastoraletan lirika-arloa nabarmen jorratzen da. Azken urteotako Pastoralaren heroe handirik ezak eta kantu lirikoaren indarrak zenbait ikerlariri honako zentzazioa ekarri diote: Pastoral finia da. Eraberan, oraingo Pastoral-idazleek lehenengo konbentzionalismo zaharrak gero eta gehiago baztertu dituztela ikusita, pertsona batzuk iradoki dute Pastoral berriak ez direla egiazko Pastoralak.

Mundu ruraleko errito, ospakizun eta arte folklorikoak indartu dira azkeneko urteotan. Pastoralak ere ugaritu dira urte-hamarkada honetan zehar, Pastoralaren bizkundera dagoela azpimarratzeraino. Hala ere, bizkundera horrek Pastoralaren azkena ezkutetzen duela aurreikusten dute pertsona batzuk.



LABURPENA

Saiakera honek Zuberoako Pastoralak folk-jeneroa arakatzeko du. Bi alde bereizten ditu. Lehenbizikoan Pastoralaren antzezgrafiarri begiratzen zaio. Pastoralak badu antzezgrafia berezia, 'bestea'ri buruz irudi historiko-kulturalak jendaurrean jartzen dituenak. Lehenbiziko aldean irudi historiko-kultural horiez gogoeta egiten da. Bigarrenean, Pastoralaren ezaugarri dramaturgiko eta bestagiakoak miazten dira. Ezaugarri horien printzipio estruktural eta psikokognitiboak baino, bestaren eta dramaturgiaren arlo instrumentala azpimarratzen da. Hala eginenez, tokian tokiko politikan Pastoralak eragin handiko gertakizuna dela ageri da.

RESUMEN

Este ensayo analiza un género del folclore suletino, que se llama Pastoral. Se distinguen dos partes. La primera se fija en la escenografía que caracteriza a las Pastorales. Esa escenografía es particular. Su particularidad radica en que esa escenografía proyecta imágenes histórico-culturales acerca de un 'otro'. La primera parte es una reflexión sobre la estructura simbólica que permite la expresión de esas imágenes histórico-culturales. La segunda parte se ocupa de los aspectos dramaturgicos y festivos que acompañan a la puesta en escena de una Pastoral. Sin restar importancia a los elementos estructurales y psicocognitivos de ese género teatral, este ensayo enfatiza el aspecto instrumental de la fiesta y el drama popular. Con ello se aprecia que la Pastoral es un acontecimiento social que influye en las relaciones políticas locales.

RÉSUMÉ

Cet essai analyse un genre du folklore souletin appelé Pastorale. Deux parties le composent. La première étudie la mise en scène qui caractérise les Pastorales. Cette mise en scène est tout à fait particulière et sa singularité réside dans le fait de projeter des images historico-culturelles à propos d'un «autre». La première partie constitue une réflexion sur la structure symbolique qui permet l'expression de ces images historico-culturelles. La seconde partie aborde les aspects dramaturgiques et festifs qui accompagnent la mise en scène d'une Pastorale. Sans négliger les éléments structurels et psychocognitifs de ce genre théâtral, l'essai met l'accent sur l'aspect instrumental de la fête et du drame populaire. Il apparaît ainsi que la Pastorale est un événement social qui joue un rôle dans les relations politiques locales.

ABSTRACT

This two-part essay looks at a folk genre in Soule called Pastoral. The first part deals with the typical Pastoral scenography, which is rather idiosyncratic as it includes the projection of historical and cultural images of an 'other'. This first part is basically an examination of the symbolic structure facilitating the expression of such historical and cultural images. Part two deals with the theatrical and festive features accompanying the staging of a Pastoral. While not playing down the importance of the structural and psycho-cognitive elements of this theatrical genre, the essay emphasises the instrumental aspect of both fiesta and popular drama, thereby pointing up the fact the Pastoral is a social event affecting local political relations.